

# D EREDUKO KIROLA



## IKERKETAREN TXOSTENA

2017-2018

|        |                                                                 |    |
|--------|-----------------------------------------------------------------|----|
| 1.     | Sarrera .....                                                   | 4  |
| 2.     | Aurrekariak .....                                               | 5  |
| 3.     | Helburuak.....                                                  | 5  |
| 4.     | Ikerketaren datu orokorrak.....                                 | 6  |
| 5.     | Esku-hartzearen datu orokorrak .....                            | 7  |
| 6.     | Ikerketaren metodologia.....                                    | 9  |
| 6.1.   | Ikerketa eta esku-hartzearen prestaketa.....                    | 9  |
| 6.2.   | Lekuan lekuko lana .....                                        | 10 |
| 6.2.1. | Behaketak parte-hartzaileak .....                               | 10 |
| 6.2.2. | Talde-dinamiken bidezko talde-hausnarketak.....                 | 11 |
| 6.2.3. | Talde elkarrizketak eta hiruko-elkarrizketak:.....              | 12 |
| 6.2.4. | Txostenaren osaketa .....                                       | 13 |
| 7.     | Kirola, kluba eta taldea.....                                   | 14 |
| 7.1.   | KIROLA.....                                                     | 15 |
| 7.1.1. | Kirola zehaztuz.....                                            | 15 |
| 7.1.2. | Kirola gizarte balioak eta identitateak.....                    | 15 |
| 7.1.3. | Kirolaren izaera bikoitza: ludikotasuna eta lehia .....         | 17 |
| 7.1.4. | Soziabilitatea eta kirola .....                                 | 18 |
| 7.2.   | KLUBAK .....                                                    | 20 |
| 7.2.1. | Klubaren nortasun sinboloak.....                                | 20 |
| 7.2.2. | Espazioaren garrantzia .....                                    | 21 |
| 7.2.3. | Klubaren izaera soziala .....                                   | 23 |
| 7.2.4. | Klubaren hizkuntza plangintza .....                             | 25 |
| 7.2.5. | Hizkuntza-soziabilitate zaindua .....                           | 27 |
| 7.3.   | TALDEA I: praktika-komunitateen azterketa.....                  | 29 |
| 7.3.1. | Haur eta nerabeen kirol-praktikak.....                          | 29 |
| 7.3.2. | Praktika-komunitatea .....                                      | 29 |
| 7.3.3. | Kirolariak .....                                                | 31 |
| a.     | Nolako nerabeak?.....                                           | 31 |
| b.     | Talde kirolariak .....                                          | 32 |
| 7.3.4. | Entrenatzaileak.....                                            | 33 |
| 7.3.5. | Praktikak.....                                                  | 35 |
| a.     | Praktiken giroa: disziplina eta txantxa .....                   | 35 |
| b.     | Praktiken antolaketa: entrenamendu formalak eta informalak..... | 37 |
| 7.3.6. | Materiala.....                                                  | 39 |
| 7.4.   | TALDEA II: Gazte kirolarien sozializazioa.....                  | 41 |
| 7.4.1. | Kirolari bilakatzen.....                                        | 41 |

|         |                                                         |    |
|---------|---------------------------------------------------------|----|
| 7.4.2.  | Entrenatzaileen garrantzia .....                        | 42 |
| 7.4.3.  | Kirolari erreferenteak .....                            | 42 |
| 7.4.4.  | Gorputz-kapitala.....                                   | 43 |
| 7.4.5.  | Kultur-kapitala .....                                   | 43 |
| 7.4.6.  | Hiztun bilakatzen.....                                  | 45 |
| 7.4.7.  | Gazte hiltunak.....                                     | 45 |
| a.      | Hizkuntza-gaitasuna .....                               | 46 |
| b.      | Egunerokotasuneko hizkuntza-praktikak .....             | 47 |
| c.      | Hizkuntza-praktikak kirolean, klubean eta taldean ..... | 49 |
| d.      | Hizkuntza ideologia.....                                | 50 |
| 7.4.8.  | Entrenatzaile hiltunak .....                            | 53 |
| 7.4.9.  | Praktiken hizkuntza .....                               | 54 |
| a.      | Hizkera informala.....                                  | 55 |
| b.      | Batua, euskalkiak eta hitanoa .....                     | 56 |
| c.      | Kirol hizkera.....                                      | 58 |
| 8.      | Kirola-Kluba-Taldea: hirugarren espazioa.....           | 60 |
| 8.1.    | Urrats gutxi batzuk atzera .....                        | 60 |
| 8.2.    | Gazte sakalariak .....                                  | 61 |
| 8.3.    | Jaurtiketa librearen etorkizuneko jokoari begira .....  | 64 |
| 8.4.    | Kirola, hizkuntza-kultura berri baterako eremua.....    | 66 |
| 9.      | Erreferentziak .....                                    | 67 |
| 10.     | Eranskinak.....                                         | 68 |
| 10.1.   | Behaketarako gidoia.....                                | 69 |
| 10.2.   | Elkarriketen gidoia .....                               | 72 |
| 10.3.   | Esku-hartze zehatza klubetan .....                      | 76 |
| 10.3.1. | Esku-hartzearen programa.....                           | 77 |
| 10.3.2. | Esku-hartzearen memoria taldez-talde .....              | 93 |

## 1. Sarrera

Dokumentu honetan *D ereduko kirola* izeneko egitasmoan 2017-2018 ikasturteko ikerketaren emaitzak bildu ditugu. Antropologian ohikoak diren teknikak erabiliz, ikerketa etnografikoa egin dugu hiru kirol klubetan: Zaramaga Pilota Elkartea (esku-pilota), Padura Taldea (sakibaloia) eta Real Sociedad (futbola). 2016. urtean, *D ereduko kirola* egitasmoa abiatzerakoan, bi xede orokor zehaztu ziren:

- Begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango duen kirol-aisialdi antolatutako bat modu esperimentalean eratzea arloko eragileekin (*D ereduko kirola*).
- *D ereduko kirol* horren eraketa-prozesuaren eta bertan parte hartzen duten eragileen ahots ezberdinen gaineko ikerketa egitea: helduena (guraso, ikastetxe, udal, klub...) eta, batez ere, haur eta gazteena (jardueretako partaideak zein begiraleak).

2016-2017 ikasturtean lau kirol-talderen hizkuntza-praktiken lehen hurbilketa egin zen, entrenatzaileen jarduna, iritziak eta bizipenak erdigunean jarritz. Lehen urte horretan egindako ikerketa-lana testuinguru orokorra finkatzeaz gain, esplorazio moduan lehenengo elkarriketak eta behaketak burutzean oinarritu zen. 2017-2018 ikasturtean lan horretan sakondu da bi aldagaitan oinarrituz: (1) kirolari nerabeen ahotsa lehen planoan jartzea eta (2) esku-hartzea eta ikerketa lanak batera lantzea. Bi gako horiek definitu dute, hein handi batean, ikerketari begira planteatutakoa. Ikuspegi antropologikoarekin garatutako ikerketa kualitatibo baten bidez hiru kirol talderen (Real Sociedad, Zaramaga eta Padura) kirolarien hizkuntza-praktikak eta diskurtsuak jaso ditugu. Gazteak (kirolariak bereziki baina baita ere entrenatzaile gazteak) erdigunean jarri ditugu, euren ahotsak, esperientziak, bizipenak, iritziak azaleratu eta azpimarratuz.


Talde-lanaren emaitza izan da aurten garatutako ikerketa. Batetik, Urtxintxa Elkarteko dinamizatzailea izan den Julene Maia esku-hartzea dinamizatzeaz arduratu da eta ikertzaileak berekin izan dugun koordinazioa oso egokia izan dela uste dugu. Gainera, Urtxintxa Elkartean gain, *D ereduko kirola* egitasmoan inplikatuak dauden gainontzeko erakunderekin izan dugun koordinazioa ere oso ona izan da: Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Topagunea. Bideoa egiteaz arduratu den Infotres enpresarekin lana egitea oso erraza izan da. Azkenik, noski, parte hartu duten hiru kirol klubetako inplikazioa azpimarratu nahiko genuke. Padura, Zaramaga eta Real Sociedad kirol taldeetako arduradunek erraztasun guztiak eskaini dizkigute lan egokia garatu ahal izateko.

Lan honen emaitza dira, batetik, egindako dinamiken bilduma eta, bestetik, jarraian aurkeztu dugun ikerketa txostena. Ahaztu gabe, dinamiken emaitza nagusi bat ekoiztu den bideoa izan dela. Ikerketa txosten honetan bezala bideo horretan jaso geratu da egindako lana eta batez ere protagonista nagusien ahotsak: gazte kirolarien ahotsak.

Jarraian, beraz, ikerketaren emaitza nagusienak aurkeztuko ditugu. Aurrekariak eta esku-hartze lanaren azalpen labur bat eman ondoren, erabilitako metodologia eta tekniken berri emango dugu. Ondoren, ikerketan egindako lan etnografikoaren analisisian murgilduko gara eta ondorioak eta aurrera begirakoak aurkeztuko ditugu. Azkenik, eranskinetan kirol klub bakoitzean garatutako esku-hartze dinamiken emaitza guztiak bildu ditugu.

## 2. Aurrekariak

2016an egindako ikerketan argi geratu zen kirol arloan lau eragile mota bereizi ditzakegula: jokalariz gazteak, entrenatzaileak, klubetako arduradunak eta gurasoak. *Dereduko kirola* egitasmoaren lehen urte horretan entrenatzaileek bereganatu zuten arreta eta, bigarren mailan, gaztetxoek. Ikusi ahal izan genuenez kirol taldeetan entrenatzaileak erreferenteak dira, paper aktiboa dute, eta hitza, nagusiki, euren da. Gaztetxoak protagonistak dira (haien) gozamenerako den esparru batean baina, hitzaren ikuspegitik, euren rola nahiko pasiboa da, bigarren mailakoa. Esate baterako, eta euskararen erabilerari dagokionez, honela irudikatu genuen “kirol kantxan” ohikoa den hizkuntza egoera:



2017-2018 urterako lan nagusia jokalariekin eta entrenatzaileekin garatzea aurreikusi zen eta hala egin da. Batetik, gazteei eta entrenatzailei begirako esku-hartze esperimentalak diseinatu zen eta osorik gauzatu da eta, bestetik, ikerketa etnografiko bat garatu dugu gazteekin.

### 3. Helburuak

# Orokorrak

- Entrenatzaileekin hasitako lanarekin jarraitzea (2016ko ibilbideak utzitako ondorioak kontuan harturik).
- Kirolari gazteekin zuzenean lana egitea.
- Ikerketa eta esku-hartzea uztartzen saiatzea.
- Gazteak (kirolariak bereziki baina baita ere entrenatzaile gazteak) erdigunean jartzea, euren ahotsak, esperientziak, bizipenak, iritziak azaleratu eta azpimarratuz.

- Oinarrizko material bat biltzea D ereduko Kirola garapenerako lagungarria izan daitekeena. Gazteei beraiei emango zaie aukera erabakitzeke nola bideratu nahi dute euren kontakizuna, zein formatua eman euren esperientziaren kontakizunari.

### **Zehatzak**

- Kirolari gazteek (entrenatzaileak barne) gazte eta kirolari gisa dituzten bizipenak ezagutu eta ikertzea.
- Gazte eta kirolari gisa komunikazioaren inguruan dituzten kezkek, zailtasunak, nahiak... aztertzea.
- Gazteen (hizkuntza) protagonismoa areagotzea.
- Gazteen hizkuntza praktikak ludikotasunari begira (ere) jartzea.
- Gazteei euskararen erabilera areagotzeko esparru berriak irekitzea.
- “Gazte + kirolari + euskaldun” elementuen arteko loturak, harremanak, kontraesanak eta gatazkak bildu eta ikertzea.

## **4. Ikerketaren datu orokorrak**

Prozesuak 2017-2018 ikasturteko urritik ekainera iraun zuen. Ikerketa eta esku-hartze esperimentala uztartu genuen zortzi hilabete hauetan zehar Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia Saileko irakaslea den Jone Miren Hernándezek proposamen zehatzari jarraituz. Hauek dira lan taldea osatu duten pertsonak:

### **Ikerketa taldea (UPV/EHU)**

*Zuzendaria:* Jone M. Hernández

*Ikerlariak:* Jaime Altuna, Maialen Altuna, Iñigo Beitia eta Iraitz Otaño

### **Esku-hartzearen dinamizazio lana (URTXINTXA)**

*Dinamizatzailea:* Julene Maia

Ikerketa eta esku-hartzea hiru klubetan garatu da:

Araban: Zaramaga Pilota Elkartea (Gasteiz)

Bizkaian: Padura Saskibaloia Kluba (Arrigorriaga)

Gipuzkoan: Real Sociedad Futbol Taldea

## 5. Esku-hartzearen datu orokorrak<sup>1</sup>

Esku-hartzea esperimentala bi astean behin, gutxi gora behera, garatu dugu urrian hasi eta martxora arte. Kirola, komunikazioa eta hizkuntza (euskara) uztartzen saiatu ginen oso saio dinamikoen bidez. Guztira ordu erdiko zortzi saio egin ziren talde bakoitzarekin. Azpimarratu behar da zazpigarren saioaren ondoren dinamika berezi bat proposatu zitzaien parte hartu duten taldeei: erronka bat egitea. Dinamizazioetan landutakoa hausnarketekin eta esamoldeekin lotutako erronka bat proposatu genien denbora epe zehatz batean entrenamenduetan garatzeko. Hiru taldek hainbat entrenamendu erabat euskaraz egitea adostu eta egin zituzten. Azkenik, azpimagarria da dinamizazio hauen amaieran bideo bat ekoiztu dugula esku-hartze hauetan gazteek garatu duten lana jasoaz eta baita beraien iritziak ere.

Esku-hartze dinamika hauetan kirola, komunikazioa eta hizkuntza uztartzen saiatu gara. Komunikazioak kirol jarduna hobetzeko duen garrantzia aztertu ondoren, komunikazioak hobetzeko prozesuan euskararen presentzia handitzeko proposamenak garatu ditugu. Hauek dira esku-hartze esperimentalerako jarri genituen helburuak:

- Komunikazioa erabili eta horren konpetentzia garatu kirolari (bakarka) edota talde gisa errendimendua hobetzeko. Beti ere kontuan hartuta, komunikazioak talde lana eta motibazioa hobetzen dituela.
- Komunikazioa hobetzeko prozesuan euskarari lehentasuna/bidea eman kirol esparruan. Kirol esparruan parte hartzen duten eragile ezberdinekin (entrenatzaile, taldekideak, arduradunak, ikusleak...) eroso eta beldurrik gabe euskaraz komunikatzeko aurrerapausoak ematea. Dauden zailtasun eta zalantzak gainditzeko pausuak ematea.
- Prozesuan zehar sortutako gogoetak, izandako esperientziak eta ikasitakoa beste gazte batzuekin partekatzea.

Ondorengo bi laukietan garatutako dinamikak agertzen dira:

### Jarduerak helburuekin

| <b>EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA (Berotze unea)</b> |                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|----------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1                                                        | 1. JARDUERA: Aurkezpena<br>2. JARDUERA: Taldearen posterra                        | - Lanketaren helburua azaldu eta euren parte hartzea eskatu.                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>LEHEN FASEA (Komunikazioa kirolean)</b>               |                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 2                                                        | 3. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia<br>4. JARDUERA: Kirolaren eragileak       | - Komunikazioak kirolean duen garrantzia eta onurak ezagutu eta horren jabe egin.<br>- Komunikazioa kirolean zertan datzan ezagutu: zein elementu dauden jokoan (hitza, gorputza...) eta zein eragilek parte hartzen duten (entrenatzaileak, kirolariak, antolatzaileak, gurasoak...) |
| 3                                                        | 5. JARDUERA: Eragileen komunikazioa                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 4                                                        | 6. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa<br>7. JARDUERA: Jendeaurrean hizketan | - Kirolari gisa nola komunikatzen garen aztertu<br>- Jendeaurrean hitz egiteko aholkuen lanketa                                                                                                                                                                                       |

<sup>1</sup> Esku-hartze saioetako programazioa, dinamiken fitxak eta talde bakoitza egindako guztia txosten honen eranskinetan dago.

| <b>BIGARREN FASEA (euskara kirolean)</b> |                                                                              |                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 5                                        | 8. JARDUERA: Geure buruari galdezka                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirol arloan euskarak duen tokia eta papera aztertu</li> <li>- Beste hizkuntzekin alderatuta euskara non, noiz eta nola erabiltzen den ikusi.</li> </ul>                        |
| 6                                        | 9. JARDUERA: Euskara kirolean<br>10. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gure kirol eremuan erabiltzen ditugun esamoldeak jaso.</li> <li>- Kirol esparruko esamoldeen hiztegia osatu</li> <li>- “Kirol hiztegi gaztea” partekatu eta zabaldu.</li> </ul> |
| 7                                        | 11. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz                                    |                                                                                                                                                                                                                          |
| 8                                        | 12. JARDUERA: Proiektuak elkarrekin partekatuz                               |                                                                                                                                                                                                                          |

### Jarduerak dinamikekin

| <b>EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA (Berotze unea)</b> |                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1                                                        | 1. JARDUERA: Aurkezpena<br>2. JARDUERA: Taldearen posterra                        | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ahozko azalpen laburra proiektuaren ingurukoa.</li> <li>2. Taldearen posterra egiteko argazkia eta horren inguruko galderak</li> </ol>                                                                                                                                    |
| <b>LEHEN FASEA (Komunikazioa kirolean)</b>               |                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| 2                                                        | 3. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia<br>4. JARDUERA: Kirolaren eragileak       | <ol style="list-style-type: none"> <li>3. Ahozko azalpen laburra eta irudien bidezko komunikazio on/txar</li> <li>4. Eragileen bi horma-irudiak. Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan eragile ezberdinak kokatu (entrenamenduetan + partidetan)</li> </ol>                                                   |
| 3                                                        | 5. JARDUERA: Eragileen komunikazioa                                               | <ol style="list-style-type: none"> <li>5. Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan: <ol style="list-style-type: none"> <li>5.1. komunikazioaren nolakoa den irudikatu tamaina ezberdineko gezien bidez</li> <li>5.2. Zer komunikatzen den jarri: animoak, haserrea, tristura, aginduak...</li> </ol> </li> </ol> |
| 4                                                        | 6. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa<br>7. JARDUERA: Jendeaurrean hizketan | <ol style="list-style-type: none"> <li>6. Banakako profila zehaztuz: kromoa eta prentsaurrekoa</li> <li>7. Jendeaurrean hitz egiteko aholku zerrenda (bideoen bidez)</li> </ol>                                                                                                                                     |
| <b>BIGARREN FASEA (euskara kirolean)</b>                 |                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| 5                                                        | 8. JARDUERA: Geure buruari galdezka                                               | 8. Gure kirol arloan euskarak duen tokia eta papera aztertu lau galderen bidez.                                                                                                                                                                                                                                     |
| 6                                                        | 9. JARDUERA: Euskara kirolean<br>10. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen      | <ol style="list-style-type: none"> <li>9. Kirolean euskararen presentzia zein den ikusi bideoen bidez.</li> <li>10. Gure kirol eremuan erabiltzen ditugun esamoldeak jaso.</li> </ol>                                                                                                                               |



|   |                                                |                                                                                                                       |
|---|------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 7 | 11. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz      | 11. Kirol esparruko esamoldeen hiztegia osatu ondoren, erronka bat proposatu euskarazko esamolde gehiago erabiltzeko. |
| 8 | 12. JARDUERA: Proiektuak elkarrekin partekatuz | 12. Gune konpartitua egindakoa aurkezteko eta zabaltzeko.                                                             |

## 6. Ikerketaren metodologia

Aurtengo ikerketak bi ezaugarri berezi zituen: (1) kirolari nerabeen ahotsa lehen planoan jarri nahi genuen eta (2) esku-hartzea eta ikerketa lanak batera lantzeko saiakera. Bi gako horiek definitu dute, hein handi batean, ikerketari begira planteatu dugun metodologia eta aurtengo egitaspora egokitzen ziren teknikak sortu behar izan ditugu.

Ikuspegi antropologikoarekin garatutako ikerketa kualitatibo baten bidez hiru kirol talderen (Real Sociedad, Zaramaga eta Padura) kirolarien hizkuntza-praktikak eta diskurtsoak jaso ditugu. Gazteak (kirolariak bereziki baina baita ere entrenatzaile gazteak) erdigunean jarri ditugu, euren ahotsak, esperientziak, bizipenak, iritziak azaleratu eta azpimarratuz.

Sarreran aipatu dugun bezala, aurtengo lanaren ezaugarria talde-lana izan da. Ikerketa ere taldean garatu dugu, zehazki, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Antropologia Sailan sortutako lantalde baten bidez. Ikerketa honen zuzendaria Jone Miren Hernandez García izan da. Ikertzaile lanetan Maialen Altuna, Iñigo Beitia, Jaime Altuna eta Iraitz Otaño gizarte antropologoak aritu gara.

Ikerketak hiru fase eduki ditu. Batetik, ikerketaren prestaketa garaia izan dugu. Tarte horretan, esku-hartze esperimentalaren diseinua garatu zen. Horretaz gain, lekuan lekuko lana prestatu zen eta parte hartuko zuten kirol taldeekin kontaktazio lana garatu genuen. Bigarren fasean, lekuan lekuko lana burutu da esku-hartze lanarekin batera. Azkenik, hirugarren fasea, emaitza nagusiak bildu eta azaltzen dituen txosten honen osaketari dagokio. Jarraian, beraz, egindako lana laburbilduko dugu hiru fase horien araberrako gidoia erabiliz.

### 6.1. Ikerketa eta esku-hartzearen prestaketa

Lehen fasea 2017ko udaberrian hasi zen. Aurreko urteko emaitzak baloratuta 2017-2018ko ikerketaren diseinu orokorra egiteaz gain, esku-hartze esperimentalaren diseinua garatu zen. Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa lan-taldea arduratu zen bi lan hauetaz. Horrekin batera, kirol klubaren arduradunekin harremanetan jarri ginen egingo zena azalduz eta eskatzen eta eskaintzen geniena zehaztuz. Lan hau bileren bidez eta epostaz eta telefonoz egin zen. Aipatu dugun bezala, diseinu lan honek bi ezaugarri berezitan oinarritu behar zen: (1) kirolari nerabeen ahotsa lehen planoan jartzea eta (2) esku-hartzea eta ikerketa lanak batera lantzea. Hortaz, bi ezaugarri horiek definitu dute 2017-2018an garatu dugun lekuan lekuko lana.

## 6.2. Lekuan lekuko lana

Lekuan lekuko lanerako hiru teknika erabili ditugu: (1) Behaketa parte-hartzaileak, (2) Dinamiken bidezko hausnarketa saioak, (3) Elkarriketak.

### 6.2.1. Behaketak parte-hartzaileak<sup>2</sup>

Behaketa ikerketa antropologikoen ohiko teknika da eta lotura berezia du etnografiarekin. Behaketaren bidez ikertu nahi den egunerokotasunaren informazioa jasotzen da. Teknika honen bidez, aurtengoan iaz hasitako behaketa lana osatu dugu: ikertzaileok kirol jarduerak sortzen diren dinamika orokorrak eta hizkuntza-praktikak behatzen aritu gara. Bertan egon gara, kirol praktiken erdian, gazte kirolariekin denbora luzea partekatzen. Behaketa hauetan elkarriketa informalak sortzeko aukera izan dugu behaketaren bidez jasotako zenbait gaien inguruan zehaztapenak lortuz. Bi behaketa mota egin ditugu: batetik, behaketak esku-hartze saioetako egunetan, bestetik, behaketan entrenamenduetan. Hauek dira egindako behaketen zerrenda:

| ZARAMAGA<br>13-15 urte |            |               |       |
|------------------------|------------|---------------|-------|
|                        | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                      | 2017-10-25 | 2             | 9     |
| 2                      | 2017-11-13 | 3             | 10    |
| 3                      | 2017-11-27 | 2             | 10    |
| 4                      | 2017-12-11 | 2             | 10    |
| 5                      | 2018-01-29 | 2             | 9     |
| 6                      | 2018-02-12 | 2             | 8     |
| 7                      | 2018-02-26 | 2             | 9     |
| 8                      | 2018-03-12 | 2             | 9     |

| PADURA<br>Infantil<br>12-13 urte |            |               |       |
|----------------------------------|------------|---------------|-------|
|                                  | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                                | 2017-11-30 | 2             | 10    |
| 2                                | 2017-12-17 | 2             | 11    |
| 3                                | 2018-01-09 | 2             | 10    |
| 4                                | 2018-01-23 | 2             | 9     |
| 5                                | 2018-02-13 | 2             | 9     |
| 6                                | 2018-03-13 | 2             | 11    |
| 7                                | 2018-03-20 | 2             | 9     |

---

<sup>2</sup> Behaketetarako erabili ditugun gidoia eranskinetan dago.

| REAL SOCIEDAD<br>Infantil Txiki<br>12-13 urte |            |               |       |
|-----------------------------------------------|------------|---------------|-------|
|                                               | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                                             | 2017-10-27 | 2             | 17    |
| 2                                             | 2017-11-08 | 2             | 15    |
| 3                                             | 2017-11-22 | 2             | 13    |
| 4                                             | 2017-12-13 | 2             | 17    |
| 5                                             | 2018-01-17 | 2             | 15    |
| 6                                             | 2018-01-31 | 2             | 18    |
| 7                                             | 2018-02-03 | 3             | 17    |
| 8                                             | 2018-02-21 | 2             | 14    |

Behaketa bakoitzak ordubete eta 2 ordu arteko iraupena izan du eta bertan jasotako informazioa eguneroko batean, idatziz eta zehaztasun handiz, deskribatuta geratu da.

#### 6.2.2. Talde-dinamiken bidezko talde-hausnarketak

Azken urteetan nerabe eta hurrekin garatzen ari garen ikerketetan talde-dinamikak erabiltzen ditugu informazioa biltzeko. Hauxe litzateke teknika honen xedea: gauzak gertatzea, gauzak gertatzeko uneak sortu. Talde handietan hainbat dinamika proposatzen ditugu hausnarketak pizteko asmoz. Gehienetan hauxe izaten da prozedura: (1) Lauzpabost lagunez osatutako taldeetan elkartzen dira guk proposatutako dinamika bat egiteko. (2) Taldeetan osatutako dinamikaren emaitza elkar banatzen dira talde handian, eta, denon artean landu nahi dugun gaiari buruz hausnarketa egiten dute. (3) Sortutako materiala eta ondorioak bildu.

D ereduko kirola egitasmorako dinamika bereziak sortu genituen esku-hartzea eta ikerketa uztartzeko asmoz. Esku-hartzeko dinamikak, beraz, baliagarriak izan zaizkigu ikerketan jaso nahi genuen informazioa biltzeko.

Hona hemen dinamika hauen egutegia:

| ZARAMAGA<br>13-15 urte |            |               |       |
|------------------------|------------|---------------|-------|
|                        | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                      | 2017-10-25 | 2             | 9     |
| 2                      | 2017-11-13 | 3             | 10    |
| 3                      | 2017-11-27 | 2             | 10    |
| 4                      | 2017-12-11 | 2             | 10    |
| 5                      | 2018-01-29 | 2             | 9     |
| 6                      | 2018-02-12 | 2             | 8     |
| 7                      | 2018-03-12 | 2             | 9     |

| PADURA<br>Infantil<br>12-13 urte |            |               |       |
|----------------------------------|------------|---------------|-------|
|                                  | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                                | 2017-11-30 | 2             | 10    |
| 2                                | 2017-12-17 | 2             | 11    |
| 3                                | 2018-01-09 | 2             | 10    |
| 4                                | 2018-01-23 | 2             | 9     |
| 5                                | 2018-02-13 | 2             | 9     |
| 6                                | 2018-03-13 | 2             | 11    |
| 7                                | 2018-03-20 | 2             | 9     |

| REAL SOCIEDAD<br>Infantil Txiki<br>12-13 urte |            |               |       |
|-----------------------------------------------|------------|---------------|-------|
|                                               | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                                             | 2017-10-27 | 2             | 17    |
| 2                                             | 2017-11-08 | 3             | 15    |
| 3                                             | 2017-11-22 | 2             | 13    |
| 4                                             | 2017-12-13 | 2             | 17    |
| 5                                             | 2018-01-17 | 2             | 15    |
| 6                                             | 2018-01-31 | 2             | 18    |
| 7                                             | 2018-02-21 | 2             | 14    |

### 6.2.3. Talde elkarrizketak eta hiruko-elkarrizketak<sup>3</sup>:

Joan den urtean bezala, aurtengoan ere gizarte zientzietan bezala, antropologian eta etnografian ere hain ohiko teknika hau erabili dugu. Elkarrizketaren bidez ikertu nahi den gaiaren inguruan etnografoak galdetu, hitz egin eta, batez ere, entzun egiten du. Ikasturte honetan egindako elkarrizketak, ordea, badute berezitasun bat: ez dira bakarkako elkarrizketa sakonak izan. Talde elkarrizketak izan dira, gehienak hiruko-elkarrizketa teknikaren bidez egindakoak. Teknika honetan, elkarrizketatzaile bat dago eta berarekin hiru pertsona elkarrizketatzen dira batera; aldi berean, elkarrizketatuen arteko eztabaida eman daiteke. Eztabaida talde txiki bat dela esan daiteke, non dinamika interaktiboago eta irekiago bat dagoen, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen artean hurbilpen handiagoa egonik (Ruiz, 2012).

Dena den, ezin izan dugu elkarrizketa guztiak hiruko taldetan egin, beti ez baita erraza klubetako, kirolarien eta ikertzaileen agendak bateratzea. Gazte jokalariekin guztira 13 elkarrizketa egin ditugu. Horietako 8 hiruko-elkarrizketak izan dira, 4 binakakoak eta bat 5ekoa. Azpimarratu behar da programan parte hartu duten gazte guztiak elkarrizketatu ditugula. Hau da, aurreko Kirola egitasmoa garatu duten 37 gazteren ahotsa jaso dugula. Entrenatzaileekin bi elkarrizketa sakon egin ditugu: bat Zaramagan eta bestea Paduran.

<sup>3</sup> Elkarrizketa hauen gidoia eranskinen atalean dago.

Elkarrizketetarako gidoi bat prestatu da baina ez da galdera sorta itxia. Gidoia solasaldirako eskema gisa erabili da eta elkarrizketatua izan den pertsonaren arabera moldatu da, hau da, laguntza bat izan da eta ez da hitzez hitz jarraitu ezta ordena mantendu ere ez. Asmoa elkarrizketatutako entrenatzaileekin solasaldi ahalik eta erosoena edukitzea izan da euren bizipenak, diskurtsoak eta hausnarketa pertsonalak jaso ahal izateko.

Honako hau da elkarrizketaten zerrenda:

| ZARAMAGA<br>13-15 urte |            |               |       |
|------------------------|------------|---------------|-------|
|                        | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                      | 2018-01-31 | -             | 3     |
| 2                      | 2018-02-05 | -             | 2     |
| 3                      | 2018-02-14 | -             | 3     |
| 4                      | 2018-02-19 | -             | 2     |
| 5                      | 2018-03-12 | 2             | -     |

| PADURA<br>Infantil<br>12-13 urte |            |               |       |
|----------------------------------|------------|---------------|-------|
|                                  | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                                | 2018-03-13 | -             | 3     |
| 2                                | 2018-03-13 | -             | 3     |
| 3                                | 2018-03-20 | -             | 2     |
| 4                                | 2018-03-20 | -             | 2     |
| 5                                | 2018-03-20 | 1             | -     |

| REAL SOCIEDAD<br>Infantil Txiki<br>12-13 urte |            |               |       |
|-----------------------------------------------|------------|---------------|-------|
|                                               | Data       | Entrenatzaile | Gazte |
| 1                                             | 2018-02-13 | -             | 3     |
| 2                                             | 2018-02-27 | -             | 3     |
| 3                                             | 2018-02-20 | -             | 3     |
| 4                                             | 2018-02-21 | -             | 3     |
| 5                                             | 2018-02-11 | -             | 5     |

Elkarrizketa bakoitzak, gutxi gora behera, 45 minutu eta ordu bete arteko iraupena eduki du eta denak grabatuak izan dira (elkarrizketatuaren baimenarekin). Ondoren, grabazio horiek transkribatuak izan dira elkarrizketa horien edukiak aztertzeko.

#### 6.2.4. Txostenaren osaketa

Aipatutako teknika horiekin guztiekin jasotako informazioa guztiarekin esku artean duzun honako ikerketa-txosten hau osatu dugu.

## 7. Kirola, kluba eta taldea


Honela mintzatu ginen iazko ikerketaren ondorioetan:

Kopuruez, eta joera orokorrez gain, euskarak egunerokotasunean eta egunerokotasunarekin loturiko komunitateetan hartzen duen itxura arakatzea, aztertu beharreko dimentsioa dela pentsatzen dugu. Hizkuntza adina, jatorri, lanbide, klase, formazio... jakineko taldeetan nola txertatzen den, eta zertan gauzatzen den ezagutu beharko genuke, hiztunen profilak eta “euskarak dituen gorputzak” hobeto irudikatu ahal izateko. Orokortasunetik zehaztasunetara. Ñabardurak jasotzeko asmoz. Eta euskarak ahalbideratzen dituen praktiketan bereziki erreparatuz. (2016-2017 txostena)

Horregatik ikerketa hau kirol eremuan kokatzea funtsezkoa iruditzen zitzaigun, eta horregatik lehenesten genuen “praktika-komunitatearen” kontzeptuaren erabilera. Besteak beste, hizkuntza eskala “errealago” batean ikertzeko aukera ematen digulako: praktika zehatz ezberdinei lotuta, eta,aldi berean, helburu zein motibazio jakin batzuei begira. Hori izan da, beraz, 2017-2018 ikasturtean garatu dugun ekimenaren abiapuntua: kirol arloan kokatutako praktika-komunitate zehatz batzuetara jo dugu nerabeen euskarazko sozializaziora gerturatzeko asmoz; euskarak dituen gorputz gazte horietara gerturatzeko asmoz.

Joan den urtean, Euskal Herriko zenbait kirol testuinguruetan hizkuntzak bizi duen errealitate sozialera hurbildu ginen, eta aurtengoan urrats berri bat eman nahi izan dugu kirolari nerabe euskaradun horiekin lan eginez.

Jarraian, 2017-2018 ikasturtean Gasteizko Zaramaga Pilota Elkartean, Arrigorriagako Padura Saskibaloia Taldean eta Real Sociedad Futbol Taldean egindako ikerketa-lan horren txostena aurkezten dugu. Horri begira, hiru esparru orokor bereizi ditugu: kirola, kluba eta taldea; eta esparru horietan, guztien erdigunean, gazte kirolariak eta komunikazioa jarri ditugu.



## 7.1. KIROLA

*D ereduko kirola* egitasmoaren eremua kirola da. Kirolak bere tokia eta bere logika ditu gure kulturari; bere ezaugarriak eta bere protagonistak. Horregatik, kirolak arreta berezia eta berezitu behar duela uste dugu. Hizkuntza (euskara) gune berezi horretan txertatzen da eta bertako egoera, dinamika, helburu edota errealitatera egokitzen da. Egokitu bakarrik ez, errealitate hori sortzen edota eraikitzen ere laguntzen du. Kirol esparrua aukera edo mehatxua izan daiteke euskararentzat. Gakoa hizkuntza helburuak kirol eremura moldatzean eta egokitzean datza. Baina horretarako garrantzitsua da kirol esparrua mugatzea eta ezagutzea. Jarraian, beraz, gure ikerketan esparru zehatz eta bereizi honen inguruan agertutakoak landuko ditugu.

### 7.1.1. Kirola zehaztuz

Hona hemen *D ereduko kirola* egitasmorako erabiltzen ari garen kirol-jarduera fisikoaren definizioa:

Kirol parte-hartze antolatu eta askearen bidez ematen den eta helburu gisa gorputzaren eta buruaren sasoia hobetzea, aisialdian dibertitzea, harreman berriak sortzea edo emaitza lehiakorak eskuratzeko duen jarduera fisiko oro (Usain, 2011:222).

Joxan Unsain-ek egindako proposamenari jarraituz hauek dira kirola definitzeko erabiltzen diren lau osagarriak:

- Egoera motorea: giza mugimenduen agerpenak.
- Txapelketa: arau sistema zehatz beten barnean murgilduta.
- Instituzionalizazioa: erakunde ofizialak, federazio, elkarten artean antolatua.
- Entrenamendua: emaitzak bilatzen dituen, aurre prestakuntza prozesua.

Gurekin lana egin duten hiru taldeek (Zaramaga, Padura eta Real Sociedad) ezaugarri horiek betetzen dituzte. Nerabeek giza mugimenduan oinarritzen den praktika garatzen dute, entrenamendua da praktika horren denbora gehien hartzen duen talde-aktibitatea, beste hainbat giza-taldeekin batera txapelketetan parte hartzen dute eta, azkenik, instituzionalizazio maila handia duten taldeak dira.

### 7.1.2. Kirola gizarte balioak eta identitateak

Ohikoa izaten da kirola gizarte gatazka eta eztabaidetatik at dagoen egitate gisa deskribatzea. Ikuspegi horren arabera, kirolak gizarte-balio “ideal” batzuk ordezkatzeko lituzke edo ordezkatu beharko lituzke. Gizarte zientzietan, ordea, bestelako irakurketak egiten dira kirol-jardueraren inguruan. Xabier Medina-ren eta Ricardo Sanchez-en ustez:

El deporte se encuentra inmerso y continuamente construido en base a la reproducción de los valores sociales dominantes, pero al mismo tiempo los reformula y los retransmite a la sociedad (Medina eta Sanchez, 2003:22)

Hau da, kirola ‘*gizarte egitate osoa*’ gisa deskribatu daiteke<sup>4</sup>: gizarte baten instituzio guztiak mugimenduan jartzen dituen. Hau da, kirolaren bidez egungo gizarte antolaketa osoa ulertu genezake. Baina kirola ez da erraz deskribatu daitekeen zerbait. Konplexua, polisemikoa eta poliedrikoa da eta dimentsio eta elementu heterogeneo ezberdinak lotzen ditu. Carles Feixa antropologoak, futbolari erreferentzia eginez hala dio:

Considerar las culturas del fútbol como un «fenómeno social total» supone no segregar la diversidad de aspectos contradictorios que lo componen. ¿Cómo separar al aficionado del profesional, al practicante del espectador, el juego del espectáculo, el deporte del negocio, el pasatiempo del trabajo, la pasión de la burocracia, el fair play de la violencia, como a menudo hacen periodistas, dirigentes deportivos o discursos publicitarios?. En el deporte se entremezclan elementos heterogéneos, constituyendo un universo corporal y simbólico dotado de una lógica interna, con un significado global relativamente autónomo respecto del sistema social; al mismo tiempo el deporte está estrechamente vinculado a las condiciones históricas generales, refleja de manera dramatizada la naturaleza de las instituciones centrales de la sociedad en cada momento histórico, las formas de ejercicio de la hegemonía cultural y las resistencias frente a esta hegemonía (Feixa, 2003:78)

Gizarte baten instituzio guztiak mugimenduan jartzen dituen, argi dago kirola erakunde publikoen eta gizarte mugimenduen ekimen arloa dela. Planifikatu eta arautu egiten den arloa da eta gizarte bakoitzaren behar, diskurtsu, balio eta ezaugarriei egokitu behar da. Hizkuntzaren ikuspegitik ere antolatu beharreko arloa dela uste dugu, hala ez egiteak bestelako hizkuntza planifikazioak ekartzen baititu.

Aipatu dugu kirolak gizarte-izaera bikoitza duela, batetik gizartean dominanteak diren balioen arabera eraikitzen da, bestetik, balio sozial horiek berformulatzen ditu; berriak sortzen ditu eta gizarteari transmititzen dizkie. Identitatearen esparruan ere antzeko zerbait gertatzen da: identitateak islatzen ditu eta identitateak sortzen ditu. Egungo gizarte posmodernoa kirola identitate gune funtsezkoa da. Kirola ispilu moduan uler daiteke, gizartean dauden identitateak islatzen dituen, baina era berean identitate berrien katalizatzaile boteretsua da (Feixa, 2003:77).

Xabier Medina eta Ricardo Sanchez-en ustez konpetizio-kirolak beti *ordezkaritza* dakar berekin (2003:21). Horren arabera kirol-ekintzaren ezaugarri funtsezkoena *identifikatzeko* gaitasuna litzateke: jokalarien, jarraitzaileen eta ikusleen berehalako inplikazio afektiboa. Hala, kirolaren bidez lurralde edo kultura batekin lotura identitarioa eraikitzen da. Aurten aztertu ditugun taldeetan bi alderdi identitario hauek (lurraldea eta kultura) ematen direla jaso dugu, baina ez maila berean. Alderdi kulturala esku-pilotarekin lotuta ageri zaigu, “euskal” identitatearen ikur gisa:

Z9: Hombre tradizioa mantentzeko eskupilota. Zuk ikusten baduzu... Andaluziakoak, “*Este es vasco, este juega a pelota mano, ese que le da con una piedra*”. Eta harriak, harri jasotzaileak daude baina beti esaten dute eskupilota. Eta da, euskaldunak identifikatzen duten kirolarekin.  
(Zaramaga. Gazte kirolaria)

Baina horrek ez du esan nahi euskararekin erabat lotuta egon behar duenik:

---

<sup>4</sup> *Gizarte egitate osoa* kontzeptua Marcel Mauss antropologo eta soziologoak proposatutakoa da (1973).



Z6: Euskera gabe euskal pilota izaten jarraituko zuela... nola da, hizkuntza berdin du...  
Z7: Jatorria da garrantzitsua  
Z6: Bai.  
(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Futbol eta saskibaloaren kasuan identitatea lurraldearekin askoz lotuago ageri zaigu. Aurtan aztertutako klubaren kasuan Padura erabat lotuta dago Arrigorriaga herriko identitatearekin. Real Sociedad, aldiz, lurralde zabalago baten ordazkaria da, Gipuzkoakoa, eta esan daiteke lurralde horren identitatearen ikur garrantzitsuenetako bat dela

### **7.1.3. Kirolaren izaera bikoitza: ludikotasuna eta lehia**

Eguneko kirolak izaera bikoitza betetzen du. Batetik, alderdi ludikoa du: aisialdian dibertitzea. Bestetik, alderdi agonistikoa ere oso berezkoa du: norbereraren buruarekiko edo bestearekiko lehia. Iaz ohartarazi genuen bezala, bi alderdiak ez dira antagonikoak eta ia kirol-jarduera fisiko guztietan, modu batean edo bestean, biak batera ematen dira. Hori bai, kirol antolatzaile eta kudeatzaileen arabera kirol-praktika alderdi batean ala bestean kokatu daiteke, errendimendua eta lehia erabat lehenetsiz eta ondo pasatzeari inolako garrantzirik eman gabe, adibidez.

Aztertutako hiru klubetan bi alderdi horiek ikusi ditugu. Argi dago Real Sociedad taldea askoz gehiago lerrotzen dela ikuskizuneko kirol esparruan, bikaintasuna eta kirol arrakasta bilatzen duena. Hala ere, guk aztertu dugun Realeko talde zehatzean, ludikotasuna ere oso presente dago behatu ahal izan dugu eta elkarriketetan hala berretsi digute gazte guztiek. Jokalariak ondo pasatzen dutela esan dute; txantxa giroa dutela eta dibertigarria dela bertan aritzea:

R11: Barra in behar donean, barra iten dou, baina geo...  
R12: Serixo. Partidotan serixo.  
R11:...hoi da.  
(Real Sociedad. Gazte kirolariak)

Baina era berean intentsitatea aipatu dute, lan handia egiten dutela. Aurreko urtean Gipuzkoako herri bateko talde batean aritzen zen mutil batek, adibidez, lan hori azpimarratu zigun aurreko taldearekin konparatuz:

R7: Hemen kaña asko, o sea, gehiago eta hor [aurreko klubean] ez zen hain fuerte. Eta hor entrenamendu bat gutxiago... eta hemen askoz gehiago, entrenamenduak  
(Real Sociedad. Gazte kirolariak)

Zaramaga eta Padura klubak ere lehiari eta errendimenduari begira daude, baina exijentzia maila askoz txikiagoa da. Zaramagan, adibidez, “teknifikazioa” izeneko saio berezi batzuk izaten dituzte hilean behin. Bi talde hauetan aisialdiaren alderdi ludikoak garrantzi handia du eta errendimenduak ekartzen dituen alderdi batzuk ez daude hain presente. Padurako entrenatzaile batek, adibidez, hala adierazi zigun:

No se, o sea saiatzen gara umeei erakustea pues errespetatu behar dela. O sea, adin horretan daudela jolasten ikasteko eta ez irabazteko. Eta gero ya nagusitzen zoazenean da desberdina (Padura. Entrenatzailea).

Dena den, elkarriketatutako nerabe neska batek zenbaitetan lehiaren alderdia gutxiegi lantzen dela aipatu zigun:

P1: Es que niri entrenatu dit daroatzadan hiru urteak [entrenatzailearen izena] eta nik uste bera dela como poco competitiva. O sea, behar denean badauka baina da como mas relajada eta, adibidez, emaitzak ez dizkigu eman inoiz.

*Elkarriketatzailea: Eta hori uste duzue ona dela, txarra?*

P1: Batzutan ni entrenatzaile izango banintz ba bai erakutziko nituela motibatzeke bazoaz galtzen... baina bueno ez dago txarto.

(Padura. Gazte kirolaria)

Horri buruz Padurako entrenatzaileari galdetuta hau erantzun zigun: “Nik beti esaten diet niri ez zaidala inporta emaitza niri inporta zait nola dauden jolasten, igual beste taldea izan daiteke txartoago jolastea eta joatea irabazten. *Es que* ez da zertan izan behar berdina...”. Beste adibide honetan, Zaramagako gaztetxo batek aipatzen digu euren talde egitura egonkorragoa dela lehia alderdia ez delako beste kirolekin bezain handia:

Z2: Bai. Gero bestetik, gustatzen bazaizu egiten egotea, egite hutsagatik egitea, ondo zaude.

Z3: Bai. Pilotan, adibidez, jendea ez da beste klubetara juten, adibidez futbolekin joaten zara klubera eta asko aldatzen da plantila.

(Zaramaga. Gazte kirolaria),

Ludikotasuna eta lehiarekin batera, gehienetan osagarri den hirugarren esparru bat dugu: gorputz-sasoia hobetzearena eta harremanak sortzearena (haur eta nerabeen kasuan heziketa alderdiarekin lotuta legoke). Gure ikerketan parte hartu duten klubek heziketa alderdiari garrantzia ematen diote eta aurtengoan garrantzitsua iruditu zaigu kirolak duen alderdi erlazionalari erreparatzea.

#### **7.1.4. Soziabilitatea eta kirola**

Gurea bezalako egungo gizartearen aisialdian kirolak harreman-elementu gisa funtzionatzen du. Esan daiteke soziabilitate eta talde-identitate tresna garrantzitsua dela. Bi ezaugarri horiek, elkar lotuta badaude ere, plano ezberdinak dira eta hala aztertu ditugu.

Soziabilitatea gizartean bizitzeari erreferentzia egiten dion kalitatea da, harremanei eta harremanen kudeaketari buruz mintzo den kontzeptua da. Argi dago, kirolak egungo jendartean harremanetarako gune garrantzitsua dela eta talde-kirolekin areagotu egiten dela soziabilitate faktoreak duen garrantzia: taldekideen artean harreman egokia izatea berebiziko garrantzia du elkarbizitzarako eta kirol emaitza onak lortzeko. Gainera, soziabilitatean funtsezko elementua komunikazioa dugu: talde horren partaideen arteko komunikazioa.

Taldeak izatearen garrantzia maiz atera da gazteei egindako elkarrizketetan. Gasteizen, adibidez, pilotan aritzearen zergatia galdetuta hala erantzun ziguten:

Z7: Harremana izatea eta kirola praktikatu.

Z6: Ah, hori ere, kirola praktikatzea eta harremana.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Gure ikerketan soziabilitateari erreparatu diogu eta horri begira Iñigo Beitiak Gasteizko Zaramaga elkarteaz aztertzeke planteatu zuen hasierako hipotesi batetik abiatu gara. Zaramaga elkarteak Gasteizen euskara ardatz duen kirol elkarte bat denez eta, gainera, klubaren kirol-espezialitatea ‘euskal-pilota’ denez, Beitiak elkarteaz hiriko *arnasgune* gisa irudikatu zuen. Ikerketan jasotakoaren arabera, ordea, Beitiak konturatu zen Zaramaga Pilota Elkartek arnasguneen ezaugarri batzuk dituen arren, okerra zela pilota elkarteaz *hizkuntza-oasi* bat bezala planteatzea. Horren ordez, *hizkuntza-soziabilitate zaindua* duen eremua proposatu du.

Soziabilitate-zainduaren kontzeptuaren oinarria Loic Wacquant-en (2006) «Corps et âme» lan antropologikoan dago. Wacquant boxeoko-klub bat ikertu zuen eta auzoko gazte beltzak boxeora hurbiltzean klubean “babestutako soziabilitateaz” ematen zela adierazi zuen, kaleko biolentziatik kanpo geratzen den soziabilitateaz. Espazio horrek babesa eskaintzen du: «aísla de la calle y desempeña la función de escudo contra la inseguridad y las presiones de la vida cotidiana» (Wacquant, 2000: 30). Baina, horretaz gain, soziabilitate mota baten lanketa ere bada: «el gym es, además, una escuela de moralidad en el sentido que le da Durkheim, es decir, una máquina de fabricar un espíritu de disciplina, la vinculación al grupo y el respeto tanto por los demás como por uno mismo» (Wacquant, 2006: 30).

Wacquantentzat espazio horiek seguruak ez diren eta sozializazio instituzioak krisian dauden testuinguruetan harreman ordenatuak eta iraunkorrak eskaintzen dituzte. Hori horrela da erritual batzuen bidez aukera ematen delako solidaritateaz eta pertenezkoa sentimenduak aktibatzeke beharrezkoak diren lau elementuen bidez:

- a) Bi edo pertsona gehiago aurrez aurre elkartzen dira toki batean.
- b) Partehartzaileak nortzuk diren (eta nortzuk ez diren) transmititzen duten ‘hesimugatzaileak’ ageri dira.
- c) Partehartzaileek objektu batera bideratzen dute euren atenzioa eta amankomunaren objektu horren kontzientzia hartzen dute.
- d) Esperientzia emozional bera bizi dute.

Garbi dago guk aztertu ditugu klubaren testuinguru sozialak ez duela ezer ikusirik Wacquantek deskribatu zuen giroarekin, baina gure ustez egoera soziolinguistikoa kontutan hartuz gero, eredu baliagarria izan daiteke kirol-talde hauek (edo horietako batzuk) nerabeentzat eman dezaketena hobeto ulertzeke. Klubaren atalean, beraz, *hizkuntza-soziabilitate zaindua* nola ulertzen dugun zehatzago azalduko dugu.

## 7.2. KLUBA

Klubak dira egungo kirol-sistemaren antolaketa-oinarria. Kirolen artean ezberdintasunak topatzen baditugu ere, gure jendartean garrantzi handiena duten kirolekin kluba da funtsezko unitatea. Anjel Lertxundik ondorengo testu honetan iradoki duen moduan kirolean identitatearen ardatza zuzen-zuzenean klubekin lotuta agertzen da:

Mundua biribila da, futboleko baloia ere halaxe. Munduaren motorrak, kapitala, negozioa, jabetza; horiexek baloia jirarazten dutenak ere. Estatuetan banatua dago munduaren atlasa; klubetan, aldiz, futbolaren mapa, klubek gehienetan atxikimendu sentimental estuagoa lortzen dutelarik selekzio estatalek baino (Lertxundi, 2018)

Aipatu dugun bezala, kirola soziabilitate eta talde-identitate tresna garrantzitsua da. Soziabilitateaz gorago aritu gara eta aurrerago ere aipatuko dugu hizkuntzarekin lotutako azterketa eginez. Horren aurretik, ordea, klubak duen identitate gaitasuna aztertuko dugu aurtengo ikerketan jasotako datuen bidez.

### 7.2.1. Klubaren nortasun sinboloak

Gazteen diskurtsu eta bizipenetan klubaren identitatea ageri da. Arrigorriagako saski-baloi jokalariek, esaterako, kirol-elkarteen nortasuna oso presente zuten uneoro. Taldeko sinboloren bat zuen arroparen bat izan ohi zuten beti neskek, kamiseta ez bazen jertsea. Zaramagan ere gazte batzuk entrenamendutara klubaren izena duten kamiseta eta jertseekin joaten dira eta talde nortasunari buruz galdetzerakoan eskolara ere jertse hori eramaten zutela esan ziguten “Batzetan klasera batzuk goaz sudaderarekin” (Zaramaga, Gazte kirolaria)

Realaren kasua bereziagoa da. Klubak dituen baliabideak askoz handiagoak direnez entrenamenduetarako erabiltzen duten arropa guztia klubaren ekipamendua da (kamisetak, galtzak eta galtzerdiak) baita horiek eramateko motxilak ere. Oinetakoak dira jokalaria bakoitzak bere aukeraz ekartzen duen gauza bakarra eta, ondorioz, klubaren ikurrik ez duen elementu bat da.

Kirol klubaren sinboloak, nagusiki, taldeko koloreak eta armarrak dira. Sinbolo hauek hartzen duten garrantzia Paduran gertatutako ondorengo anekdotan ikus daiteke. Lehen saioan ateratako talde-argazkiarekin Julene Maia dinamizatzailleak poster bat egin zuen, baina nahastu egin zen eta saski-baloi taldearen armariaren ordean Arrigorriagako futbol taldearen armarrak jarri zuen. Bigarren saiora ekarri zuenean neskak segituan konturatu ziren akats horretaz eta beraien armarrak jartzeko eskatu zuten: beren identitatea nabarmendu nahi zuten futbol taldearekin distantzia mantenduz.

Ohikoa denez, talde-nortasuna askotan beste talde-nortasunen aurka eraikitzen da eta klubarekiko atxikipenarekin batera, beste taldeenganako kritikak eta beraiekiko laudorioak agertu dira jokalarien komentario, elkarrizketa informal eta dinamiketako ondorioetan. Zaramagan, adibidez, Gasteiz hirian dauden hiru pilota elkarleen artean *pikera* dagoela askotan agertu da. Behaketetan, gazteei askotan entzun diegu Gasteizko beste taldeen inguruan “gaizki” hizketan (broma tonuan askotan). Entrenatzaileen hitzetan:

Badago harremana, Gasteizekoen artean eta kanpokoekin... *osea*, badago harremana. Batzutan hobe, depende maila. Baina nabaritzen dugu, guztion artean zeozer, handiagoa egin beharrean, trabak ipintzen ditugula gure artean (Zaramaga. Entrenatzailea).

Tirabira horien beste adibide bat da gaztetxo kirolariek aipatutako anekdota hau:

Nire ustez, batzuetan, [beste klubaren izena]-ko batzuk eh... ba... ez direla jatorrak. Batzutan. Partidu bat eta gero gertatu zitzaidan. Ia-ia borrokatzen gara frontoiaren erdian porque zeuden guri kanporatzen frontoitik. Orduan ba ia-ia hasi ginen burrukan. Ta, hori da ez zaidana gustatzen Adibidez, joaten zara beste leku batzuetara, eta hasten zara jolasten eta ez dizute ezer esaten (Zaramaga. Gazte kirolaria).

Gasteizko pilota elkartearen artean pikea egoteak, seguru aski, lehia areagotzea eta, ondorioz, talde nortasunaren indartzea ekarriko du. Esan digutenaren arabera, behin pilota elkarte batean sartuta, normalean jendea ez da elkarteaz aldatzen.

Identitate kolektibo horrekiko atxikimenduak ez du, hala ere, derrigor klubaren ezagutza berezirik ekartzen. Arrigorriagan, adibidez, entrenatzaileari eginiko elkarrizketan, nahiz eta urteetako ibilbidea izan taldean, beraren historia, sorrera eta bestelako datuen ezagupen falta agerikoa zen.

### **7.2.2. Espazioaren garrantzia**

Soziolinguistika arloan egiten diren azterketetan ohikoa izaten da espazioari erreparatzea. Euskal Herrian lurralde, herri edo auzoaren arabera datu soziolinguistikoak jaso eta aztertzen dira ikerketa makro eta mikroen bidez. Hala ere, dimentsio espazialaren beste ikuspegi batetik begiratzea ez dago hain zabalduta: hizkuntza praktikak gertatzen diren espazio fisiko zehatz horren deskribapena eginez. Ikerketa honen helburua ez da esparru horretan murgiltzea, baina, kirol arloan espazioa duen garrantzia kontutan hartuta, klub bakoitzak kirol jarduerak garatzen duen espazioaren azterketa labur bat egitea interesgarria dela iruditu zaigu. Izan ere, kirolak hartzen duen espazio-publikoa oso handia da edozein herrian. Garai batean, herri txiki askotan frontoi erraldoiak eraiki ziren elizak zuen protagonismoari lehia eginez, eta gaur egun kiroldegiek eta bestelako kirol-guneek herri eta hiri gehienetan espazio handia hartzen dute, gero eta handiagoa, bertan gauzatzen diren harreman sozialek duten tamaina eta garrantziaren isla izanik.

Gure ikerketaren klubek erabiltzen dituzten instalazioen kudeaketan ezberdintasunak daudela aipatu behar dugu. Zaramaga Pilota Elkartek, izen bereko auzoko frontoia erabiltzen du. Gasteizko udal kirol instalazioen sareko ekipamendu bat da, kudeaketa, beraz publikoa da. Antzeko egoeran dago Padura Saskibalo Elkartea, Udal Kiroldegia erabiltzen baitu. Real Sociedad klubaren gazteen kirol-jardueretan erabiltzen diren instalazioak pribatuak dira. Klubak kudeatzen ditu Zubietan dauden futbol zelaiak eta gainontzeko instalazioak: igerilekua, gimnasioak, bulegoak, ikasgelak, osasun instalazioak...

Padurak eta Zaramagak erabiltzen dituzten instalazioen arteko antzekotasunak egon arren, ezberdintasunak ere topatu ditugu. Zaramaga Elkartek erabiltzen duen frontoia 1970.hamarkadaren erdialdean eraiki zen frontoi industrial bat da. Egun, kanpoan berari

itsatsita futbol zelai berri bat dago eta bere sarreraren parean parke bat. Hauetaz gain, XX. Mendearen erdialdean eraikitako adreiluzko etxe laranjek inguratzen dute:

Frontoiaren eraikin ondora hurbiltzean, kanpoko horman graffiti batzuk ditu marraztuta. Edozein lekutan aurkitu ditzakegun graffities gain, “Mil colorau! Mil colorau!” eta auzoaren izena daude idatzirik (eta marrazturik) honen kanpoko paretan. Gainera, Fernando Botero margolariaren pintura bereizgarrien antza duten gizontxo batzuk ere badaude graffiteatuta. Gizontxo hauek pilotariak dira eta palaz edota eskuz pilota eramaten dabiltza. Marrazki baten, adibidez, pilota eramateko jokalaria salto egin duela dirudi, eta ia lurrean dagoela pilota eramatea lortu duela. (Zaramaga. Behaketa)

Frontoia Zaramaga auzoko espazio garrantzitsua da eta bizitza soziala handiko tokia da, behaketa honetan ikus daitekeen bezala:

Entrenatu behar dutenak umeak izaten direnean, gurasoak bertan egoten dira eta honek giro oso etxetiarra ematen dio frontoiari. Adibidez, bi neska kontrakantxan jolasten ikusi ditut, ama ondoan dutela, seguru aski anai edo ahizpa batek entrenamendua duelako ordu horretan. Entrenamendua amaitu, bokadiloa eman eta eskolako lanak kontrakantxako bankuetan egiten duenik ere ikusi dut. Bestela, ohikoa ere bada entrenatzen ari diren umeen anai-arrebak kontrakantxan pilotan jolasten egotea entrenamenduaren orduan.

Hauetaz gain, aita eta aitona (emakumeak ez ditut ikusi) beraiei seme-alabekin (ilobekin) entrenamendua bukatu ostean kontrakantxan pilotan jolasten geratzen dira batzuetan, denbora batez. Baita ere laguntzen diete takoak kentzen entrenamendua bukatzerakoan, kasu batzuetan, entrenatzaileak ondoan dituztela. Ikusi daitekeen bezala, entrenamendu orduan kontrakantxa bizirik egoten da. Nik behatu dudana taldearen entrenamenduak 20:00etan hasten baldin badira, askotan gazteak 18:00tarako frontoian egoten dira. Bi ordu lehenago frontoian! Etortzearekin bat takoak jartzen dituzte eta ondoren kontrakantxara irteten dira jolastera. Ordu zehatz batzuetan, frontoiko kontrakantxa betea egoten da. Momentu honetan hurbileko giro berezi bat dagoela iruditu zitzaidan eta edozein herritako plaza batean zaudela dirudi (Zaramaga. Behaketa).

Itxuraz, Zaramagako frontoiaren izaerak bat egiten du Olatz Gonzalez antropologoak euskal pilotaren gainean egindako irakurketa antropologikoan aipatzen duenarekin. Gonzalezen ustez frontoia, leku publiko espezializatu bezala, XVIII. mendean sortzen da eta herriguneetan zentralitate sozial zein fisiko handia hartu zuen orduz geroztik. Honetaz gain, frontoiak eta komunitateak lotura estua dutela aldarrikatzen du ere, komunitatearen ikonoa dela esanaz (Gonzalez, 2005). Elkarriketatu ditugun gaztetxoek ere frontoia elkargune gisa ikusten dute:

Z4: Batzuetan lagunekin hemen gelditzen gara edo... eta jai egunetan-eta uzten digute sartzea eta entrenatzea entrenadorerik gabe eta orduan hemen gelditzen gara. (Zaramaga. Gazte kirolaria)

Padura Elkartea Udal Kiroldegian aritzen da. Bertan daude igerileku itxia, igerileku irekia, saskibaloia, kantxak, futbol 7ko zelaia, frontoia, frontenisa, atletismo pista, teniseko kantxa eta bestelako kirol instalakuntzak. Esan daiteke kiroldegia Arrigorriagako kirolaren erdigunea izateaz gain, herriaren erdigunean ere kokatua dagoela, kirol instalazio horiek Nerbioi ibaiaren ertzean zati luze bat hartzen baitituzte.

Dena den, kirol instalazioak herriaren erdigunean kokatuta egon arren ez dugu nabaritu Zaramagako frontoiak pilota elkartearen jarduerari ematen dion zentralitate soziala. Ziur

aski, kiroldegian kirol espezialitate ugari biltzen direlako. Saskibaloiak, nolabait, protagonismoa elkarbanatu behar du espazio berean jokatzeko diren bestelako kirol-espezialitateekin.

Real Sociedad futbol taldearen instalazioak bestelakoak dira. Herri edo hirigunetik at daude eta zaila da bertara oinez edo garraio publikoaren bidez iristea. Donostiako hirigunetik at dagoen auzo batean (Zubieta) kokatua egoteak Real Sociedad klubak duen “izaera bikoitzaren” sinbolo gisa ere uler daiteke: Donostiako taldea izateaz gain Gipuzkoa osoa ordezkatzen duen taldea ere bada. Bestalde, Zaramaga edo Paduraren kasuan ez bezala Realaren kirol-instalazio garrantzitsuena ez da Zubieta, *Anoeta Futbol Estadioa* da. Gizonezkoen lehen mailako taldeak bertan jokatzeko dituzten bi asteetan behin partida 15.000 eta 30.000 arteko zale bilduz. Gainontzeko taldeak, lehen mailako emakumeen taldea eta klubaren formazio taldeak, Zubietan jokatzeko dute.

Zubieta prestaketarako espazio gisa hartu daiteke. Bertan entrenatzen du gizonezkoen talde profesionala Anoetan edo beste taldeen zelaietan jokatzeko dituzten partidak prestatzeko. Realeko beste futbol talde guztiek ere Zubietan prestatzen dituzte bertan jokatzeko dituzten partidak. Esan daiteke, espazio honetako entrenamenduak eta partidak noizbait Anoetan arituko diren jokalariek prestatzera bideratuak daudela<sup>5</sup>. Prestaketa lan horri begira, eta aurretik aipatu den moduan, esan behar da instalazio txukunak eta ondo hornituak dituztela: gimnasioak, igerilekua, sendagileen gelak, bilerak eta ikastaroak egiteko gelak, zazpi futbol zelai...

### **7.2.3. Klubaren izaera soziala**

Ikusten ari garenez, beraz, espazioak garrantzia du eta klubaren izaera sozialean eragina du. Hortik abiatuta, iaz egin bezala, aurtengo ikerketan parte hartu duten taldeen izaera eta nortasun sozialen azterketa txiki bat egin dugu. Hiru taldek kirol federatuaren multzoan sartzen badira ere, bere artean ezberdintasunak baitaude.

Real Sociedad Fundazioan dauden taldeen jarduna oinarritzeko kirola eta harrobizko kirola izendapenez ulertzen den kiroltzat hartu behar da. Fundazioaren helburua “hautzaroan eta gaztaroan kirolaren praktika sustatzea eta hedatzea”<sup>6</sup> izanik ere, Zubietan aritzen diren taldeen eginkizun nagusia “etorkizuneko futbolari profesional posibleak prestatzeko lana” egitea da. Hau da, eliterako jokalariek prestatzen dituzte, harribitxi gutxi batzuek lortuz. Gainera, Realak egungo gizartearen prestigio handiena duen kirol espezialitatean aritzen da, eta talde profesionala mundu mailan erreferentzia handienetakoa duen Espainiako Gizoneen Liga Txapelketan jokatzeko du. Horrek guztiak eliteko taldea bihurtzen du, ikuskizun-kirolari begira dagoen kluba. Joan den urteko ikerketan hau horrela dela argi jaso genuen eta aurtengoan berretsi ahal izan dugu egin ditugun behaketa eta elkarriketen bidez.

---

<sup>5</sup> Salbuespen bat dago planteamendu horretan: emakumezkoen futbola. Neskak ez dira Anoetan aritzen. 2018ko maiatzaren partida bat jokatu zuten Bilboko Athleticen aurka hainbat zale hala eskatuta baina ez da ohikoa.

<sup>6</sup> Real Sociedad Fundazioaren web orritik: <https://fundazioa.realsociedad.eus>

Elkarrizketa guztietan argi azaldu den kontua izan da eta etengabe agertu da “errespetua” hitza; Gipuzkoako beste taldeek errespetu diotela esan dute. Ezaugarri positiboa dela aipatu dute, beste hainbat taldek ez dutena.

R2: Ba, hemen ya kalidade gehioko pertsonekin jolasten deula, entrenadorek ere gauza gehio erakusten digula

R1: Gero ere bada ekipo bat daukana ekipo lehenego mailan...horrek igual ba motibazioa eta...

R2: Errespetua

R1:...errespetua

R2: Adibidez, nere ekipoa, Oriokokin, pues adibidez, Real baten kontra egiten badue ba errespetu gehio bezela.

R3: Hoi da!

(Real Sociedad. Gazte kirolariak)

Padura klub “familiar” gisa izendatua izan da egin ditugun elkarrizketetan:

Nik beti esaten dut garelako familia bat bezala. Azkenean ezagutzen gara guztiak eta igual badakigu talde batek daukala partidu inportante bat edo horrela eta etortzen dira guztiak, txikitatik handienetara, batzen gara guztiak. (Padura. Entrenatzailea)

Klubaren inguruan galdetzerakoan agerian geratu da dituzten harremanak estuak direla eta norberak jokatzen duen taldetik haratago luzatzen dela. Nerabeek ere antzera hitz egin zuten:

*Elkarrizketatzailea: Eta kluba? Padura? Nola definituko zenukete?*

P1: Familia.

P2: Gara como familia super haundi bat eta...

P1: Adibidez partidu bat dagoenean zu bazatoz beti aurkituko dituzu Padurako batzuk gradetan eta ba nahiko giro ona dago, baina gu oraindik nahiko txikiak gara eta orduan ba nagusiak geratzen dira gehiago baina nahiko ondo.

*Elkarrizketatzailea: Eta zein esango zenukete dela Paduraren ezaugarri nagusia?*

P3: Familia.

(Padura. Gazte kirolariak)

Zaramaga Esku-pilota Taldea ere Padurako eredu “familiar” horretatik hurbil dagoela esan daiteke. Entrenamenduetan frontoian jokalarien guraso, anai-arrebak edota aiton-amonak egoten dira oso gertuko giroa sortuz: merienda han jaten dute, eskolako lanak bertan egiten dituzte, jolasean aritzen dira... Entrenatzaileak ere klubeko pilotariak dira eta klubaren zuzendaritza Zaramaga auzoko jokalarien gurasoen esku dago. Entrenatzaileei egindako elkarrizketa batean harreman familiar hau ikus daiteke:

*Elkarrizketatzailea: Eta dagoen giroa klubean, ze ezaugarri dauka zuen iritziz.*

Entrenatzailea 1: Familia bat

Entrenatzailea 2: Bai, orokorrean... azkenean, entrenatzaileok txikitatik ezagutzen gara

Entrenatzailea 1: Askok ikasi dugu...

Entrenatzailea 2: Batera edo jolastu dugu batera

Entrenatzailea 1:Txikitatik. Gu hazi gara frontoi berdinean jolasten...

Entrenatzailea 2: Bai, ta gero juntakoak eta... es que ezagutzen gara txikitatik. Que si honen aita, que si honen ama... (Zaramaga. Entrenatzaileak)



Baina, iaz aipatu genuen bezala, eredu familiar horretatik haratago Zaramaga “auzo-talde” gisa definitzea egokiagoa litzatekeela uste dugu. Batetik, auzokideek (komunitateak) sortu zuelako pilota elkarteak; bestetik, (ondoko parkea eta futbol zelaiarekin batera) auzoaren erdigunean kokatzen delako (zentralitate fisikoa du); azkenik, frontoiaren barruan dagoen giroa, esan bezala, edozein herritako plazetan aurkitu daitekeena delako. Azken honek, herriko plazetan bezala, komunitate izaera bat ematen die bertan biltzen direnei.

Klub hauen inguruan aritzen diren komunitateak izaera ezberdinak badituzte ere, guztietan agertzen diren lau pertsona-multzo nagusienak bereizi ditugu ikerketa guztian zehar: zuzendaritzako kideak, gurasoak, entrenatzaileak eta jokalarik gazteak. Multzoen artean banaketa ez da erabat argia, pertsona berak bi multzoetako partaideak izan baitaiteke: ama edo aita bat, adibidez, zuzendaritzako kidea izan daiteke edo entrenatzaileak, askotan, taldeko jokalariek ere badira. Orohar, elkarrizketatu ditugun gazteek ez dute juntaren berri handirik. Klubaren antolakuntzaren arduradunak direla ezagutzen dute baina lan horren berri ia beti entrenatzaileen bidez jasotzen dute. Hala jaso dugu Realean eta Paduran. Beharbada, Zaramagan gertuagotik ezagutzen dute arduradunen lana elkarrizketa honetan jasotzen den bezala:

*Elkarrizketatzailea: Klubeko arduradunekin, juntakoak eta horrela, baduzue harremana beraiekin?*

Z3: Bai, pixka bat

Z1: Bai

Z2: Gutxi

Z3: Ba... ni batzutan ostegunetan egoten direla Zaramagako txapelketa, eta beti egoten dira. bokadiloa ateratzen dizute. (Zaramaga. Gazte kirolariak)

Gurasoen inplikazio handiena ere Zaramagan topatu dugula esan daiteke. Hala ere, egindako ikerketan ez dugu horren inguruan gehiegi galdetu eta, hortaz, ondorio garbirik ezingo genuke atera.

Klubaren atal hau amaitzeko, jarraian, hizkuntzari erreparatuko diogu. Klub bakoitzak duen hizkuntza-plangintzaren inguruan azterketa labur bat egingo dugu, ondoren, *hizkuntza-soziabilitate zaindua* kontzeptuaren bidez kirol klub hauetan hizkuntza-praktika orokorraren markoa zein den azaltzen amaituz.

#### **7.2.4. Kluben hizkuntza plangintza**

Hizkuntza-plangintzari dagokionez, iazko azterketan hau idatzi genuen:

Ikerketan parte hartu duten kirol klubek ez dute hizkuntzarekin lotutako plangintza zehatzik garatu. Esan daiteke, talde guztietan euskara biziberritzearen aldeko jarrera (eta identifikazioa) dagoela eta horretarako hainbat tresna garatzen dituztela, baina orohar ez dago horri begirako kudeaketa planik. Kirol klub hauek euskara sustatzeko erabiltzen duten estrategia nagusia entrenatzaile euskaradunak hartzea da. (Klubetan eta federazioetan dauden arduradunek hizkuntza biziberritzearen alde duten jarrera gakoa izan daitekeela uste dugu. (2016-2017 txostenaren 14 eta 15. ondorioak)

Horren inguruan ohartarazi beharko genuke Zaramaga eta Real Sociedad taldeak bigarren urtez ‘D ereduko Kirola’ programan parte hartu dutela eta ekimenarekiko erabateko inplikazioa izan dutela. Klub hauek hizkuntza gaiarekiko interesa handia erakusten ari dira eta aurrera begira arlo horretan erreferentziazko klubak izan daitezkeela uste dugu.

Zaramaga Eskupilota Elkarteko zuzendaritza euskararen gaineko ardura bat erakusten dutela jaso ahal izan dugu. Klubaren ardatz bat da euskararen sustapena eta zuzendaritzako kide euskaradunek (zazpitik bik ez dute euskaraz hitz egiteko gaitasunik) euskara erabiltzeko saikera egiten dute. Gaztetxo batek hala adierazi zigun:

Junta, normalean, saiatzen da [euskaraz] hitz egiten; badaude bat edo bi ez dakitenak, baina bestela nik uste euskeraz... (Zaramaga. Gazte kirolariak).

Pilota federaziotik euskara sustatzen dute eta Zaramaga elkarteko juntak entrenatzaileei dena euskaraz egiteko esaten die (beti ere, errealtateko egoerara moldatuz). Ildo honetatik beraz, nahiko argi geratzen da pilota elkartearen eta baita pilota federazioaren aldetik euskararen aldeko hizkuntza-ideologia ageriko bat dagoela.

Real Sociedad Fundazioko arduradunak ere euskararen erabilerari begirako jarduerak egitearen alde agertu dira. Fundazioaren *Eginkizun soziala* arloa honela definitzen du:

Fundazioak jarduerak programatu eta horietan laguntzen du, gipuzkoar gizartean elkartasuna, gizarteratzea, genero-berdintasuna, euskara, ingurumenarekiko errespetua... bezalako balioak sustatzeko. Jarduera horien xedea da gure erkidegoak islatzen dituen balioekin bat datorren gizarte bat eraikitzeko beharrezkoa den inpaktu soziala eragitea<sup>7</sup>.

Oinarrietan, beraz, euskara sustatu beharreko balio gisa izendatzen dute. Esan dezakegu, gure ikerketan zehar hizkuntzarekiko ardura hori antzeman izan dugula.

Padura klubak aurre hartu du lehen aldiz ‘D ereduko Kirola’ programan eta jaso ahal izan dugunaren arabera euskararen alde egiten ari den apustua nabarmena da. Entrenatzailearekin egindako elkarriketan argi adierazi zigun 2017-2018 ikasturte hasieran aldaketa eman zela Arrigorriagako Udalaren bidez eta “Erein” eta “Baietz365!” Euskaltzaleen elkarteen bidez abian jarri den *Arrigorriaga Kirola Euskaraz* ekimenari

Guri eskatu ziguten, o sea herritik eskatu ziguten, bazeuden gurasoak eskatu zutela entrenatzaileak hasiera erabiltzen euskara eta orduan Paduran egin genituen bilerak eta horrela, eta pixkanaka-pixkanaka pues udatik kanpusean hasi ginela eta orain entrenamenduetan. Baina planifikazioa ez dakit... (Padura. Entrenatzailea)

*Arrigorriagan Kirola Euskaraz* egitasmoaren helburu nagusia da euskararen erabilera areagotzea haur eta nerabeen eskolaz kanpoko kirolean 2017-2020 epean. Padura Kluba da ekimen honetan gogotsuena murgildu den kluba eta, itxuraz, lehen emaitzak ikusten ari dira.

Laburbilduz, beraz, esan dezakegu aztertutako hiru klubek nolabaiteko euskararen sustapenaren aldeko hizkuntza-ideologian oinarritutako erabaki batzuk hartuak dituztela. Hau da, iaz jasotakoa berretsiz: hizkuntzarekin lotutako plangintza zehatzik garatu ez

---

<sup>7</sup> Real Sociedad Fundazioaren web orritik: <https://fundazioa.realsociedad.eus>

arren hiru klubetan euskara biziberritzearen aldeko jarrera (eta identifikazioa) dago eta horri begira hainbat tresna garatzen dituzte.

### 7.2.5. Hizkuntza-soziabilitate zaindua

Gorago aipatu dugu, ikerketan jasotakoaren arabera, aztertu ditugun taldeak *arnasguneen* ezaugarri batzuk dituzten arren, hizkuntza-oasi gisa hartzea okerra litzatekela. Horren ordez, *hizkuntza-soziabilitate zaindua* duen eremu gisa izendatzea proposatu dugu. Loic Wacquan-en planteamenduari jarraituz eta hizkuntza testuinguru sozialari erreparatuz esan genezake aztertu ditugun klubek “seguruak ez diren eta sozializazio instituzioak krisian dauden testuinguruetan harreman ordenatuak eta iraunkorrak eskaintzen dituzte espazioak” direla. Hau da, Gasteiz, Arrigorriaga edo Donostian kalean euskaraz aritzeko baldintza ‘seguru’ nahikorik ez da ematen eta, gainera, azken urteetan hizkuntza-plangintzen inguruan aritzen diren erakundeen artean nolabaiteko ezinegona nabari da euskara biziberritze prozesuak izan dituen moteltze zantzuak nabari direlako.

Ikerketan aztertu ditugun klubak *euskaraz aritzeko espazio zainduak* eskaintzen saiatzen dira. Aipatu dugun bezala, euskararen erabileraren aldeko hizkuntza-ideologia zehatz batetik abiatuta, horren aldeko nolabaiteko hizkuntza-plangintza bat aktibatzen saiatzen direlako. Kirol-erritualaren bidez solidaritatea eta pertenezia sentimenduak aktibatzen dira eta oinarri horietan euskara egoteak kirolari gazteen hizkuntza ohituretan eragina duelakoan gaude.

Padura eta Zaramaga klubak linguistikoki *espazio zaindu* gisa funtzionatzen dute. Kokatuak dauden testuinguruan eskolatik kanpo euskararen presentzia oso txikia da, baina klub horiek euskaraz aritzeko egiten ari diren apustua nabarmena da. Euskarazko sozializazioa garatzeko gune aproposa dira, euskaraz erlazionatu eta garatzeko aukera eskaintzen zaie kirolari gazteei.

Realeko egoera ezin da erabat parekatu. Batetik, lurralde handiago baten (Gipuzkoa) erreferentziazko taldea delako eta lurralde horretan egoera soziolinguistiko ezberdinak daudelako. Realeko gazte batzuk Gasteiz eta Arrigorriagarekin parekatu daitezkeen testuinguru linguistikoetan bizi dira eta, Realean hasi aurretik, herri eta auzo horietan egin dute kirola. Beste batzuk, ordea, euskararen presentzia oso nabarmena den testuinguruetan aritzen dira (gure ikerketan jasotakoaren arabera gure taldea erdia eta erdia izan zitekeen testuinguru batekoa eta bestekoa).

Hala ere, espazio zainduaren kontzeptua Realerako ere baliagarria zaigula uste dugu. Klubak azken urteetan euskararen sustapenerako aktibatzen ari den tresnak baimentzen dute euskarazko giro komunikatibo bat garatzea. Euskaraz eskolan bakarrik hitz egiten ohituta dauden gazteentzat, Gasteiz edo Arrigorriagako klubetako antzeko efektua du. Bestetik, eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko aukera handiago duten nerabeei eskolako - eta zenbait kasutan familiako- hizkuntza praktikei edota ohiturei eusteko aukera eskaintzen die. Era berean, gazte hauek espazio zaindu horren agente garrantzitsuak bihurtzen dira, beren hizkuntza-jardunaren bidez entrenatzailearen lanaren laguntzaileak izateaz gain, gainontzeko gazteen hizkuntza dinamizatzaile bihurtzen direlako.

*Hizkuntza-soziabilitate zainduaren planteamendua, nagusiki, entrenatzaileen bidez aktibatzen da. Zaramagan, adibidez, klubeko arduradunek entrenatzaileei hasieratik euskaraz hitz egin behar dutela adierazten zaie. Nolabait, entrenatzaileen esku geratzen da ‘zaintza’ lan hori. Paduran ere entrenatzaileen konpromisoa garrantzitsua da, hauek hartutako erabakiari esker eta denboran mantentzeari esker gazteek ere, hein handi batean behintzat, konpromiso hori bere egiten dute eta euskararekiko lotura estutu egiten dute. Baina ez dugu ahaztu behar entrenatzaileen aktibazio hori emateko klubak apustuak berebiziko garrantzia duela (Paduran entrenatzaileak adierazitakoa horren erakuslea da).*

Baina jokalarien gurasoen bidez ere zertxobait aktibatzen da. Alderdi hau sakonki ez badugu aztertu ere, zantzu batzuk topatu ditugu. Gasteizen, adibidez, gurasoen artean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania izan arren, euskara dakitenek edota zerbait dakitenek klubeko beste agenteekin erabiltzen saiatzen dira. Gurasoek badakite klubak euskaraz egiten duela lan eta horrek, beraien arteko euskararen praktika areagotzen du.

Funtsean, hizkuntza soziabilitate zainduak ez du inor derrigortzen euskara erabiltzera, baina espazio fisiko zein sozial horretan euskarari lehentasuna ematen zaiola aditzera ematen du eta horrek, beharbada, gurasoak animatu edota bultzatu ahal ditu euskara erabiltzera. Baina, hasieran esan dugun bezala, guzti honek ez digu irudikarazi behar frontoia (Arrigorriagako kiroldegia edo Zubieta) hizkuntza-bunker bezala, kanpoko eraginetatik aske dauden zerbait. Euskararen erabilera bultzatzen duten ezaugarri batzuk dauden arren (praktika komunitatea, euskara izatea elkarteko hizkuntza ardatza, aisialdian euskaraz hitz egiteko gune gutxi daudela), gaztelania ere maiz entzuten da kirol gune hauetan.

Kirol gune hauek euskara “zaintzen” duten espazioak dira eta euskara erabiltzeko (bere soziabilitaterako) egokiak diren harremanak sortzen ditu: hurbiltasuna, kooperazioa, laguntasuna, errespetua... Harreman hauek, kasu askotan, gaztelera edo erderaren alde egin dezakete, baina kasu honetan euskararen alde egingo lukete. Hizkuntza-soziabilitate hau ulertzeak, frontoi, pista edo zelaiko hizkuntza praktiken gaineko testuinguratze hobe bat emango digu, finean, harremanak (baita hizkuntza-harremanak ere) kirol-instalazio hauen mugak dituen zaintza-kapa baten barnean ematen direlako. Zaintza ezaugarri hauek, noski, ez dira hiru klub hauetan soilik ematen. Gasteizen jasotakoaren arabera, hiri horretako pilota elkarte nagusi guztiek euskaraz egiten dute lan edo ehuneko handi batean, behintzat, euskara erabiltzen dute. Arrigorriagan ere euskara biziberritzearen aldeko lana egiten hasi dira beste klub batzuk ere eta Gipuzkoan ere, Realaz gain, hizkuntza-soziabilitate zaindua ematen diren klubak topatu ditzakegu. Baina horrek ez du esan nahi kirol eta klub guztien egoera hori denik. Horren adierazgarri da Zaramagako bi pilotari gazte hauen hitzak:

*Elkarrizketatzailea: Eta orokorrean klubean, Gasteizen baino euskara gehiago hitz egiten dela esango zenukete? Arratsalde normal baten, gaur adibidez?*

Z1: Bai

Z2: Bai

Z1: Nire ustez... Gasteizetik zoaz ta gurozu entzun euskara, edo toki bat, bilatzeko euskara erabiltzen dana, joango nintzateke frontoi batera edo...

Z2: ... edo ikastola batera.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

### 7.3. TALDEA I: praktika-komunitateen azterketa

Klubaren garrantzia argituta, ikerketan parte hartu duten talde zehatzetara jo behar dugu, horiek izan baitira jasotako datuen iturri nagusia. Horretarako, haur eta nerabeen kirol-praktiken zehaztapen labur bat egin ondoren, aztertu ditugun hiru praktika-komunitatetan kokatuko gara hezkuntza-praktiken analisi zehatza murgiltzeko.

#### 7.3.1. Haur eta nerabeen kirol-praktikak

Iazko txostenean aipatzen genuen bezala, haur eta nerabeen kirol praktikak anitzak dira. Gaztetxoek kirol-jarduera fisikoak gune (kalean, eskolan, kiroldegian...) eta une (eskola orduetan, denbora librean, asteburuetan...) ezberdinetan garatzen dituzte. *D ereduko kirola* egitasmoan 10 eta 16 urte bitarteko nerabeek eskola orduetatik kanpo egiten duten kirol-praktikari erreparatzea erabaki zen. Adin tarte horretan, kirol praktika antolatuei dagokionez gure testuinguru geografiko eta instituzionala hiru multzo nabarmendu ditzakegu: gorputz hezkuntza, eskola-kirola eta kirol federatua (eta kirol eskolak).



2017-2018 ikasturtean aurreko urteko hautuari jarraitzea erabaki da eta hezkuntza formalarekin zuzenean lotuta ez dauden kirol-jarduerak ikertzea hobetsi da. Hau da, hirugarren multzoko -kirol federatua- gune batzuk ikertu ditugu, hiru kirol elkarterekin lana eginez: lurralde, kirol-mota, antolaketa eta historia ezberdina dituzten Real Sociedad, Zaramaga eta Padura klubak.

#### 7.3.2. Praktika-komunitatea

Aurtengo ikerketa planteatzerakoan, nerabeen euskarazko sozializaziora gerturatzeko asmoz, kirol arloan kokatutako praktika-komunitate zehatz batzuetara joko genuela adierazi genuen. Hiru izan dira praktika-komunitate horiek:

- Zaramaga Pilota Elkarteko 13 eta 15 urte bitarteko taldea (10 mutil eta 2 entrenatzaile)
- Padura Saskibalo Elkarteko infantil taldea, 11-13 urte bitartekoak (11 neska eta 2 entrenatzaile)
- Real Sociedad Futbol Taldeko infantil-txiki taldea, 12-13 urte bitartekoak (17 mutil eta bi entrenatzaile)

Praktika-komunitatea kontzeptua, beraz, oinarritzkoa da gure azterketa garatzeko. Penelope Eckert-en definizioa erabiliko dugu praktika-komunitatea izendatzeko:

A community of practice is a collection of people who engage on an ongoing basis in some common endeavor (Eckert, 2006:683).

[Praktika-komunitatea modu jarraian ahalegin komun batean parte hartzen duen pertsona multzo bat da]

Praktika-komunitate bat, jarduera konpartitu bat egiten duen talde soziala da: helburu jakin batek ezartzen duen praktika baten bidez elkartzen den jende multzo bat. Kontzeptu honen erdigunean, beraz, praktikaren kontzeptua agertzen zaigu.

Angélica María Ávilak (1999) dio praktika komunitate batek hiru dimentsio eduki behar dituela: lehena, elkarrenganako konprometzua (izango litzateke denboran mantentzen dena, alegia, egun edo ekitaldi bati bakarrik lotuta ez dagoena); bigarrena, eginkizun negoziatua dela bera eta, hirugarrenik, errepertorio partekatu bat behar duela.

Aipatu dugun bezala gure ikerketan parte hartu duten hiru talderen kideek praktika-komunitate bana osatzen dute. Talde horietako bakoitzak jarduera bana konpartitzen du: esku-pilota, saskibaloia edo futbola. Paula Kasaresek dio jarduera-komunitatea ez dute kideek bakarrik definitzen, ez eta jarduerak bakarrik ere, biak lotzen dituzten harreman kontzeptuek baizik. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekitzat ikustea da:

Jarduera komunitatearen ereduak edozein taldetan aniztasuna dagoela aurreikusten du eta komunitate batean baino gehiagotan (sarritan gainjarrita egonda) parte hartzeko eredu dinamiko eta aldakorak onartzen ditu (Kasares, 2014:54).

Gure azterketarekin hasteko, batetik, kideei (nerabe kirolariak) erreparatu diegu eta, bestetik, praktikeei (kirol praktika zehatzei). Bien artean entrenatzaileak eta kultura materiala kokatu ditugu: entrenatzaileak komunitatearen partaideak diren arren estatus berezia dutela uste baitugu eta kirol jardueran erabiltzen diren tresnek ere praktikan eragin handia dutelako. Lau elementu horien (kirolari-gazteak, praktikak, entrenatzaileak eta materiala) azterketa egin ondoren, azterketa bateratua egiteari ekin diogu sozializazio kontzeptuaren bidez, bi mailatako analisia garatuz: (1) Kirolari bilakatzen eta (2) Hitzun bilakatzen.



### 7.3.3. Kirolariak

#### a. Nolako nerabeak?

Aipatutako praktika-komunitate horietako bakoitza nerabe kirolariez osatuta daude. Nerabe eta kirolariak. Ikerketan parte hartu duten gazteak 11 eta 16 urte bitartekoak dira eta aurretik egindako beste ikerketetako ezaugarri antzekoak dituztela jaso dugu. Jarraian, beraz, 2016an “Gu gazteok” ikerketan 12-14 urteko nerabeek gaztetasuna nola ezaugarritu zuten laburtuko dugu gure gazte kirolariak kokatu ahal izateko:

- Gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotzen dute: politikak, modernoak, adiskideak, umoretsuak, irribarretsuak, kirolariak... Edertasuna gaztetasunaren ezaugarri nabarmen gisa agertzen da eta gorputzaren garrantzia agerikoa da: kirola, argazkiak, itxura fisikoa... Sexualitateari ere maiz egiten diote erreferentzia.
- Jarduerak aipatzerakoan gazteen identitatea kirola eta festarekin oso lotuta agertzen da. Kirola modu generikoan aipatu da gazteen ezaugarri gisa. Kirola garrantzi handiko esparrua da. Zalantzarik gabe, eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena da, bai praktikan, bai gazteen zaletasun aldetik ere. Kultura jardueren presentzia, ordea, apalagoa da.
- Pareen taldeari, adinkideei, garrantzia handia ematen diote. Taldeak gazteen identitatearen autopertzepzioan eragin handia du.

Ikerketa hartan, beraz, kirola garrantzi handiko esparrua dela jaso zen eta hori da, hain zuzen, *D ereduko kirola* egitasmoaren 2017-2018ko erdigunean dauden subjektuak definitzen duen bigarren ezaugarria: kirolariak izatea. Zalantzarik gabe, nerabezaroan kirola da eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena, bai praktikan, bai gazteen zaletasun aldetik ere. Adin honetako gazte gehienek kirol praktikaren bat egiten dute eta futbola da presentzia handiena duen kirola. Kirol praktikan mutil eta nesken artean joera ezberdinak daude. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez da hain orokorra eta aniztasun handiago dago. Mutilei dagokionez, ia guztiek futbola praktikatzeko dute eta batzuk, horretaz gain, beste kirolen bat ere egiten dute. Mutilek garrantzi handia ematen diote futbolari eta euren bizitzaren erdigunea da: entrenatzeaz eta partidak jokatzeko gain, futbol profesionala jarraitzen dute, mugikorretan partiden emaitzak jasotzen dituzte, aisialdi (aske edo ez-antolatu) tartetan baloiarekin aritzen dira eta mutil arteko hizketaldien gai nagusia futbola da (Gu Gazteok, 2016)

Aztertutako hiru talderen nerabeek aipatu dugun “Gu Gazteok” ikerketan ateratako ezaugarriekin bat egiten dute. Padurako neskek, adibidez, saskibaloia inguruan ematen dute beraien denbora librearen gehiengoa baina beste kirol praktikekiko zaletasuna ere aipatu digute:

P4: Nik bueno, nahi dudanean, batzutan joaten naiz e... hori e... a nadar, joe! igeri egitera! Beste batzuetan ba pixkat korrika, joaten naiz bizikletaz... Igual Pagasarri-eta, eta bai kirol asko egiten dut, generalen. Ez dut bakarrik saskibaloia... bueno! saskibaloira joaten naiz, baina joaten naiz astearte eta asteazkenetan, baina beste kirol batzuetara ez noa *a unos días exactos, cuando pueda*.

P5: *Es que* azkenean, txikitatik egin ditut kirol asko eta azkenean bai egin dut bat en plan *extra escolar*. Baina nik egin dut surfa, eskalatu, eskiatu, o sea kirol asko egin ditut. Eta ere bai ingelesa, eta orain nire etxean hasi naiz ikasten gitarra jotzen, hasiko naiz ikasten baina

ez naiz joango akademia batera, ze eskaintzen dute ordu batzuk eta nik ordu hauek ez ditut; o sea behar ditut ikasteko. Denbora dudanean bai gitarra jotzen dut, baina oso gutxi, lau akorde dakit bakarrik.

(Padura. Gazte kirolariak)

Kirolaz gain lagunekin egoten diren gazteak dira eta ia denak ingeleseko klaseetara joaten dira ikastetxetik kanpo, baina neska bakarrak aipatu digu artearekin lotutako eskolaz-kanpoko jarduera egiten duenik (txistua jotzen du). Beste bi taldetako mutilak ere antzera mintzo ziren. Realeko gaztetxoei futbola da gehien interesatzen zaien jarduera eta asialdi tartetean futbolean aritzen dira (lagunekin jolasten eta partidak telebistan edo zuzenean ikusten). Gorago aipatu den bezala, Zaramagakoak frontoian elkartzeteko ohitura dute baina tarteka futbolean ere aritzen direla jaso dugu. Asteburuetan lagunekin ateratzen direla kontatu digute eta mutilen artean bideo-jokoekin jolastea nahiko zabaldua dago, nahiz eta denak ez dira horretan aritzen. Eskolaz kanpoko arlo artistikoarekin zerikusia duen jarduerarik ia inork ez du egiten.

Mugikorraren erabilera erabat hedatuta dago nerabe hauen aisialdian eta oro-har esan daiteke aurrez-aurre dituzten hizkuntza-praktikak errepikatzen direla tresna teknologiko hauen bidezko elkarriketetan. Baina harreta eman digun kontu bat eskolaz kanpoko ingeles ikasketen zabalkundearena da. Elkarriketatu ditugun ia gazte guztiek aipatu digute, kirolarekin batera eskolaz kanpo egiten duen jarduera ingeles eskoletara joatea dela.

## **b. Talde kirolariak**

Azken urteetan nerabeekin egiten ari garen ikerketa ezberdinetan kirolak duen garrantzia agerian geratzen ari da eta *D ereduko kirola* ikerketan parte hartu duten gazteek zergatik diren kirolariak esploratzea interesgarria iruditu zaigu. Hasteko, azpimarratu beharko genuke orohar elkarriketatu ditugun gazteek adierazi digutela talde hauetan parte hartzeko gogoia. Hau da, praktika-komunitate horien partaide izatea gogoz bizi dute. Beraientzako beharrezko ezaugarri garrantzitsuenetako bat da gogoia eta kirolarekiko nahia erakustea. Hona hemen, adibidez, Gasteizko gazte baten deskribatzen zuena:

Z6: Nik entrenamendutan deskonektatzen dut, nago eskupilotara.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Arrigorriagan adibidez, Padura taldean parte hartzea neskek beraiek erabaki omen zuten. Hainbat kirol eta lagunarteko esperientziaren ondorioz sartu ziren taldean beraiek elkarriketetan aitortu bezala. Zaramagan ere antzeko lekukotzak jaso ditugu. Hau, garrantzitsua da talde batekiko atxikimendua garatzeko orduan. Zuk zerorrek aukeratzen baduzu nonbaitera joatea beste inork derrigortu gabe, errazagoa izaten da bertako parte sentitzea, taldearen parte sentitzea.

Realeko kasua ezberdina da. Futbolean aritzen diren gaztetxo guztiek bertan jokatu nahi dute arren, norberak ezin du aukeratu: Realak hautatu behar zaitu. Horrek gehiago areagotzen du gazte hauen praktika-komunitate zehatz honekiko atxikimendua.



Hautatuak izan zirela jakin zuten momentua gogoratzeko eskatu diegunean honelako gauzak deskribatu dituzte: barrea, poza, ametsa betetzea, emozioa...

P17: Ni ohetik jaiki nintzen ta orduan nire gurasoei abisatu zieten ta ni oso emozionatua nengon!  
(Reala. Gazte kirolaria)

Bestalde, gazteen lekukotzetan taldean aritzearen garrantzia asko agertu da. Paduran, esaterako, agertu da, beste kirol praktika batzuk izan dituztela gaztetxoagoak zirenean (taekwondo, igeriketa, gimnasia erritmikoa eta abar) eta ondoren saskibaloira apuntatu zirela talde baten beharra sumatu zutelako:

P5: [Gimnasia erritmikoari buruz hizketan] Andereñoak beti hartzen zuen *el grupo favorito y la favorita* eta azkenean *los demas pues mira que hagan lo que quieran*. Eta indibidualen artean jartzen zuen *el favorito* eta taldeen artean *el favorito*.

P4: Egiten zioten ba *favoritoari* nahi zuen guztia; *o sea* zen pixka bat joe...

P5: Eta bestea zen: “*que ensayen y ya haran lo que sea y luego si hacen mal nos enfadamos con ella*”.

P6: *Ya*, niri gertatu zitzaidan taekwondon berdina, beti gertatzen zen hoberena hartzen zutela eta besteak ba egitea *lo mas simple* eta ni ba aspertu nintzen, eta joan nintzen saskibaloira eta uste dut hobeto nagoela, barre egiten dugu eta taekwondon oso serioak ziren.

(Padura. Gazte kirolariak)

Esku-pilota banaka edo binaka egiten den kirola da. Hala ere, Zaramagako gazte gehienek taldea azpimarratu dute kirol-praktika hau zergatik egiten duten galdetzerakoan. Hona adibide bat:

*Elkarrizketatzailea: Zer da gehien gustatzen zaizuen pilotatik*

Z7: Ba ni harremana izatea eta kirola praktikatu

Z6: Ah, hori ere, kirola praktikatzea eta, harremana...

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Azken finean jokoa bera banakakoa edo binakakoa izan arren, pilotan taldean aritzen dira: entrenamenduetan taldean egiten dituzte ariketa guztiak eta partidetara ere taldearekin joaten dira beste pilota taldeen aurka jokatzera. Pilota taldean praktikatzea nolabaiteko elkargunea eskaintzen die:

Z5: Ba entrenatzen gauden guztiok, batzen gaitu, elkartzen gaitu ideia berarekin. Gu etortzen gara hona, jolastera pilotara gustatzen zaigulako, eta... eta.. hori.  
(Zaramaga. Gazte kirolaria)

#### 7.3.4. Entrenatzaileak

Aipatu dugun moduan, gazte kirolarien eta kirol-praktika zehatzen artean bitartekari eta dinamizatzaile lana betetzen duen figura garrantzitsua dago: entrenatzaileak. Praktika-komunitatearen partaideak dira baina estatus berezia dute. Kapital sinbolikoa<sup>8</sup> duten

---

<sup>8</sup> Kapitala Bourdieuk proposamenaren arabera erabiltzen dugu: “el capital es trabajo acumulado, bien en forma de materia, bien en forma interiorizada o incorporada” (Bourdieu, 2000:148)

pertsonak dira entrenatzaileak: urte asko daramatzatelako kirol munduan eta bertako kapital korporal, kultural eta sozialak kontrolatzen dituztelako.

Guk azertu ditugun taldeetako entrenatzaileek jokalariekin duten harremana oso ona dela jaso ahal izan dugu. Hona Realeko entrenamendu baten adibidea, entrenamenduaren ostean ospakizun txiki bat dute aldagelan eta entrenamendu lan giro serioan aritu ondoren entrenatzaileak txantxa aktibatzen du:

Aldageletan sartu naiz. Hor daude gazte guztiak, dutxatu berri, bankuetan eserita. Aldagela txikia dela iruditu zait. Bi patata tortilla handi daude eta entrenatzaile bat plastikozko edalontziak banatzen hasi da. Giro atsegina dago baina denak txintxo daude eserita, aldamenekoekin hitz egiten daude. Gaztelania gehiago entzuten da. Nabari dago egoera informalagoetan gaztelaniarekiko joera handiago dutela. Entrenatzaile batek edaria banatu du eta besteak ogiak hartuta zer egin behar duten azaldu die oso tonu ironikoan: “Ogia moztu eta gero tortilla zati bana hartu. [Gazte baten izena] gaur nik egingo dizut bokata zuk ikasteko nola egin behar den, baina hurrengoetan zuek egin behar duzue”. Hori esan eta gero, pausoz-pauso bokata txikiak nola egin behar duten azaldu die, gazte bati begiratu dio ikasi ote duen esanez eta bokata luzatu dio, segituan eskua kendu du atzera eta barrez esan dio: “Oso ondo. Hau niretzat da. Orain zurea egin ezazu!” Denek barre egin dute eta konturatu naiz entrenatzailearen zirikatzaile papera “aktibatua” geratu dela. Entrenamendu zelaian oso serio aritu da baina entrenamendua amaituta giroa aldatzen da eta bera da txantxa giro horren sortzaile nagusia. Nolabait, egoera informalagoa den honetan entrenatzaileak ere dinamizatzaile papera hartzen duela iruditu zait. Gustukoa duen rola dela ikusten da, trebea da horretan, eta talde-dinamika egoki bat sortzeko oso lagungarria da. (Reala. Behaketa. 2017-11-08)

Hurbiltasun hau oso argi adierazi digute hiru taldetako gazte guztiek. Horri buruz galdera zehatza eginez (entrenatzaileekin zer moduz?) denen erantzun bera eman dute: ondo edo oso ondo. Adibide gisa Paduran jasotako hitz hauek:

*Elkarrizketazalea: Eta entrenatzaileak zemouz? zemouz entrenatzaileekin?*

Hirurak: Ondo, ondo, oso ondo

P3: nik uste dut *que mas que* entrenatzaile da *mas laguna se puede decir*.

(Padura. Gazte kirolariak)

Entrenatzailekiko sentitzen duten hurbiltasun horrek garrantzia hartzen du parez-pare jartzen dituelako. Horren adierazle gisa txantxa giroa da. Behaketetan zirikatze giroa jaso dugu eta elkarrizketetan ere gazteek harreman horren berri eman digute. Zaramagan jasotako pasadizo hau horren adibidea da:

“Gazteetako batek hau esan dio entrenatzaileari: “Si ya estoy medio lesionado!” eta entrenatzaileak hau erantzun: “Bai, burutik!” (Zaramaga. Behaketa. 2017/11/13).

Horrelakoak hiru taldetan jaso ditugu baina horrek ez du esan nahi hierarkiak erabat ezabatzen direnik, ardura eta boterea entrenatzaileek dute eta agindu eta azalpenak ematen dituzte. Haserreak ere ematen dira, baina jasotakoaren arabera gazteek ondo ‘kokatzen’ dituzte haserraldi hauek:

*Elkarrizketazalea: Gustora zaudete entrenatzaileekin...*

Hirurak: Bai

P9: Bueno, [entrenatzailearen izena] batzutan haserretzen da.

P8: Bai.

E: *Oso serio da [entrenatzailearen izena]?*

P9: Bai, bai. Nahi duenean.

(Reala. Gazte kirolariak)

Gaztetxoentzat entrenatzaileak erreferenteak dira. Gazteak, gutxienez, beraien modukoak izatera heldu behar dira, beraz, hurbileko erreferentzia zuzena dira. Honekin batera, jakintzaaren sozializazioan elementu zentralak dira entrenatzaileak. Beraiek dabilta lanean gazteekin zuzenean eta, erreferente diren heinean, oso rol garrantzitsua jokatzen dute. Gure ikerketan zehar jaso dugunaren arabera paper hori kirol-praktikan bi adierazle ditu: txantxa giroa eta disziplina. Praktika atala, beraz, hortik abiatuko dugu, jarraian, entrenamendu eta partiden azterketa zehatzagoa egiteko.

### 7.3.5. Praktikak

#### a. Praktiken giroa: disziplina eta txantxa

Entrenatzaileen atalean aurreratu dugun bezala, behatu ditugun entrenamenduetan antzeko giroa topatu dugu: disziplina eta formaltasuna nabari da, baina era berean, barrea eta ziria espazio handia hartzen dute (burla eta irainik gabeko txantxa giroa). Entrenamenduak disziplina momentuak dira, hierarkia argi batzuk daude eta gorputz-disziplinarako saioak dira. Gazte kirolariek aginduak bete behar dituzte eta hala egiten dute. Horrek ez du esan nahi, txantxarako tarterik ez dagoenik eta aztertutako talde guztietan gazteek beraien artean eta entrenatzaileei (edota entrenatzaileek gazteei) aritzen dira txantxetan. Hona hemen Zaramagan jasotako adibide bat:

“Ismael entrenatzaileak, adarra jotzen honakoa esan die: *“Sois una banda de reggaetoneros”*. Iñakik esan dio hori beraiei esatea iseka egitea dela (txantxetan) eta Liherrak zerbait esan ostean, Iñakik honakoa esan dio Liherrari: *“Tu calla que escuchas TRAP”* (Zaramaga. Behaketa. 2011/7/11/27)

Egia esan, bromak izaera zentrala dute entrenamendutan. Umore mota desberdinak ikusi ahal izan ditugu eta asko harritu gaitu umoreak talde hauen giroan daukan garrantzia. Padurako neska batek hala deskribatu zuen giro hori:

P6 Azkenean gu beti hasten gara barrezka azkenean, bestuarion bromak egiten.

(Padura. Gazte kirolaria)

Realeko jokalaria guztiek txantxa broma giro hau azpimarratu dute entrenatzaileei buruz galdetu diegunean, bi adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

*Elkarrizketatzailea: Entrenatzaileekin zer giro duzue?*

R9: Joe! (barreak)

*Elkarrizketatzailea: Zer Jon?*

R9: Ondo, ondo. Batzuetan hola broma asko eta...

R7: Ya

R9: ... batzuk urduri jartzen dira eta... Entrenatzaileak adibidez esaten dute neska-lagunak dituztela.

*Elkarrizketatzailea: Txantxetan ibiltzen dira horretan?*

R8 eta R9: Bai

*Elkarrizketatzailea: Eta urdurik jartzen zerate?*

R9: Batzuk. Beste batzuei ez zaie inporta.

(barre urduriak)

(Reala. Gazte kirolaria)

*Elkarrizketatzailea: Baina giro ona dezue. Zuen artean eta?*

R12: Bai, bai. Danekin ondo.

*Elkarrizketatzailea: Ta entrenatzailekin eta...*

R12: Baitta.

(barreak)

*Elkarrizketatzailea: Zergatik iten dezue parra?*

R10: Beti bromak egiten dituztelako.

R12: Ja, ja, ja...

(Reala. Gazte kirolaria)

Giro erlaxatu horrekin batera disziplina eta seriotasuna ageri zaigu. Orokorrean baterako eta besterako tarteak ondo definituta daude eta argi dago noiz den gauza baterako unea eta noiz beste baterako:

*Elkarrizketatzailea: Eta nolako giroa dezue taldean?*

R11: Ona

R10: Oso ona

R12: Oso ondo

(irribarrez)

R11: Barre in behar donean, barre iten dou, baina geo...

R12: Serixo. Partidotan serixo.

R11:...hoi da.

(Reala. Gazte kirolaria)

Tarteka, haserrerako tarteak ere ageri dira. Zaramagan, adibidez:

Z6: Batzutan ona beste batzutan... Ba zeren... e... daude batzuk, handienak... ba esaten dute eginbeharreko gauzak. Eta orduan ba pilotan aritzen garenak gustora ba pixkat txarto sentitzen gara, zeren handienak nahi duena egin behar dugu.

(Gasteiz. Gazte kirolaria)

Edo beste honek deskribatzen duen deserosotasun egoera:

Z7: Daude bi, ez ditut esango izenak, *que daude pikatzen entre ellos...* Esaten dute “*Pero mira donde saca!*”, “*Es que no puedo mas!*” (Gasteiz. Gazte kirolaria)

Paduran jasotako hau ere haserre egoera puntual bat azaltzen du:

P4 : ni bai haserretu naiz batzuetan. Ze partiduetan ez dut ematen *todo lo que puedo* eta haserretzen naiz, *pero* batzuetan txarto egiten dut, ze *me enfado con todo el mundo* eta hori bai ez dut egin behar, baina... Bueno niri eta jende pilo bateri gertatzen zaio, baina egiten duguna txarto da, *que te sale mal cualquier cosa* eta ni, adibidez, haserretzen naiz. Eta yo

*que se a cualquier persona* esan al diot edozer. Eta *le sienta mal* baina gero joaten naiz berarengana eta esaten diot, azaltzen diot gertatu dena “Jo, barkatu izan dut egun txarra edo partidu txarra eta” (Padura. Gazte kirolaria)

Baina gure behaketetan eta elkarriketetan askoz nabariagoak izan dira errespetuzko harremanenak. Orohar, jaso dugunaren arabera esan daiteke talde hauetan oso giro ona dutela, eta horrek hitz egiteko garaian erosotasuna dakarrela. Hala diote Gasteizko mutil hauek:

Z2: Hitz egiten dugunean, ba gaude eroso bata bestearekin.

Z3: Bai, beti etortzen gara lehenago ta zerbaitegatik izango da!

(Gasteiz. Gazte kirolaria)

## **b. Praktiken antolaketa: entrenamendu formalak eta informalak**

Praktika-komunitate hauen harremanak eta horien bidez sortzen den giroa nolakoak diren esploratu ondoren, entrenamenduen praktikak zehaztera pasako gara. Aurtengo ikerketan ez ditugu partida asko behatu eta gazteen elkarriketetan ere ez dira hauen aipamen gehiegi agertu. Beraz, praktiken atal hau, batez ere, entrenamendu saioei buruz jasotakoarekin amaituko dugu.

### ***Entrenamendu informalak***

Behin eta berriz aipatzen ari gara nerabezaroan kirolak hartzen duen garrantzia. Elkarriketetan gazteek kontatu dutenez kirol elkarteekin egiten dituzten entrenamenduez gain, asko aritzen dira euren kirolean: eskolako jolas-orduan, asteburuetan lagun artean, opor garaian... Hau oso nabarmen ageri da Realeko mutilen kontakizunetan. Asteburuetan, adibidez:

R5: Gu kalean futbolean ibiltzen gera

R6: bai, ta kantxan ondoan Dian txutxek erosten...

R4: Ni larunbaten lehengusinarekin zorionak ziren ta futbolean jokatu nuen han...

(Reala. Gazte kirolaria)

Baita eskolako jolas orduetan ere, baina horrek zenbaitetan arazoak sortzen ditu:

R12: Bai. Normalian gehixena futbolian ibiltzen da eta bestela saskibaloian.

R11: Edo pelotan.

R12: Guk patixon ez daukagu pelota ta ordun gehixen bat futbola ta gero saskibaloia.

R11: Ba gu alrebes. Gu gehixenetan pilotan. Futbola debekatu in dizkue o sea que...

R10: Guri futbola bakarrik plastikozko baloiekin. Txikiei ez emateko eta hola.

R12: Ta guri re futbola esaten deskue kontuz ze patixoko harrixa super gaizki dao.

*Elkarriketatzailea: Ta zuei zergatik debekatu dizuete?*

R11: Ze kriston fuerte ta hola botatzen beti, balonazok eta...

(barreak)

R11: Como brutos!

(Reala. Gazte kirolaria)

Zaramaga elkartearen kasua berezia da. Aipatu dugun bezala, frontoiak plaza itxura hartzen du; bertaratu eta guraso, gazte eta umez beterik egoten baita arratsaldeko momentu batzuetan. Gazteak beraien entrenamendua baino lehenago agertzen dira frontoian, bertan jolasten egoteko, beraien entrenamendua hasi bitartean. Momentu horri, *entrenamendu informal* gisa izendatu dugu. Gazteak heltzen direnean, frontoian beste talde bat ari dira entrenatzen eta, entrenatzen ari diren ume edota gazteen adinaren arabera hauen guraso eta aitona-amonak kontrakantxan egoten dira entrenamenduari begira, beraien artean hizketan edo bankuetan jarriarik lasai.

Gazteak, behin frontoira sartzean, aldageletara joaten dira zuzenean eta bertan, erritu antzeko bezala, takoak jartzen dituzte. Takoak nahiko azkar jartzeko kapazak dira; dena dela, lasai hartzen dute eta inguruan dagoen giroak baldintzatzen du beraien abiadura: beste gazteekin hizketan ari badira, aldatu behar badira, eta abar.

Behin takoak eta kirolerako arropa jarrita, kontrakantxara irteten dira eta jolasean hasi. Pilotarekin jolasteaz gain, orokorrean, harrapaketan jolasten dute. Normalean, entrenamendu saioa hurbiltzen denean eta gehienak daudenean egiten dute harrapaketan. Jolas honetan, eremua zehaztuta daukate eta kontrakantxan etxea zer den eta zer ez den ere arautu dute. Gurasoen artetik ibiltzen dira jolasean:

“Poliki-poliki, gazte gehiago etorri dira eta harrapaketan ibili dira jolasean frontoiko kontrakantxan zehar. Gazte bati galdetu diot ea zergatik egiten duten: berotuta egoteko, ondo pasatzeko... Bere erantzuna biak izan da: jolasten dira eta zortzietarako beroturik daude jada, pilotei emateko prest. Entrenatzaileak esan zidan beraiek ez ziotela esaten jolas hau egiteko, beraiek nahi zutelako egiten zutela. Harrapaketan jolasten ari zirela, gazteetariko bat lurrean belauniko jarri da eta harrapatzailea zenari, “Boludo! Eh toro! Eh torito!” bezalakoak esaten hasi da, pikatu nahian edo. Guraso gehiago ikusten ditut sarreran orain, “Cuidau, que estamos juango a pillla pillla” abisatzen dio gazte batek beste bati” (Zaramaga. Behaketa. 2017/11/13)

Pilotan nahi baldin badute jokatu, kontrakantxan ibiltzen dira baita ere, ingurukoei molestaturiko ez dien leku batean. Bestela, entrenatzen ari direnak frontoiaren zati bat libre uzten badute, bertara abiatzen dira jokatzeko. Jolasean lasai ibiltzen dira eta oso giro onean dabilta beti. Gustura dabilta. Entrenatzaileek ez diete kasu handirik egiten, beste talde batekin daudelako eta beraz frontoitik “libre” dabiltzala esan daiteke, zaindaririk gabe. Nahi dutelako eta ondo pasatzen dutelako joaten dira lehenago. Entrenamendu informal honek aurretik aipaturiko plaza izaera ematen dio frontoiari eta esan dezakegu, aurre-entrenamendu baten antzekoa dela beraientzat.

### ***Entrenamendu formal***

Entrenamendu formalak oso ondo zehaztutako denbora tarteak dira. Planifikazioa nabari da eta egin beharrekoak hainbat errutina eta errituen bidez errepikatzen dira. Zaramaga taldeko entrenatzaileen hitzetan:

Entrenatzaile 1: Ba azkenean, nire ustez, pilota entrenatzeko orduan ez daude gauza asko. Ze egiten duzu beti berdina: etortzen zara, berotzen duzu, berotzen duzu gorputza, gero eskuak pilotarekin eta, betiko gauzak, teknika apur bat, eta partidua. O sea ez dago...

Entrenatzaile 2: Da nahiko monotonoa. Daude... pues hori, teknika lantzerakoan daude...

Aingeru: Lau-bost jugada

Entrenatzaile 1:... ahal dituzula landu, ez egun berdinean: mozketak, sakeak, restoak...

Pilota... pilotakada batzuk atzera...

Entrenatzaile 2: Pixkat dejadak, teknika gehiago eskatzen dutela be bai eta depende adinakin, landu dezakezu edo ez. Ta gero partidua. Hori normalean egiten dana da... entrenamendu erdia partidurako.

(Zaramaga. Entrenatzaileak)

Ohikoa izaten da entrenamendu formalak bi zatitan banatzea (1) ariketa teknikoak eta (2) partidak. Ariketa teknikoen zatian gazteak frontoian, kantxan edo zelaian zehar sakabanatuta egoten dira. Zaramaga kasuan frontoi osoa hartzen dute, bakoitzak metro gutxi batzuk behar dituen arren. Konzentratuak egoten dira eta pilotaren hotsa entrenamenduaren momentu honetan entzuten dela gehien. Realean ere intentsitate handiko unea izaten da. Batez ere, baloien soinua eta entrenatzaileen agindu ozenak entzuten dira. Jokalari gazteek ere entrenamendua intentsitatea hitzarekin definitzen dute:

R10: Intentsitatea.

R12: Bai.

R11: Denbora gehixo.

R12: Intentsitate gehixo. Luzeo.

(Reala. Gazte kirolariak)

Antzera gertatzen da Arrigorriagako entrenamenduetan. Entrenatzaileek urte hasieran programazio bat prestatzen dute: zer eta nola landuko dute. Gero, astez aste, programazio horretako hainbat alderdi lantzen dituzte.

Alor teknikoa landu ondoren talde guztietan partidak egiten dira. Nolabait, kirol-praktika zehatzak entrenatzeko unea dela dirudi: txapelketetako partidetarako entsegu orokorra. Esan genezakeen kirolak antzezpenetik asko duela. Jokalari bakoitzak bere papera antzeztzen (jokatzen) du: bere tokia du, bere funtzioa du... Nahiko zehaztuta dagoen antzezpen bat jokatu behar dute (partida) eta entrenamenduak funtzioa prestatzeko entsegua da. Zuzendaria entrenatzailea da eta ikuslego baten aurrean jokatzen da. Dena den, partidari inprobisaziorako tarte handia dago beste “aktore” multzo bat ere eszenaratzen delako (kontrako taldea) eta gidoi orokorra (arauak) berdina bada ere, talde bakoitzak bere gidoi zehatza duelako.

Orohar, behatu ditugun entrenamenduetan, ariketak eta partidak jokatu bitartean nahiko giro serioa topatu dugu. Ez da giro txarra. Lan-giroa da eta intentsitatea handia egon ohi denez txantxarako tarte murrizten da, oso erritmo bizian ari direlako eta egiten ari diren horretan oso kontzentratuak daudelako. Dena den, hiru taldeen artean diferentziak topatu ditugu eta Realeko entrenamenduak askoz intentsoagoak direla nabaritu dugu. Arrigorriagan eta Zaramagan lana handia egiten badute ere, lasaitzeko une gehiago daude.

### 7.3.6. Materiala

Kirolari eta praktiken artean, entrenatzaileaz gain, badago beste elementu bat bitartekari gisa funtzionatzen duena: materialtasuna. Ikertu ditugun kirolean (kirol guztietan)

zenbait objektu garrantzi zentrala dute, eta nolabait praktika ezberdinak garatzen dira kirol bakoitzean objektu hauek direla-eta. Futbolean eta saskibaloian baloia, eta euskal pilotan pilota bera. Horiek dira objektu garrantzitsuenak, baina badira beste materialitate batzuk garrantzitsuak direnak. Euskal-pilotan, adibidez, eskuetan jartzen diren takoak eta futbolean oinetakoak (botak).

Realeko entrenamenduak, adibidez, baloiaren inguruan antolatzen dira. Baloiak dira etengabe erdigunean dauden objektuak eta baloiekin batera zuzen-zuzenean jokalarien gorputzen eta objektu hauen arteko bitartekariak diren botak<sup>9</sup> (eta atezainen kasuan baita eskularruak ere). Honi buruz zuzenean galdetu gabe hona horren adibide bat jokalaria gazteen ahotan:

(...)

R12: Ta baloiakin askoz lan gehixo.Hemen gehixena baloiakin.

*Elkarrizketatzailea: O sea korrika eta ez dezue egiten.*

R10: Bai

R12: Bai baina baloia erabilita

R11: Igual hasieran berotzeko piskat...

R12: Eta baloiakin be bai

R11: Ta igual geo zirkuitoak ta holan, baino baloiakin...

R12: baino baloiakin askoz hobeto da.

(Reala. Gazte kirolariak)

Esku-pilotan materialtasunaren garrantzia areagotzen dela esan genezakeen: piloten fabrikazioa artanalagoa denez ezberdintasun handiak daude piloten artean. Olatz Gonzalezek bere “Pelota II” (2015) filmean ondo erakusten du pilotek jokoan daukaten garrantzia. Pilota bakoitza bakarra dela esan daiteke eta asko baldintzatzen dute jokia. Gure ikerketan ere piloten inguruan zerbait gehiago ikasi ahal izan dugu; adibidez, entrenatzaile batek bi pilota erakutsi ondoren desberdintzeko pisua, larrua eta gogortasuna eduki behar direla kontutan esan zigun. Beste entrenamendu batean, entrenatzaile bera pilotei eskutako krema ematen ikusi genuen eta pilotak zaintzeko, beraien ezaugarriak ez galtzeko, eskutako krema ematen zaiela azaldu zigun. Entrenamenduetan piloten inguruan elementu asko daudela ikusi dugu: eman behar duten botearen tamaina zein izan behar den, berriak eta zaharren arteko aldea...

Kirol honetan ere pilota eta jokalarien gorputzen artean bitartekaritza egiten duen material garrantzitsua dago: takoa. Iaz ikusi genuen bezala, aurten ere baieztatu ahal izan dugu eskuetan jartzen den babes honek garrantzi handia hartzen duela. Entrenamendu guztietan denbora dezente eskaintzen zaio takoa jartzeari eta, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, kirolari bilakatzeko prozesuan takoak ondo jartzen ikastea berebiziko garrantzia du. Dena den, aitortu behar dugu aurtengo ikerketa honetan ezin izan dugula materialtasunaren gaiari behar bezala heldu. Azterketa sakonago eta lasaiago eskatuko luke horren inguruko lanketa bat egitea. Oraingoz, gaia mahai-gainean jartzearekin konformatu beharko dugu.

---

<sup>9</sup> Esanguratsua da, adibidez, Zubietan talde bakoitzak arropa aldatzeko eta dutxatzeko erabiltzen duen aldagelaz gain, botak jantzeko espazio bereizi bat dagoela. Jokalariak kanpoko zelaietara entrenatzera pasa aurretik egiten duten azken errutina gela horretan botak janztea da.



## 7.4. TALDEA II: Gazte kirolarien sozializazioa

### 7.4.1. Kirolari bilakatzen

Behin eta berriz ohartarazten ari gara kirolak duen garrantzia egungo gizartean, baita gazteen identitatean ere. Egungo gizartean kirolari izatea kapital sinbolikoaz (pertsonei atxikitutako gizarte balioa) eta kapital ekonomikoaz (dirua eta ondarea mugitzeko eta lortzeko gaitasuna) jabetzea dakar<sup>10</sup>. Argi dago, kirol espezialitate guztiek ez dutela gizarte prestigio bera, hortaz ez esku-pilotak edo futbolak ematen dizun kapitala ez dute garrantzi bera; ezta emakumezko kirolak edo gizonezko kirolak ematen dizuna ere. Elkarrizketetan adostasuna agertu dute guztiek: futbola da hemen eta orain prestigio handiena duen kirola. Realeko bi jokalariren hitzetan:

R1: Ba,i bai, futbola...bueno hemen European futbola ospetsuenetako da. Adibidez Estatu Batuetan futbol amerikano eta beste batzutan beste batzuk. Baina nire ustez hemen European futbola dagoela gehiago, *o sea* goitikan.

R2: Ta gainera Europako liga hontan esaten dute Messi ta Cristiano daudela ta ordun mundun zabaltzen da. Ta futbola famosoago egiten da.

(Reala. Gazte kirolariak)

Padurako gazteek argi dute esku-pilota ez duela futbola edo saskibaloia bezain besteko prestigioa:

Z4: Niri esaten zidaten zergatik apuntatzen nintzen kirol honetara, "*si da una mierda*" ta horrelako gauzak. Eta esaten dute ez duzula e... nola esaten da, *no sudas ni nada*, ta horrelako gauzak. Eta orduan baa ez dakit, baina nire institutoan bakarrik gaude bi eskupilota egiten dugunak, eta oso txarto ikusten digute. Bai, *o sea*, esaten digute *como que somos unos pardelas* eta horrelako gauzak.

*Elkarrizketaztailea: Eh?*

Z4: *Pardelas, o sea...*

Z5: Pringatu batzuk

Z4: Bai. Zeren kirol honetan ez da izerdirik egiten esaten dute, oso gauza gutxi egiten ditugula eta nola bera nola haiek ez duten kirol hau praktikatzen ba beste modu batean ikusten dute.

*Elkarrizketaztailea: Ta beraiek zein kirol praktikatzen dute?*

Z4: Futbol eta saskibaloia gehienek.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Kirol moten arteko prestigioan ezberdintasunak ematen diren arren, ezin da ukatu edozein dela praktikatzen duzun espezialitatea, kirolari bihurtzea gizartearen hierarkian posizioak hobetzeko baliagarria dela. Ikertu ditugun kirol-jarduerak kirolari bihurtzeko prozesuaren parte dira. Parte hartu duten klubek zeregin garrantzitsuenetako bat gazteak kirolari bilakatzea da. Jarraian, sozializazio prozesu horri erreparatuko diogu; kirolari bilakaera horri hurbilduz gazteen hitzun bilakaeran gako izan daitezkeen elementu batzuk atera ditzakegula uste baitugu.

---

<sup>10</sup> Kapitela Bourdieuk proposamenaren arabera erabiltzen dugu: "el capital es trabajo acumulado, bien en forma de materia, bien en forma interiorizada o incorporada" (Bourdieu, 2000:148)

Sozializazio prozesu horretan garrantzizkoak diren bi agente mota bereizi ditzakegu:

- 1) Ingurune hurbileko pertsonak: gure ikerketan jasotakoaren arabera kirol talde hauen esparruan entrenatzaileak dira agente garrantzitsuenak.
- 2) Gizartean erreferentzia diren pertsonak: kasu honetan kirolari prestigiodunak.

#### **7.4.2. Entrenatzaileen garrantzia**

Gazteen kirolari bilakatze prozesua den honetan, paper garrantzitsua jokatzen duen pertsona entrenatzailea da. Aurretik figura honek jokatzen duen paper garrantzitsuari buruz luze mintzatu gara, beraz, ez dugu askoz gehiago sakonduko gai horretan. Entrenatzaileak zenbait balore edo egiteko modu irakasten dizkie gazteei. Honetaz gain, bere lana bestelakoa dela ere agerikoa da, teknika eta jokatzeko baliagarriak diren tresnak eskaini behar dizkio taldeari. Padura taldeko entrenatzaileak aipatu zigun moduan urte hasieran programazio bat lantzen dute zer eta nola landu nahi duten jasotzen duena, gero astez aste gauza ezberdinak lantzen joateko. Hau da, planifikatutako prozesu bat da eta erritmo batzuk dituen: “Beroketa, gero entrenamendua landu nahi duguna eta lasaitasunera bueltatzea” (Padura. Entrenatzailea).

#### **7.4.3. Kirolari erreferenteak**

Gizartean erreferentziazkoak diren kirolarien ezaugarriak sozializazio prozesuan nolabaiteko garrantzia izango du. Gure ikerketan parte hartu duten gazteen erreferentziazko kirolariak nortzuk diren gerturatzeko lehen egunean ariketa bat egin genuen. Batetik, ondorio argi bat atera genuen: gazteen erreferentziazko kirolariak gizonezkoak dira. Hiru taldetako kopuruak batuta guztira 112 kirolari aipatu zituzten (izen batzuk errepikatu ziren), horietako 3 soilik ziren emakumezkoak: Mireia Belmonte, Carolina Rodriguez eta Irene Paredes.

Hiru izen hauek Padura elkartean agertu ziren, baina deigarria da nesken talde honetan agertu ziren izenak. Saskibaloia taldea izanik saskibaloiko erreferente asko izatea espero genuen baina hau ez zen horrela izan. Agertu ziren kirolarien gehiengoa (%41,17) futbolariak izan ziren eta atzetik saskibaloiko jokalariai gelditu ziren (%38,23). Hau futbolaren hegemoniaren beste adierazletako bat dela esan daiteke. Realean futbolari izenak nagusitu ziren ere (%75) baina ez zen gauza bera gertatu Zaramagan. Gasteizko taldean pilotariak izan ziren gehien aipatu ziren izenak (%71).

Erreferentziazko kirolarien profilak garrantzia izan dezake hizkuntzaren ikuspegitik. Gazteek aipatutako izenen artean %40 dira euskaraz dakiten hiztunak. Futbolarien artean gertuko izen asko aipatu zituztenez (Realeko eta Atleticeko jokalariai) eta Zaramagako gazteek pilotari izen asko zerrendatu zituztenez datua ez dela txarra uste dugu. Realean eta Arrigorriagan euskaradunak hirutik bat izan da aipatua, Zaramagan ordea 3tik bi.

#### 7.4.4. Gorputz-kapitala

Aipatu dugunez kirolari bilakatzea sozializazio prozesu baten bidez gertatzen da. Nolabait, kapital ezberdinen metaketa prozesu gisa uler genezake prozesu hori. Aztertu ditugun taldeetan bi kapital motari erreparatu diogu: kultur kapitalari eta gorputz kapitalari.

Kirol bakoitzak teknika korporal batzuk landu behar izatea ekartzen du: futboleko, oin, hanka eta baloiaren artekoa; saskibaloian baloi eta eskuena; pilotan berriz, eskua, gerria eta gorputzaren mugimenduarena, besteak beste. Entrenamenduak, batez ere, teknika korporalak hobetzeko tarteak dira. Entrenatzaileen jardun nagusia horri begira dago. Hitz gutxitan, gazteen kapital korporala hobetu, espezializatu eta landu nahian egoten dira. Funtsean, entrenamenduaren hasieran egiten dituzten ariketetan garatzen dute teknika eta orduan lantzen dituzte gehien bat gorputz-zuzenketak. Entrenatzaileek gazteei jokoaren gaineko jakintza ematen diete eta horren barruan kapital korporala nola garatu erakutsi.

Pilotan, esate baterako, gorputza erabiltzen jakiteak asko egiten duela eta pilota, kirol bezala, hasiera baten indarrarekin lotu daitekeen arren, teknikak izugarritzko pisua daukala jokoan. Adibidez, pilota askoz atzerago bota dezakegu indar gutxiago eduki arren. Gorputzez besteak baino txikiagoa den gazte batek, oso teknikoki jotzen dio pilotari eta bera baino “indartsuago” dauden batzuk baino atzerago botatzen duela pilota. Entrenatzaileek elkarrizketan, adibidez, koordinazioaren garrantzia aipatu ziguten: “Garrantzitsua da pilotarako gorputzaren koordinazio lantzea” (Zaramagako entrenatzailea). Gazte pilotariak ere indarraz gain teknikaren garrantziaz jabetzen dira:

*Elkarrizketatzailea: Ze ezaugarri behar dira pilotari ona izateko edo pilotan aritzeko?*

Z3: Entrenatzea

Z2: Gogoak jartzea gehienbat. Hasten zara oinarritzkoena harrapatzen, eta dena segidan... gero ya da... gero ta hobeto egitea.

*Elkarrizketatzailea: Eta egun, pilotari bati, zein ezaugarri eskatzen zaizkio ona izateko?*

Z2: Indarra izatea.

Z1: Indarra izatea.

Z2: Bizkorra izatea.

Z1: Teknika.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

#### 7.4.5. Kultur-kapitala

Baina kirolean gorputz-kapitalak zentraltasuna badu ere, kultur kapitalaren sozializazioak ere garrantzia du. Paduran, adibidez, gehiago ematen da ikaskuntza prozesu bat lehia baino gehiago. Ikasketa prozesu honetan, saskibaloiko teknika eta egiteak ez ezik hainbat balioen sendotzea ematen da. Bertan lantzen diren balore hauetako batzuk dira talde lana, galtzen jakitea, dena lehia ez dela ikastea, edota euskararen garrantziaz jabetzea eta badirudi gazteek hori jasotzen dutela. Talde horretako neska gazte batek, adibidez, kirolari bilakatzeko zer behar den galdetzerakoan azpimarratu zuena gogoak izan zen:

Z2: Gogoak, gogoak eta entrenatzera joaterakoan kaso egitea. Bueno, azken finean, nahi izatea eta nahi izatearekin ba hasten zara apurtxu bat entrenatzen hobeto ez? Eta ba hobeto nahi duzunez, gauzak onartzen, ez dakit.

(Padura. Gazte kirolaria)

Gazteek, beraz, ez dute entrenatzaileengandik soilik kapital korporala jasotzen, kirol espezialitatearen gaineko kapital kulturala ere jasotzen dute. Hona hemen pasarte adierazgarri batzuk:

“Kuriosoa iruditu zait entrenatzailea eta ni aurrean daudenak begira ari ginela, gazte batek esandakoaren ostean eratorri dena: tantoa beraiek egin dutela esateko edo tanto bat egin dutela esateko *“Nosotros tenemos el punto”* esan du; Entrenatzaileak hori entzun eta esan dio *“¿Qué punto?”*. Gazteak ez du hasieratik ulertu entrenatzaileak zergatik galdetu dion eta tantoa nola egin duten azaltzen hasi zaio. Entrenatzaileak orduan, “Tanto!” esan dio eta hasieran tanto zergatik esan dion ez duen ulertu arren gero konturatu da zer nahi zion esan. Jarri duen aurpegiarengatik, ez dirudi asko inporta zaionik entrenatzaileak egindako zuzenketa”

(Zaramaga. Behaketa. 2018/02/12)

“[Entrenatzaileek] aipatu didate taldean dauden 2-3 gaztek ez dakitela nor den Olaizola II.a. Ezin sinistu egon nintzen, baina hori esan didate: 2-3 gazte horiek telebistan pilotariak ez dituztela ikusten, jolastea gustatzen zaiela bakarrik”

(Zaramaga. Behaketa. 2017/11/13)

Bi pasarte hauek harturik kirol bakoitzaren inguruko kapital kulturala klub hauetan ere jasotzen dutela konturatu ginen eta lehen eguneko dinamikan kirolari erreferentziazkoak zerrendatzeko eskatzerakoan Zaramagako gaztetxoek hainbat pilotari profesional aipatu zituzten. Argi dago, hala ere, kirol espezialitateen artean ezberdintasun nabarmenak daudela: futbolari gazteek dozenaka jokalaria profesional gizonezkoen izenak esateko gai badira ere, Padurako neskek saskibaloï jokalaria gutxi ezagutzen dituzte. Aurretik aipatu den moduan, lehen eguneko dinamikan saskibaloï jokalariren izen oso gutxi agertu ziren.

Baina talde bakoitzaren barruan ere ezberdintasun nabarmenak daudela jaso dugu. Entrenatzaileek aipatu ziguten ume eta gazte batzuk familiatik daukatela pilotarako zaletasuna eta askok familian praktikatu delako hurbiltzen direla frontoira. Kasu hauetan, ume edo gazte hauek pilotarekiko kapital kulturala (eta soziala) landuago edukiko dute besteek baino. Hala ere, guk ikertutako taldean behintzat, ez dirudi honelako kasu adierazgarririk dagoenik: etxean kirola jarraitzen duenik badago, baina badirudi ez dela ohikoena. Adibidez, behaketa batean, modu informalean, aurreko igandean jokaturako pilota finalarengatik galdetu genien gazte batzuei eta batek bakarrik ikusi zuen telebistan. Inguruan zeuden beste bik finalistak, Altuna eta Urrutikoetxea, ez dituztela ezagutzen esan ziguten. Halaber, elkarrizketetan, gehienek beraien gustuko pilotariak nortzuk diren aipatu dizkigute baina pilota ikustea baino jokatzeari dutela gustukoago jaso dugu:

*Elkarrizketatzailea: Da nolako kirolariak gustatzen zaizkizue, nolako pilotariak*

Z7: *Es que niri pilota... ikustea ez zait gustatzen. Niri bakarrik kirola egitea*

Z6: Ba... nik ere berdin.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Z9: *Nik es que ez dut asko ikusten baina asko gustatzen zait Bengoetxea*

(Zaramaga. Gazte kirolaria)

#### 7.4.6. Hitzun bilakatzen

Kirolari gazteak gorputz-kapitala eta kultur-kapitala lortzen dute kirol taldeetan garatzen dituzten praktiken bidez, aurreko atalean ikusi dugun bezala, kirolari bilakatzen dira. Baina, alderdi soziolinguistikoari arreta begiratzuz gero, ikusi ahal izango dugu hizkuntza trukeak ez direla soilik mezu trukeak, elkarriketetan parte hartzen dutenen gizarte egitura guztiak presente daudelako: generoa, klasea, adina, norberaren kapital materiala eta abar. Hizkuntza komunikazio tresna besterik ez dela maiz adierazten bada ere, argi dago hizkuntza egitate konplexuagoa dela eta hizkuntzaren bidez botere sinbolikoa ezartzen dela. Gaitasun linguistikoa ez da soilik gaitasun teknikoa, estatus gaitasuna ere bada, eta, gainera, gaitasun teknikoa estatusaren menpe dago, nahiz eta ohikoa da alderantziz dela ulertzea: gaitasun teknikoak estatusa ematen duela. (Bourdieu, 1985:43). Ondorioz, hizkuntza-erabilerek merkatu bat osatzen dute, ondorioak baitituzte norberak lortu dezakeen kapital sinboliko eta kapital ekonomikoan<sup>11</sup>.

Hizkuntza, praktika-komunitatearen erdigunean dago. Praktika-komunitatearen baitako elkarrekintzan sortzen dira hizkuntza-praktika batzuk, talde horietan hizkuntza ez baita elementu aske eta isolatu bat: hizkuntzak jarduerarekin bat egiten du eta gizarte egiturarekin jartzen da harremanetan (Hernandez, 2008:35). Hizkuntza erabilera etengabeko ikasketa-prozesua denez, praktika-komunitateak garrantzi handia hartzen du:

The importance of the community of practice lies in the recognition that identity is not fixed, that convention does not pre-exist use, and that language use is a continual process of learning. The community of practice is a prime locus of this process of identity and linguistic construction (Eckert, 2006:685).

[Praktika-komunitatearen garrantzia honako hau da: identitatea ez dela finkoa, konbentzioa ez dela erabilera baino aurrekoagoa, eta hizkuntzaren erabilera ikasketa prozesu jarraia dela. Praktika-komunitatea identitate prozesu eta eraikuntza linguistiko horren gune garrantzitsuena da.]

Ikertu ditugun praktika-komunitateetan gazteen identitate prozesu eta eraikuntza linguistiko horien gune garrantzitsuak izan daitezkeela uste dugu. Jarraian, beraz, kirolari gazteak praktika-komunitate hauetan hitzun bilakatzeko prozesuan nola sozializatzen diren aztertuko dugu. Hau da, behaketetan eta elkarriketetan jaso ditugun hizkuntza-praktiketan murgilduko gara.

#### 7.4.7. Gazte hitzunak

2017-2018 ikasturtean egindako ikerketan 38 gaztek parte hartu dute. Guztiak Euskal Herrian bizi dira: Gipuzkoa (14), Bizkaia (11), Araba (12) eta Lapurdi (1). Testuinguru soziolinguistiko anitzetan hazi dira eta hori nabarmentzen da gazte hauen hizkuntza-gaitasuna eta egunerokotasunean dituzten hizkuntza-praktiketan. Jarraian, beraz, aurten

---

<sup>11</sup> Kapital sinbolikoa pertsonen atxikitutako gizarte balioarekin lotuta dago. Kapital ekonomikoa dirua eta ondarea mugitzeko eta lortzeko gaitasunarekin lotuta dago (Bourdieu, 1985:46).

ikerketan parte hartu duten kirolari gazte hauen hizkuntza profil orokorra erakusten saiatuko gara.

#### **a. Hizkuntza-gaitasuna**

Talde bakoitzean bostgarren egunean egindako dinamiken bidez<sup>12</sup> parte hartu duten kirolarien profilera hurbilketa bat egin genuen. Nolabait euren autopertzepzioa jaso genuen honako datu hauek jasoaz:

##### *Realean 13tik*

Euskaraz hobeto moldatzen dira 7

Berdin 4

Erdaraz hobeto 2

##### *Paduran 9tik*

Euskaraz hobeto moldatzen dira 0

Berdin 7

Erdaraz hobeto 2

##### *Zaramagan 8tik*

Euskaraz hobeto moldatzen dira 1

Berdin 7

Erdaraz hobeto 0

Ikus dezakegun moduan dinamika honetan parte hartu duten kirolari nerabe gehienak euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu moldatzen direla adierazten dute: 30tik 18. Hau da, gaztetxo gehienek bere burua erdi bidean kokatzen du. Oso gutxi dira (4 soilik) erdaraz hobeto moldatzen direla aipatzen dutenak. Euskaraz hobeto moldatzen diren ia guztiak Realekoak dira, salbuespen bakarra Zaramagako mutil bat da.

Datu hauek oso bat datoz behatu ditugun hizkuntza-praktikekin. Realean ikusi dugu talde erdiak euskaraz aritzeko erraztasuna handia duela euren herrietan, familietan, lagunartean edota eskolan hala egiten ohituta daudelako. Beste erdia aldiz euskaraz hitz egiteko arazorik ez badu ere, gaztelania asko erabiltzen ohituta dago. Zaramaga eta Padura taldetan gehiengoa ere halako profila du: gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute, nahiz eta egunerokotasunean gaztelaniaz gehiago hitz egin. Paduran, adibidez, hala zioten:

*Elkarriketatzailerak: Eta zuek nola moldatzen zarete hobeto? Euskaraz, gazteleraz? egoera guztietan berdin moldatzen zarete?*

P1: Nik uste dut bietara antzera baina dagoen mailarekin gazteleraz eta euskaraz nire euskarako maila altuagoa da gaztelaniakoa baino. Ze nik gaztelania daukat hiztegi gutxiago konparatuta nire adinekoekin.

P2: *Es que ni da todo lo contrario* eta gainera nik irakurtzen dut asko eta normalean izaten da gazteleraz orduan pues dut hiztegi oso handia.

---

<sup>12</sup> Egun horretako dinamikan ez ziren ikerketan parte hartu duten gazte guztiak egon.

P3: Nire euskera da *como o sea* irakurtzen dudanean euskaraz da *como que no entiendo*, ez dakit. Da errazago irakurtzea gaztelaniaz nire ustez.  
(Padura. Gazte kirolariak)

Orohar, beraz, ikerketan parte hartu duten gehienek hiztun berriak gisa kategorizatu ditzakegu, hau da, euskara eskolaren bidez jaso duten hiztunak (Ortega et al, 2016).

## **b. Egunerokotasuneko hizkuntza-praktikak**

Gazte hauen eguneroko hizkuntza-praktikak oso bat datoz aurreko atalean aipatu ditugun gaitasunekin. Zaramagan behaketa batean jasota geratu zen moduan:

“Gazteek, berriz, gaztelera hitz egiten dute; behatutako talde hau gainera klubeko erdaldunena izan daitekeela ere aipatu zidan [zuzendaritzako kidearen izena]. Gaztelera erabiltzen dute, baina oso hizkera informala, kalekoa dena guztiz. Niri, adibidez, euskaraz hitz egiten zidaten (ezezaguna naizelako, proiektua euskararekin lotzen dutelako) hala ere, nabari zen zailtasunak zituztela euskaraz hitz egiteko. Euskaraz hasi eta gaztelera amaitzen zituzten esaldiak, edo bestela trabatu ere egiten ziren. Beraien artean, badirudi, boterea eta prestigioa gaztelera informalak ematen diela: adierazkortasunaren faktorea ere kontutan eduki behar dudala uste dut”  
(Zaramaga. Behaketa. 2017/02/26)

Gasteiz eta Arrigorriagako nerabeen artean lagunartean gaztelaniaz aritzen direla jaso dugu:

Z2: Ba... normalean... nabaritzen da.. zeinek hitz egiten duen nabariago euskeraz, baina normalean, beti aritzen gara gaztelera.  
(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Dena den, salbuespen egoera gutxi batzuk ere aipatu dizkigute:

P1: Bueno, ni batzutan gelditzen naiz lagun batekin aparte, ze kuadrila osoa ez da geratu edo edozer gauza eta berarekin gehienetan izaten da...gehienetan egiten dut euskeraz. Mobiletik eta gero geratzen garenean. Baina lagun talde handiagoa bada gaztelaniaz.  
(Padura. Gazte kirolariak)

P4: Gehienetan gaztelera, baina egia da batzuetan lagun batzuk ditut euskararekin oso zorrotzak direnak eta beren bizitza osoan egin dutela euskeraz eta batzuetan be bai ba euskaraz erabiltzen dogu.

P5: Gu ba gehienetan gaztelera, *o sea* ba batzuetan pixkatxoetan hitz egiten dugu euskeraz.

P6: Ni *esque* lagun gehienekin gaztelaniaz baina daukat lagun bat eta berarekin hitz egiten du euskeraz eta ingelesez batzuetan.

(Padura. Gazte kirolariak)

Talde guztietan hizkuntza praktika hauei buruz galdetzerakoan ‘ohitura’ da gehien errepikatzen den arrazoia. Zaramagan, adibidez, gaztelaniaz hitz egiteko motiboa hala

formulatzen zuten: “Da hazi garena, *es con lo que hemos crecido*” (Zaramaga. Gazte kirolariak).

Realeko jokalarien artean egunerokotasunean euskaraz aritzen direnak topatu ditugu. Elkarrizketa honetan, adibidez, Orio eta Usurbilen bizi diren gaztetxoek euskaraz egiten dutela aipatzen zuten, Donostian bizi den hirugarrenak, ordea, gehien bat gaztelaniaz aritzen direla zioen:

R2: Guk euskera behintzak.

R3: Bai. Euskeraz. Euskeraz.

R1: Gu euskeraz ere bai, baino igual, batzutan, esaldi bat edo horrela ateratzen zaigu erderaz, erderaz, erderaz eta hasten gera erderaz.

(Reala. Gazte kirolariak)

Hainbatetan agerian geratu den bezala, ikerketa honetan ere euskararen erabilera eskolarekin oso lotuta dator, zehazki irakasleekin: “klasean, irakasleekin” (Zaramaga 1.elkarrizketa). Donostiako gazte batek ondo deskribatzen du oso zabalduta dagoen egoera:

R1: Bueno bai, atarian gaudenean gehienak hasten dira erderaz eta bat-batean iristen gera klasera, sartzen gera guztiak, irakaslea etortzen da eta up! Denak euskeraz!

(Reala. Gazte kirolariak)

Hain zuzen, duela lau urte baino euskara gehiago erabiltzen duten galdetu diegunean batzuk eskolan jarri dute fokoa. Zaramagan, adibidez, duela lau urte euskaraz gehiago egiten zutela adierazi digute Lehen Hezkuntzako ikastetxean euskararen presentzia handiagoa zelako institutuan baino. Erantzun askotan nerabezaroan gertatu ohi den euskaratik gaztelaniarako hizkuntza-mudantza agertu da, baina salbuespen interesgarri batzuk ere jaso ditugu. Paduran, esaterako, gazte batek Lehen Hezkuntzan jaso zuten saio batekin lotzen du orain euskaraz gehiago egitearena:

*Elkarrizketatzailea:* Zu gehiago. Orain euskara gehiago erabiltzen duzu lehen baino?

P4: Bai. Zeren orain dela bi urte, 5. mailan nengoenean, joan ziren maisu batzuk ta esan ziguten, egin ziguten, klase bat eta egin behar genuena izan zen saiatu euskara zabaltzen eta ta orduan ni orain saiatzen naiz euskeraz egiten.

(Padura. Gazte kirolariak)

Realean ere harritu egin gaitu gazte batzuk aipatu dutela gaur egun euskaraz gehiago egiten dutela. Aldaketa hau Realarekin lotu dute, aurreko urteetan aritzen ziren taldeetan gaztelania besterik ez baitzuten egiten:

R7: Gehio

R8: Bai, bai.

*Elkarrizketatzailea:* Zergatik?

R7: *Es que* igual hemen Errealean askoz gehiago hitz egiten da euskeraz eta jua zera pues piskat...nola esaten da *acostumbratu*?

*Elkarrizketatzailea:* Ohitu edo...

R7: Bai, ohitu eta ba ordun ya ateratzen zaizu euskeraz.



*Elkarrizketatzailea: zuek?*

R8: Berdin

R9: Bai.

R8: Futbol taldean euskeraz gehiago baina bestela berdin.

R9: Bai. Askoz gehiago hemen euskeraz hitz egiten.

(Reala. Gazte kirolariak)

Ikusten den bezala, horrek ez du esan nahi egunerokotasunean aldaketa nabarmena eman dutenik, baina beraientzat garrantzitsua den alor batean aldaketa nabaritzen dute.

### **c. Hizkuntza-praktikak kirolean, klubean eta taldean**

Gorago aztertu dugun bezala, ikerketan parte hartu duten hiru taldek nolabaiteko lana garatzen dute euskararen biziberritzearen alde. Gazteen aipamenetan hori nabaritzen da eta horren adibide da Paduran entrenamendua dela eskolarekin batera euskara gehien erabiltzen den gunea. Bosgarren eguneko dinamikan jasotako datuen arabera hala agertzen da: lau gaztek aitortzen dute dena edo ia dena euskaraz egiten dutela, beste laurek berdintsu egiten dutela eta bakar batek dena edo ia dena gazteleraz egiten duela. Elkarrizketetan hala adierazi digute:

*Elkarrizketatzailea: ¿Entrenamenduetan euskara erabiltzen duzue? Partidoetan, bidaietan...*

P7: En los viajes no, pero en los...

P8: En los entrenamientos mayormente.

P7: Sí.

(Padura. Gazte kirolariak)

Entrenatzaileak eragiten ari dira, bai gazteek kalean erabiltzen duten ohiko hizkuntzan, baita aurretik kirol eremuan erabili izan ohi duten hizkuntzan ere:

*Elkarrizketatzailea: Zure ustez zuek euskararen aldeko apustu hori egiteak gazteengan eragina du?*

Bai, nik uste dut baietz, kostatzen da eta uste dut behar dela denbora gehiago baina hori, uste dut baietz.

(Padura. Entrenatzailea)

Itxuraz, kirol jarduera hauek euskararekin nolabait lotzea lortzen ari dira klubetan:

*Elkarrizketatzailea: Eta saskibaloia ze hizkuntzakin lotzen duzue?*

P3: Euskaraz hitz egiten hasi gara aurten, ze da como bai.

P1: Aurten hasi gara jartzen arau bezala euskaraz hitz egin behar dela entrenamendutan eta partidutan.

P2: Orain arte izan da beti erdaraz.

P1: Orain arte lotzen nuen erdararekin ze zen aktibitate bat erderaz. Baina aurten ba ya euskaraz. Euskaraz hitz egiten dute entrenatzaileak batez ere, orduan euskaraz bai baina gure artean gehiago erderaz.

(Padura. Gazte kirolariak)

Orohar gazteen artean gaztelania gehiago entzun dugu euskara baino, euskara (batzuetan) entrenatzaileei hitz egiteko erabiltzen dute. Zaramagan, adibidez, frontoian kalean baino gehiago egiten dutela esan digute baina eskolan baino gutxiago, beraien artean apenas ez baitute egiten. Realeko egoera ezberdinagoa da. Jada aurretik aipatu den moduan, gazte batzuk oso ohituta daude euskaraz egiten eta guk aztertutako taldean sortu den hizkuntza-giroak laguntzen die euskara erabiltzen. Gainera, Realean zenbait jokalarik adierazi dute euskararen presentzia aurretik aritu izan diren klubetan baino handiagoa dela:

R3: Ta, adibidez, [aurreko klubaren izena] erderaz gehio hitz egiten zen. Ta hemen Realean euskaraz gehio hitz egiten da.

(Reala. Gazte kirolariak)

Kirol espezialitateak hizkuntzekin lotzeko eskatu izan diegunean argi agertu da futbola eta saskibaloia ez dutela euskararekin lotzen. Bi kirol horiek gaztelaniarekin lotzen dute eta zenbait kasuetan baita ingelesarekin ere. Ohikoagoa da esku-pilota euskararekin lotzea, nolabait euskal tradizioarekin lotutako kirol gisa deskribatzen baitute.

Z4: Euskararekin

Z5: Bueno kirol euskalduna da eta gero ere, ba partidotan eta aurkariek, entrenatzaileekin eta gehien, bai egia da agian entrenatzaileek esaten dietela zerbait erderaz eta baina bestela dena euskeraz da.

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Dena den, ez dute beti euskara eta esku-pilota arteko erabateko lotura egiten, bi adibide hauetan ikusten den bezala:

Z3: Ba segun ze leku ere... Araban badago gehiago gaztelania baina Gipuzkoan badago euskeraz

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Ikuspegi hauetan gazte hauentzat erreferentziazko kirolarien profilak garrantzia izan dezakete. Lehen behaketa eguneko dinamikan jasotakoaren arabera gazteek aipatutako izenen artean %40 dira euskaraz dakiten hiztunak. Futbolarien artean gertuko izen asko aipatu dituztenez (Realeko eta Atleticeko jokalariek) eta Zaramagako gazteek pilotari izen asko zerrendatu dituztenez datua ez dela txarra uste dugu. Aurretik nabarmendu den moduan, Realean eta Arrigorriagan euskaradunak hirutik bat izan da aipatua, Zaramagan ordea 3tik bi.

#### **d. Hizkuntza ideologia**

Hizkuntza gaitasuna eta erabilerarekin elkarlotua agertzen da hizkuntza-ideologia. Soziolinguistika Eskuliburuaren definizioaren arabera hizkuntza-ideologia pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa da, eta ideologia hori erabilera, diskurtso eta portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da (Joly eta Uranga, 2010:187).

Ikerketa honetan ez dugu gaztetxoen hizkuntza-ideologia gehiegi aztertu baina saio-dinamizatuetakoa hausnarketen eta elkarriketen bidez datu orokor batzuk jaso ahal izan ditugu. Batez ere, hizkuntzen inguruko balioak bildu ditugu eta dinamiketetan gazte hauen artean euskararekiko balio, pertzepzio edo sentimendu ezkorrik ez dugu jaso.

Elkarriketetan euskararekiko sentimenduzko hitz batzuk jaso ditugu (polita, gurea, zaharra...) eta horren adierazgarri da Paduran jasotako esaldi hau:

P1: Nik uste dut apreziatzen dela gehiago euskara, baina erabiltzen da gehiago erdera.

P3: Bai hori da.

(Padura 1.elkarriketa)

Balio horiei lotuta gazte hauei euskaraz hitz egin behar ote den galdetuta baietz erantzuten dute. Arrazoitzeko eskatuz gero identitarioak izan daitezke arrazoiren bat jaso dugu:

R4: euskara handitu behar delako...

*Elkarriketatzailea: eta zergatik handitu behar du?*

[Zalantzan dago, isilik. R5-k lagundu dio]

R5: Gure hizkuntza delako.

(Reala 2.elkarriketa)

Baina, batez ere, hiru taldetan hizkuntzaren desagertzea arriskua da gehien errepikatzen den argudioa:

R9: Ba, ez desagertzeko euskara eta hola, hor egoteko.

(Reala 3.elkarriketa)

~

Z7: Bai, galtzen ari delako

Z8: Bai

Z6: Bai eta ez da galdu behar

(Zaramaga 3.elkarriketa)

Maila diskurtsiboa erakusten diguten aipamen hauek zenbait gaztetxoek artean ardura sortzen dute eta euskara “ez galtzeko” eginbeharra gazteena dela ere esan digute:

P3: *Es que* azkenean galduko da euskara, *o sea* jende guztiak egiten badu erderaz pues azkenean...

P1: Ez badugu hitz egiten guk, gaudela Euskla Herrian, dakigula garaia gazteak eta daukagula euskara gure eskuetan.

P3: Azkenean galduko da.

P1: Ba *a ver* nork hitz egiten duen, *¿el de Madrid?*

(Padura 1.elkarriketa)

Barneratua dute euskaraz “egin behar dutela” eta zenbaitetan ez egiteagatik lotsa sentimendua ere agertu da:

P1: Ba... *es que* ni batzutan igual ba nagusi baten bateri edo igual galdetzen diot, *yo que se*, adibidez komunerako filan erderaz, eta gero erantzuten dit euskeraz, eta ni lotsatzen naiz, ze eztaikit, sentitzen naiz txarto ze...eztaikit.

(Padura 1.elkarrizketa)

Baina, era berean, hizkuntzen artean aukeratzeko norberaren “autonomia”, “askatasuna” eta “erantzukizuna” ere ageri da zenbait diskurtsuetan. Alde horretatik, ez dirudi gazte hauek ondo hartzen dutenik eskola eremutik kanpo euskaraz egiteko derrigortasunik:

*Elkarrizketatzailea: Nola sentitzen zarete heldu batek edo zuen adineko norbaitek esaten dizuetenean: "euskaraz hitz egin zazue!"*

P7: Niri berdin zait, bueno *a ver*. Igual esaten badizute hitz egin euskaraz, bai hala bai, ez zait gustatzen *porque* nik hitz egin al dut erderaz edo euskaraz. Esatea bai hala bai hitz egin behar dudala euskaraz eskolaz kanpo ba ez zait gustatzen .

P8 Niri ez dit molestutzen ze ez zait kostatzen hitz egitea euskaraz. Baina, ez dakit, ematea agintea hitz egiteko eskolatik kanpo ba ez zait gustatzen asko.

(Padura 3.elkarrizketa)

Esanguratsua da belaunaldien arteko diskurtsoak etengabe nola errepikatzen diren. Arrigorriagan, adibidez, gazteagoak direnei leporatzen zieten euskaraz ez egitea:

P1: Nik daukat ahizpa txikiago bat eta etxean ba batzutan joaten zaio *como la pinza* eta beti hitz egiten du erdeaz. Bueno, beti ez, batzutan hitz egiten du erderaz eta beti abisatu behar diote berari niri baino gehio txipa aldatzeko eta euskaraz hitz egiteko.

P3: Nirea berdina, lehen beti euskaraz, baina orain *pues da como* beti erderaz. Ze *ya* badago como ahazten euskara, *ya* ez daki euskaraz egiten.

(Padura 1.elkarrizketa)

Balio integratzaile askorik ez dugu jaso, ohikoagoak izan dira balio instrumentalen inguruko hausnarketak

Z1: Eta bestalde, ba jakin behar delako. Inglesak, esaterako, balio dizu ba mundu guztirako eta euskerak, esaterako, ba hemen Euskal Herrian indar handia daukala esan daiteke. Ze... gauza askotarako balio dizu, ta ondo menperatzen baduzu, eta oso ondo ematen bazaizu euskera, atera dezakegu EGA ere bai.

(Zaramaga 1.elkarrizketa)

Dena den, alderdi instrumentala gehiago lotu dute gaztelania eta ingelesarekin, askotan lurralde zabalago batean erabiltzeko aukera ematen dutela argudioa erabiliz:

Z4: Nire ustez gaztelania zeren... eh... nola eeh... gaude Espainian ere, ba nola Espainian da hizkuntza... *O sea*, gehien hitz egiten den hizkuntza gaztelera da, ba orduan, gu Gasteizetik kanpo, Euskal Herritik kanpo joaten bagara beste guztiokin bai, hitz egiten dugula gaztelera.

(Zaramaga 2.elkarrizketa)

Ingelesa “munduko hizkuntza” gisa definitzen dute eta kanpora ateratzeko ingelesa jakitea garrantzitsua dela askotan errepikatzen dute eta, lehenago ikusi dugun bezala, ia denek ikasten dute ingelesa eskolaz kanpo. Dena den, maila diskurtsiboan oso barneratua dute ingelesa beharrezkoa dela baina, oraingoz, ez dute apenas praktikan jartzeko aukerarik izan. Esanguratsua da Realeko gazteek tarteka Europako beste klubak aurkako partidak izaten dituztela eta halakoetan ez dutela ingelesez aritzen.

*Elkarrizketatzailea: Zergatik hitz egiten dezue ingelesa?*

R9: Ba mundu osoan hitz egiten delako.

R7: Gero juaten bazera leku batera eta ingeles hitz egin nahi badezu, ba ikasi behar dezu.

*Elkarrizketatzailea: Adibidez, egoten zaretenen...aurrekoan egon zineten Bartzelonan Europako taldeen aurka jokatzeko ez?*

R8: Bai.

*Elkarrizketatzailea: Holakoetan erabiltzen dezue ingelesa?*

Denak: Ez

#### **7.4.8. Entrenatzaile hiztunak**

Hizkuntza-praktiken jasoketa egiterakoan entrenatzailea oso presente egon da figura izan da. Aipatu dugun bezala bosgarren egunean egindako dinamikan *Non egiten dugu?* galderari erantzunez esanguratsua da gazteek pertzepzioa dutela entrenatzaileekin dela euskaraz gehien egiten duten unea (irakasleez gain). *Nagusiki edo ia beti euskaraz edo bi hizkuntzetan berdin* aukera gehien markatu dute agentea entrenatzaileak dira. Talde guztien datuak kontutan hartuta lau gaztek bakarrik esan dute nagusiki edo ia beti erdaraz egiten dutela entrenatzaileekin. Talde hauetako entrenatzaileen jokabidea nolakoa den adierazten duela uste dugu.

Paduran entrenatzaileen konpromisoa garrantzitsua da, hauek hartutako erabakiari esker eta denboran mantentzeko esker gazteek ere, hein handi batean behintzat, konpromiso hori bere egin dute eta euskararekiko lotura estutu egin dute. Entrenatzaileek, kirol taldeak hartutako erabakia jarraiki, euskararen aldeko apustu sendo bat egin dute. Beraien funtzionamendua euskararen oinarrituta egitea erabaki dute. Hau, irakasten dizkieten beste gauzeekin batera, gazteak, egunero bertatik edaten ari dira, praktika-komunitate honen joko arauak aldatu zituzten konpromiso horrekin eta horrek, euskara komunikazioaren oinarri bezala jartzeak, taldea bera ere aldatu egin du pixkanaka apur bat. Gazteek euskara gehiago erabiltzen dute entrenamendu eta partiduetan.

Zaramagan eta Realean ere entrenatzaileek rol garrantzitsua jokatzeko dute eta kontzienteak dira horretaz. Batetik, euren euskararen erabilerak ingurukoengan eragina duelako, gazteek euskara gehiago erabiltzera bultzatzen du. Bestetik, tarteka gaztelera erabiltzean (adarra jotzeko, zerbait esateko...) gazteen mintzapraktiketara hurbiltzen dira eta honen ondorioz, irakaslearen figuratik aldenduz, beraiekiko hurbiltasuna irabazten dute. Azkenik, esango genuke, hurbiltasun eta konfiantza horri esker, euskararen sozializazioa modu errazago batean ematen dela.

“Hizkuntzei dagokionean, esan behar da entrenatzaileek beti hitz egiten dietela gazteei euskaraz; ez diete gogor hitz egiten, modu onean baizik; beraien artean dagoen aipatutako erlazioaren seinale. Klubarentzat euskara ardatz bat den heinean, entrenatzaile guztiek euskaraz jakin behar dute eta, noski, euskaraz hitz egin behar diete gazte eta umeei”  
(Zaramaga. Behaketa. 2017/10/25)

Horrek ez du esan nahi entrenatzaileek gaztelaniaz egiten ez dutenik. Soziabilitate espazioari buruz hitz egindakoa berretsi egin beharko genuke hemen: tarteka entrenatzaileak gaztelaniaz egiten dute. Zaramagan, adibidez, zenbaitetan entrenatzaileen artean gaztelaniazko elkarrizketak behatu ditugu eta baita gazteekin elkarrizketaren bat ere. Gauza bera jaso dugu Zubietako entrenamenduetan eta Arrigorriagan. Gazteek ere ez diete entrenatzaileei beti euskaraz erantzuten:

Z1: Entrenatzaileekin....batzuetan euskeraz.

Z2: Entrenatzaileekin batzutan euskeraz eta batzutan gaztelaniaz

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Hizkuntza nahasketa hauek *nahi dut-behar dut-ezin dut-kostatzen zait* bat erakusten dute gazteen aldetik. Entrenatzaileen aburuz gazteek askotan nagitasuna agertzen dute, “*¡Que perez!*”, euskaraz hitz egiteko. Finean, gazteek euskararekiko hurbilpena egiten dute baina ondoren bertan finkatzea kosta egiten zaie. Entrenatzaileek horregatik jotzen dute rol garrantzitsua: gazteek nahi gabe beraiei euskaraz hitz egiten dietelako eta beraiek inguruan badaude euskara erabiltzeko aukerak areagotzen direlako (testuinguruaren arabera erabilera handiegia ez izan arren).

Kirol klub hauek gune monitorizatuak<sup>13</sup> dira eta eskolarekin hainbat antzekotasunak dituzte, baina baita desberdintasunak ere eta entrenatzaileen hizkuntza-praktikak eta jokabideak antz-ezberdintasun horien artean mugitzen dira. Adibidez, entrenatzailea gazte batengana hurbiltzen denean eta gaztelaniaz zerbait esaten dionean, hein batean, *euskara-irakasle-robot* prototipo horretatik askatzen da. Baina, era berean, entrenatzaileen hizkuntza hautu nagusia euskara izateak praktika-komunitate txiki hauen hizkuntza euskara (ere) izaten laguntzen du. Besteak beste, iaz behaketetan jaso genuen datu garrantzitsu bat aurtengoan ere berretsi dugulako: entrenatzaileen ahotsa da entrenamenduetan gehien entzuten den ahotsa.

#### 7.4.9. Praktiken hizkuntza

Aurtengo ikerketan parte hartu duten hiru praktika-komunitateren hiztunei buruz hitz egin ondoren, hiztun(gazte) hauek (kirol) praktika zehatz hauetan hizkuntzarekin zer egiten dute aztertuko dugu. Interesatzen zaigun galdera hau abiapuntua dugu: zer egiten dute gazteek hizkuntzarekin? Jarraian, beraz, komunikazio formak labur-labur aztertuko ditugu iaz jasotakoa osatu nahian.

---

<sup>13</sup> Berrio-Otxoa, Martínez eta Hernández-ek 2003an egin zuten sailkapen arabera gazteen aisialdiare eremutako bat da gune monitorizatuaren izenakoa. Helduek nolabait dinamizatzen duten guneak dira, adibidez, aisialdi taldeak, gaztelekuak eta kirol taldeak (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:7).

Aipatu izan dugun bezala entrenamenduetan entrenatzaileen ahotsa nagusitu ohi da. Taldeen gidari hauek etengabe ematen dituzte agindu ozenak eta jokalariekin banakako edo talde txikietan elkarrizketak dituzte. Horrek ez du esan nahi jokalariek hitz egiten ez dutenik. Behaketetan jaso ahal izan dugunez, gazteek entrenamenduko ariketaren arabera, gehiago edo gutxiago hitz egiten dute. Adibidez, teknika ariketak lantzean gehiago hitz egiten dute partidak jokatzen dituztenean baino eta une informaletan gaztetxoek arteko elkarrizketak areagotzen dira.

#### **a. Hizkera informala**

Bestalde, gazte zein entrenatzaileen hizkuntza-praktiketan ahozkoitasun eta informaltasunak pisu handia hartzen du. Izan ere, Kike Amonarrizek adierazi bezala, gazte izaerak talde identitate batekin identifikatua egotea ekartzen du eta gazteen artean ohikoa izaten da ahozko hizkera informalarekin identitate hori adieraztea (Amonarriz, 2006). Gaztetxoek komunikazioan adierazkortasuna irabazi nahi dute eta ahozko hizkera informalak gazte izateko behar duten kapital linguistikoa ematen die. Adibidez, Zaramagako entrenamendu hasierako ariketak egiten ari zirela, Josebak pilotari jotzean atzamarretako takoei ihes egin zioten eta zuzen-zuzen frontoiaren paretaren aurka jo zuten: “*Un proyectil! Un proyectil!*”, “*Es el segundo ya!*” hasi ziren gazteak beraien artean barrez.

Realean saio dinamizatu batean egindako behaketa honetan ere deskribatzen da informaltasun giroan gaztelaniarako joera nola handitzen den:

Giroa informalago bihurtu da eta esperokoa zen bezala gaztelaniaren presentzia handitu da: “Erdian!”, “Estos en la grada”. Entrenamenduaren kartulina duen taldean gazte bat euskaraz egin behar dutela gogorarazi die “euskaraz hi!” espresioaren bidez. Beste talde batean euskaraz hasi arren gaztelaniara pasa dira: “Hau erdian”, “Esto sí, esto no, esto sí”, “En el banquillo”... Realeko heziketa arduraduna erdararen presentzia nola handitu den harrituta komentatu dit: “joe, nola pasatu dira gaztelaniara!”. (Reala. Behaketa. 2017-11-08).

Adierazkortasun eta informaltasun hori askotan entrenatzaileengana heltzen da, berez hierarkiko samar den kirol testuinguruan hurbiltasuna lortuz. Bertikalitatea ez du galtzen harremanak, baina oreka puntu bat mantentzen da. Hona behaketetan jasotako horren bi adibide:

Entrenatzaileak gazte bati, janzten den estetikagatik edo, “Mujombre” deitu dio “Mujeres, hombres y viceversa” izeneko telebista programari erreferentzia eginez, eta gazteak barre egiten du (Zaramaga. Behaketa. 2017-11-27).

Adibide horietan ikusten den bezala hizkera informal hori euskararekin lotzea kosta egiten zaie gazteei. Elkarrizketetan euskarak edozertarako balio duela erantzuten dute, baina praktikan muga batzuk identifikatzen dituzte. Zaramagan, adibidez, txistek kontatzeko:

*Elkarrizketatzailea: Euskarak gauza guztietarako balio du? Ba, adibidez: arbitroa iraintzeko, lagunak zirikatzeko, eeh.. hasarretzeko, gauza politak esateko, txistek kontatzeko. Balio du?*

Z6: Bai

Z8: Bai

Z7: Txisteak kontatzeko nire ustez ez *porque ez dauka... la misma gracia*.

(Zaramaga . Gazte kirolariak)

Izan ere, iaz bezala behaketetan jaso dugun egoera oso ohikoa da kode-nahasketarena da, esaldi berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea. Txosten honetan guztian zehar jasota geratu diren gazteekin izan genituen elkarrizketa askoren aipuetan kode-nahasketa hori oso agerian geratu denez, ez dugu uste adibide gehiago jartzea merezi duenik. Dena den, garrantzitsua iruditzen zaigu gogoraraztea, Jean-Batiste Coyos-ek ohartarazten digun bezala (Coyos, 2010:146) kontaktuan dauden bi hizkuntzetan interferentzia nagusiki norabide berean gertatzen dela: gehiengotik gutxiengora. Guk behatu ditugun kasuetan interferentzia, batez ere, gaztelaniatik euskarara geratzen da eta, nekez, alderantziz. Izan ere, Gasteizen adierazi ziguten moduan kalean ez dituzte hizkuntzak nahasten, gaztelaniaz egiten dutelako.

#### **b. Batua, euskalkiak eta hitanoa**

Batua eta euskalkiei dagokionez egoera ezberdinak jaso ditugu. Zubietan herri ezberdinetako euskalkiak entzun daitezke Gipuzkoako hainbat herritako gazte eta entrenatzailek biltzen direlako baina batua da gehien entzuten den hizkera. Gasteizen batua da euskaraz hitz egiterakoan erabiltzen den kode bakarra eta Arrigorriagan ere antzeko egoera topatu dugu, nahiz eta zenbaiten hizkeran bizkaieraren eragina nabari da.

Gasteizko pilotari gazteek euskalkiak ustez eskaintzen dituen baliabide batzuk ez dituztela sentitzen dute. Horrek bat egiten du azken garaian egin diren hainbat elkarrizketetan agertzen ari den datuarekin: hiztun berriak lekuan-lekuko euskara “ez edukitzea” erabilerari begirako oztopo gisa identifikatzen dute (Ortega et al., 2016: 220). Zaramagako pilotari gazte batek elkarrizketa informal batean kontatu zigun Bizkaiko lagun batzuk dituela eta hauek euskalkian mintzo direnez asko kostatzen zaiola ulertzea. Baina era berean, euskalki hori ezagutzeak ematen diola euskararen alderdi informalaren nolabaiteko jakintza. Horri loturik, adibidez, euskarak ligatzeko balio duela esan zigun: “goxoagoa delako”. Elkar ulertzeko zailtasunez beste elkarrizketa batean hala formulatzen zuten:

Z4: Baina gero ere gertatzen dena da nola Gasteizen euskara batua hitz egiten dugun, ta orduan, agian, Arabatik kanpo joaten bagara edo, ba oso zaila da jendea ulertzea eta...

Z5: Komunikatzea ondo...

Z4: Ni agian Gipuzkoar batekin ez, ze nola Arrasatekoak diren eta, baina bestela agian beraiek ni ulertzeko asko kostatzen zaie.

*Elkarrizketatzailea: Zuk beraiei baino, beraiek zuei?*

Z5: Bai

(Zaramaga. Gazte kirolariak)

Esan bezala, Reala da euskalkien presentzia nabarmenena topatu dugun taldea. Gure behaketetan jaso dugunaren arabera horrek ez du inolako ulermen arazorik sortzen baina gazteen elkarrizketetan aipamen batzuk egiten dituzte:

R1: Alex-ek esan dunarekin, hizkuntzak, hemen Oriyokoa, Usurbilekoa, Antzuola... Ertortzen naiz ni ta igual ez ditut ulertzen hitz batzu (barreak) ta lehenokoa nola zen erderaz



ondo konpontzen nintzen. Baino...Antzuolakoa eta! Ez det...Hitz batzuk ez ditut ulertzen!  
(barreak)  
(Reala. Gazte kirolariak)

*Elkarrizketatzailea: Eta hemen Azpeiti, Azkoitikok nola hitz egiten dute zuekin?*  
(barreak)

R7: Euskera baino oso arraroa.

R9: Adibidez, [taldekide baten izena]-k esaten du zapatuan...

R7: Ya.

R9: Larunbatean.

*Elkarrizketatzailea: Baina ulertzeko arazorik ez dezue ez?*

Denak: Ez.

(Reala. Gazte kirolariak)

Hitanoari dagokionez, aurtengoan ez dugu hizkera honen arrasto handirik topatu. Elkarrizketetan gazteei galdetu diegu eta Realeko jokalaria gutxi batzuk lagunartean hika erabiltzen dutela esan digute:

*Elkarrizketatzailea: Orion hitz egiten dezue hikaz zuen artean?*

R2: Bai. Beti lagunekin hika.

*Elkarrizketatzailea: Eta hemen?*

R2: Batzuetan (irribarrea)

R1: Ia beti! Nik batzuetan ez dizuet ulertzen...(barreak)

(Reala. Gazte kirolariak)

Hala ere, behaketa baten pasadizo honetan ikusi dezakegun bezala, talde berean hitanoa zer den ere ez dakiten gazteren bat topatu dugu:

[jokalaria baten izena]-i begiratu diot eta hika zer den galdetu dit. Beste bi gazteri azaltzeko eskatu diet baina ez dakite nola azaldu: “hi erabiltzea...”. Adibideren bat jarri dute baina ez dirudi lehen gazteari ezaguna egiten zaionik. Poliki, lotsa puntu batekin hirugarren batek esan du “baserritar modun hitz egitea”.

(Reala. Gazte kirolariak)

Zaramagan eta Paduran hitanoa zer den badakite baina ez dute inoiz erabili eta ez dute inguruan inor erabiltzen duenik:

*Elkarrizketatzailea: eta hika? erabiltzen al duzue?*

P1 eta P2: Ez, ez.

P3: Zer?

P1: Ba hi zaik eta *no se que, yo que se*.

P3: A bale.

*Elkarrizketatzailea: Eta inguruko norbait ezagutzen duzue erabiltzen duena hika?*

P1: Nire aitonak daki *pero* ez dit hitz egiten, bueno noizbait hitz egin dit baina *como pa tocarme la baina* eta.

*Elkarrizketatzailea: Eta zertarako erabiltzen du hika zure aitonak?*

P1: Ez, ez du erabiltzen, baina badaki eta batzutan hitz egiten dit ba nik ikasteko.

P2: Pa *tocarme la baina* (barrez).

P1: Nik ez dut entzun inoiz hika hitz egiten norbait baina nik uste dut norbait hasten bada hikaz hitz egiten *pues no se*. Ez dakit.

(Padura. Gazte kirolariak)

Zaramagan hitanoa Gipuzkoako herri batzuen euskalkiarekin identifikatzen duenik topatu dugu:

*Elkarrizketatzailea: eta hika? ezagutzen al duzue?*

Z4: Bai. Azkoitiko eta

*Elkarrizketatzailea: Eta zuen inguruan norbaitek erabiltzen du bestela?*

Z4: Ez, bueno nik udan joaten naiz kanping batera ta daue Azkoitikoak, Azpeitikoak, ta orduan bai erabiltzen dutela  
(Zaramaga. Gazte kirolariak)

### c. Kirol hizkera

Kirol jardueretan ez dira solasaldi edo elkarrizketa luzeak egoten. Lokuzio eta esamolde motzak askoz ohikoagoak dira eta joan den urteko ikerketan ondorioztatu genuen bezala bi esparru lirerateke interesgarrienak kirol hizkera lantzeko asmoa duten egitasmoetan: batetik, emozioen espresioak eta, bestetik, kirol terminologia eta aginduen adierazpenak.

2017-2018ko plangintzan horri begirako dinamika ezberdinak antolatu ditugu hiru helburu zehaztuz: (1) Gure kirol eremuan erabiltzen ditugun esamoldeak jaso, (2) kirol esparruko esamoldeen hiztegia osatu eta (3) “Kirol hiztegi gaztea” partekatu eta zabaldu. Ikerketaren alderdirako, batez ere, seigarren egunean garatutako dinamika interesatzen zaigu. Bertan, gaztetxoek euren kirol praktikan erabiltzen dituzten esamoldeak zerrendatu behar zituzten: zer esamolde erabiltzen ditugu kirolean... Animoak emateko? Kexatzeko? Laguneei gauzak esateko? Jokaldiekin lotutakoak?

Ondorio garbi askorik ezin da atera baina dinamika honetan jaso genuen joera bat honako hau da: poza edo haserre bezalako espresioetan euskarazko esamolde askoz gutxiago agertzen dira aginduak edo azalpen teknikoetan baino, beharbada, azken hauetan entrenatzaileen eragina nabarmenagoa delako. Arrigorriagan, adibidez, aginduak eta azalpen teknikoetan euskarazko esamoldeak agertzen ziren (*Atera kanpora, Pasea gogor eman, Pasea eman, Sigue tu, Moztu, Corta, Ezkerra, Gogor eutsi, Rapido, Pasa eta moztu, No os lieis a botar, Pasen bidez igo pilota...*) baina emozio espresio ia guztiak gaztelaniaz ziren (*Joder, Mierda, Cabron/a, Canastón, Tri-tri-tripleee, Ole! Ole!, Taponazo, Oso ondo, Eres la mejor, Primeran, Jugadon, Vamos, Aupa...*). Realean eta Zaramagan dinamika hauetan jasotakoen artean ez zen horrenbesteko ezberdintasuna nabaritzen eta gaztelaniaz jaso ziren espresio kopuru handiena. Baina Realeko entrenamenduetan behatu dugun taldeko entrenatzaileak euskara asko erabiltzen du:

Entrenatzailearen ahotsa entzuten da: ondo, ondo, pa, pa, paaaa... aaaag! Euskaraz ari da. Tarteka, oso gutxitan, gaztelaniazko hitzen bat sartzen du baina euskararen presentzia nabarmena da: “Ondo, ondo doa, Jon!”, “Suabe, suabe, goazen suabe!” “Ba, ba, ba, Iker!” “segi!, eskuin!, ondo!”... (Reala. Behaketa. 2017-11-08)

Tantoa jokatzeko ari direnean, gola sartzerakoan jokatzekoan, baloia saskian sartzean... galdu edo irabazi, jokoan, haserretzean edo poztean, taldekideak edo bikotekidea zoriontzekoan...emozioak azalarazten dira. Hauek normalean ariketak egiten daudela eta partiduak jokatzeko ematen dira. Ariketak egitean, hala ere, egoera lasaia izan ohi da eta emozioak entzuten diren arren, partidutan ematen dira gehien bat. Finean, partidua delako galdu edo irabazteko unea.

Partidetan, orokorrean, isiltasun handiagoa egon ohi da pilotaren edo baloiaren hotsaz gain, kirolarien artean esandakoak edota beraien emozioak entzuten dira. Zaramagan, adibidez, gazteen hizkuntza-praktika gehienak gazteleraz diren heinean, emozioak ere gazteleraz adierazten dituztela:

“¡Va! ¡Va! ¡Va!”, “¡Tu!”, “¡No!”, “¡Siguiente!”

“Tu!”, “Sigue!”, “Va!”, “Voy!”

“Haritz tuya!”, “Va!”, “Mucho!”, “Joder!”

(Zaramaga. Behaketak)

Emozioek, beraz, pisu handia hartzen dute. Finean, kirola emozioz beterik dagoelako. Aurtengoan berriro ere berretsi dugu emozioekin lotutako esamoldeen esparrua gune garrantzitsua dela kirol arloan. Baina kirolean badago beste komunikazio-esparru garrantzitsua: azalpen tekniko eta agindua. Esparru honetan bertikaltasuna handitzen da eta entrenatzaileena da hitza. Entrenatzaileak euskaraz mintzatzen dira, beraz, azalpen tekniko eta aginduaetan euskararen presentzia handiagoa da. Hala ere, esparru honetan ere, egoeraren arabera, gaztelania ere agertzen zaigu Zaramagako bi adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

“Ni, normalean bezala, entrenatzailearen ondoan nago kontrakantxa eta kantxa banatzen dituen marran; Beste entrenatzailea, berriz, gehiago hurbiltzen da gazteengana azalpenak ematera eta beraiegandik hurbilago dago. “Jordan! Atzerago!” esan dio jokalaria bati; animoak eta aginduak tartekatzen ditu” (Zaramaga. Behaketa-2017/11/27)

~

“Entrenatzailea gazteei animoak ematen ari da beraien inguruan; gaztelera eta euskara erabiltzen ditu “Jarraitu!”, “Como falles esa!”, “Benga, bilatu!”, “Oso ondo Jorge!”, “Ondo!”, “Acaba!”. (Zaramaga . Behaketa-2017/12/11)

## 8. Kirola-Kluba-Taldea: hirugarren espazioa

### 8.1. Urrats gutxi batzuk atzera

Futbol partida batean penalti izeneko jokaldia oso erabakigarria izaten da eta, hortaz, penaltia jaurti behar duen jokalaria ondo prestatu behar du une garrantzitsu horrek eskatzen duen guztia. Baloia ondo kokatu eta gero, gehienetan jokalaria pauso batzuk atzera egiten du jarraian, korrika, baloiari indarrez jotzeko. Guk ere aurtengo ikerketaren ondorio orokorretara jo aurretik, urrats batzuk atzera egingo dugu joan den urteko *D ereduko kirola. 2016ko ikerketaren txostenan* aipatutako ideia bat ekartzeko.

Txosten hartan idatzi genuen euskal gazte gehienentzat euskara euren egunerokotasunari lotuta dagoen errealitate bat dela. Lotura horrek familia (zenbaitetan) eta, batez ere, eskolaren bidez ematen da; bi instituzio horiek dira gazteak eta hizkuntzaren arteko zubilana egiten dutenak. Baina, gaztelania<sup>14</sup> ere gazte hauen eguneroko bizitzan erabat txertatuta dago eta askotan hizkuntza-praktikak direla-eta zenbait talka zein tentsio sortzen dira. Helduok gazteak presionatzeko joera dugu euskara erabil dezaten; gazteek presio hau kexa eta aginduekin identifikatzen dute.

Iazko ikerketaren ondorioetan aipatzen genuen horren aurrean gazte batzuk prest daudela “jokoa jarraitzeko”, *to play de game* (Heller, 2006), baina beste batzuk ez, edo gutxienez ez neurri berean. Eskola da tentsio horien antzoki nagusia. Monica Hellerren Toronton aztertutako errealitatearen interpretazioa jarraituz, bi eremu ezberdinen arteko bereizketa sortzen da: alde batetik eremu publikoa (*front stage*) egongo litzateke, non eskolan ofiziala den hizkuntza nagusitzen den; eta, bestetik, eremu pribatua (*backstage*) izango genuke, non gazteak euren hizkuntza errealitatea kudeatzen saiatzen dira, talkak, kontraesan zein paradoxaz beterik. Kasu honetan, *backstage*-en, “ofiziala” ez den hizkuntza (edo hizkuntzak) nabarmen nagusitzen dira. Bi esparru hauek, bakoitzak biltzen dituen ohitura, praktika, erreferenteekin..., elkarlotzen dira, hizkuntz egoera konplexu bat irudikatuz.

Gurean ere, halako tentsio edo gatazka bat sortzen da gizartean garatu diren bi hizkuntza-ideologia edo hizkuntza-erregimen artean. “Eskolako hizkuntza-ideologiaren” arabera, euskaraz hitz egin behar da. “Kaleko hizkuntza-ideologia”, ordea, gaztelaniarekin edo frantsesaren erabilerarekin oso lotuta ageri zaigu. Horregatik, iazko ikerketan Charlotte Selleck-ek Galeserako egiten zuen hausnarketa gurea egiten genuen: eskola eta eskolatik kanpoko espazioen artean sortutako “hutsunea” dugun erronka garrantzitsuenetakoa da:

A gulf between the increasing number of young people receiving their education through the medium of Welsh, and the levels of Welsh language usage outside school (Selleck, 2016:561).

Kirol arloa eskolaz kanpo kokatzen genuenez, Selleck-ek aipatzen zuen “hutsune” horren konponbideari begira eskolako erdua kirolean txertatzea komeni ote zen zalantzan jarri genuen eta haur eta gazteen protagonismoa aldarrikatu genuen “hori ezean *D ereduko eskolaren* ibilbidean gertatutako huts egiteak errepikatzeiko arriskua egon daitekeelako” (*D ereduko kirola. 2016ko ikerketaren txostena*: 118).

---

<sup>14</sup> D ereduko kirola ikerketan aztertu ditugun gazte guztiak Hego Euskal Herrikoak dira (bat ezik)

## 8.2. Gazte sakalariak

Esku-pilotan sakea garrantzitsua da partida txukun bat egiteko. Binakako lehiaketetan sakea egiten ona den bikotekidea edukitzea komeni da. Gure ikerketan ere laguntzaile finak izan ditugu, aurtengoan kirolari gazteen laguntza funtsezkoa izan baita. Bai ikerketan bai dinamizazioetan urrats berri bat eman nahi izan dugu kirolari nerabe horiekin lan eginez. Beraiek izan dira, hortaz, gure sakalariak: jokaldiak abiatzeko eta tantoak lortzeko oinarria. Gaztetxo hauen bizipen, diskurtso eta iritzien bidez osatu dugu aurtengo ikerketa, eta haien ahotsetan oinarritu gara aurrera begira kirol esparruan euskararen presentzia handitzeko interesgarriak izan daitezkeen ondorio nagusiak laburbiltzeko:

1. **Kluben izaera:** Ikerketan parte hartu duten klubak izaera ezberdina da. Hori, batez ere, 'errendimenduari' begirako lanean nabari da, baina klub guztietan ludikotasuna eta lehia uztartuak daudela jaso dugu. Bestalde, izaera sozialean ere ezberdintasunak agerikoak dira: Padura eta Zaramaga askoz izaera 'familiarragoa' eta lokalagoak dituzte Reala baino.
2. **Klubak hizkuntza-plangintza:** Aztertutako hiru klubek nolabaiteko euskararen sustapenaren aldeko hizkuntza-ideologian oinarritutako erabaki batzuk hartuak dituztela. Hau da, iaz jasotakoa berretsiz: hizkuntzarekin lotutako plangintza zehatzik garatu ez arren hiru klubetan euskara biziberritzearen aldeko jarrera (eta identifikazioa) dago eta horri begira hainbat tresna garatzen dituzte. Adierazgarriena, entrenatzaile euskaradunak hartzea eta hauei euskaraz egiteko eskatzea da.
3. **Klubak interesa:** Hiru klub hauek hizkuntza gaiarekiko interesa handia erakutsi dute (Reala eta Zaramagaren kasua bigarren urtez) eta aurrera begira arlo horretan erreferentziazko klubak izan daitezkeela uste dugu.
4. **Gazte kirolariak:** Ikerketan parte hartu duten gazteak aurretik egindako beste ikerketetako ezaugarri antzekoak dituztela jaso dugu: gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotzen dute, gazteen identitatea kirola eta festarekin oso lotuta agertzen da eta pareen taldeari, adinkideei, garrantzia handia ematen diote. Esperokoa zen bezala, ikerketan parte hartu duten gazteek kirol jarduerari garrantzi handia ematen diote eta gazteen lekukotzetan kirola taldean egitearen garrantzia asko agertu da.
5. **Entrenatzaileak:** Gazte kirolarien eta kirol-praktika zehatzen artean bitartekari eta dinamizatzaile lana betetzen duen figura dira. Gaztetxoentzat entrenatzaileak erreferenteak dira eta aztertu ditugun taldeetako entrenatzaileek jokalariekin duten harremana oso ona dela jaso ahal izan dugu. Hurbiltasun hau oso argi adierazi digute hiru taldeetako gazte guztiek. Horren adierazle da askotan nabarmentzen den entrenatzaile eta gazteen arteko txantxa giroa.
6. **Kirol-praktikak:** Talde hauen kirol-praktiketan disziplina eta formaltasuna nabari dira, baina era berean, barreak eta ziriak espazio handia hartzen dute.

Haserrerako tarteak ere daude baina errespetuzko harremanenak dituzte. Esan daiteke talde hauetan oso giro ona dutela eta horrek hitz egiteko praktiketarako erosotasuna dakarrela.

7. **Entrenamenduak:** Bi entrenamendu mota daudela esan daiteke: entrenamendu informalak eta entrenamendu formalak. Informaletan giroa lasaiagoa da. Entrenamenduetan, ariketak eta partidak jokatu bitartean nahiko giro serioa topatu dugu. Ez da giro txarra. Lan-giroa da eta intentsitatea handia egon ohi denez txantxarako tarteak murrizten da, oso erritmo bizian ari direlako eta egiten ari diren horretan oso kontzentratuak daudelako. Dena den, hiru taldeen artean diferentziak topatu ditugu eta Realeko entrenamenduak askoz intentsitoagoak direla nabaritu dugu. Arrigorriagan eta Zaramagan lana handia egiten badute ere, lasaitzeko une gehiago daude.
8. **Kirolari gazteak:** Kirolari bilakatzea sozializazio prozesu baten bidez gertatzen da: kirolari gazteak gorputz-kapitala eta kultur-kapitala lortzen dute kirol taldeetan garatzen dituzten praktiken bidez. Entrenatzaileak gorputzaren lanketan eta kirol-jakintzaren sozializazioan elementu zentralak dira.
9. **Hizkuntza-gaitasun aitortua:** aztertutako taldetako nerabe gehienak euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu moldatzen direla adierazten dute. Hau da, gaztetxo gehienek bere burua erdi bidean kokatzen du. Oso gutxi dira erdaraz hobeto moldatzen direla aipatzen dutenak. Euskaraz hobeto moldatzen diren ia guztiak Realekoak dira.
10. **Hizkuntza-gaitasun behatua:** Realean ikusi dugu talde erdiak euskaraz aritzeko erraztasuna handia duela euren herrietan, familietan, lagunartean edota eskolan hala egiten ohituta daudelako. Realeko beste erdiak eta Zaramaga eta Padura taldetako gehiengoak ere halako profila du: gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute, nahiz eta egunerokotasunean gaztelaniaz gehiago hitz egin.
11. **Eguneroko erabilera:** Gasteiz eta Arrigorriagako nerabeen artean lagunartean gaztelaniaz aritzen direla jaso dugu, baita, Realeko hainbat jokalarien artean ere. Gaztelaniaz hitz egiteko arrazoiei buruz galdetzerakoan talde guztietan 'ohitura' da gehien errepikatzen den arrazoiak. Euskararen erabilera askotan eskolarekin lotuta ageri da.
12. **Hizkuntza-mudantza:** Nerabezaroan gertatu ohi den euskaratik gaztelaniarako hizkuntza-mudantza maiz agertu da, baina salbuespen interesgarri batzuk ere jaso ditugu: kirol-arloan gaur egun euskara gehiago erabiltzen duten jokalariek gutxi batzuk topatu ditugu.
13. **Hizkuntza-praktikak klubean:** Gazteek nabaritzen dute hiru klub hauek euskararen biziberritzearen alde egiten duten lana. Adierazgarria da Paduran entrenamendua dela eskolarekin batera euskararekin gehien lotu duten gunea.

- 14. Gazteen hizkuntza-praktikak entrenamenduetan:** Orohar gazteen artean gaztelania gehiago entzun dugu euskara baino, euskara gehiago erabiltzen dute entrenatzaileei hitz egiterakoan. Dena den, ezberdintasun nabarmena dago Realean: gazte batzuk oso ohituta daude euskaraz egiten eta guk aztertutako taldean sortu den hizkuntza-giroak laguntzen die euskara erabiltzen.
- 15. Gazteen hizkuntza-ideologia:** gazte hauen artean euskararekiko balio, pertzepzio edo sentimendu ezkorrik ez dugu jaso. Euskaraz hitz egin behar ote den galdetuta baietz erantzuten dute eta hiru taldetan hizkuntzaren desagerpen arriskua da gehien errepikatzen den argudioa. Horrekiko ardura azaltzen dute, baina, era berean, hizkuntzen artean aukeratzeko norberaren “autonomia”, “askatasuna” eta “erantzukizuna” ere ageri da zenbait diskurtsuetan. Alde horretatik, ez dirudi gazte hauetako batzuk ondo hartzen dutenik eskola eremutik kanpo euskaraz egiteko derrigortasunik.
- 16. Entrenatzaile hiztunak:** talde hauetako hizkuntza erabileran entrenatzaileek rol garrantzitsua jokatzen dute eta kontzienteak dira horretaz. Batetik, euren euskararen erabilerak ingurukoengan eragina duelako, gazteek euskara gehiago erabiltzera bultzatzen du. Bestetik, tarteka gaztelera erabiltzean gazteen mintzapraktiketara hurbiltzen direlako. Hurbiltasun eta konfiantza horri esker, euskararen sozializazioa modu errazago batean ematen dela iruditu zaigu.
- 17. Entrenamenduen hizkuntza:** Entrenamenduetan entrenatzaileen ahotsa nagusitzen da. Horrek ez du esan nahi jokalariek hitz egiten ez dutenik eta entrenamendutako ariketaren eta intentsitatearen arabera, gehiago edo gutxiago hitz egiten dute.
- 18. Hizkera informala:** Gazte zein entrenatzaileen hizkuntza-praktiketan ahozkotasun eta informaltasunak pisu handia hartzen du baina hizkera informal hori euskararekin lotzea kosta egiten zaie gazteei, askotan gaitasun nahikorik ez dutela sentitzen baitute.
- 19. Kode-nahasketa:** Oso ohikoa da esaldi berean euskara eta gaztelania erabiltzea. Dena dela, ohartarazi behar da interferentzia, batez ere, gaztelaniatik euskarara geratzen da eta, askoz gutxiagoetan, alderantziz.
- 20. Batua eta euskalkiak:** Egoera ezberdinak jaso ditugu. Zubietan herri ezberdinetako euskalkiak entzun daitezke baina batua da gehien entzuten den hizkera. Gasteizen batua da euskaraz hitz egiterakoan erabiltzen den kode bakarra eta Arrigorriagan ere antzeko egoera topatu dugu, nahiz eta zenbaiten hizkeran bizkaieraren eragina nabari da.
- 21. Hitanoa:** Hitanoari dagokionez, aurtengoan ez dugu hizkera honen arrasto handirik topatu. Realeko jokalaria gutxi batzuk lagunartean hika erabiltzen dutela esan digute eta taldekide gutxi batzuren artean erabili ohi dute.

- 22. Kirol hizkera:** Kirol jardueretan ez ditugu solasaldi edo elkarriketa luzeak jaso. Lokuzio eta esamolde motzak askoz ohikoagoak dira eta joan den urteko ikerketan ondorioztatu genuen bezala bi esparru dira nagusitzen direnak: batetik, emozioen espresioak eta, bestetik, kirol terminologia eta aginduen adierazpenak. Poza edo haserre bezalako espresioetan euskarazko esamolde askoz gutxiago agertzen dira aginduak edo azalpen teknikoetan baino, beharbada, azken hauetan entrenatzaileen eragina nabarmenagoa delako.

### **8.3. Jaurtiketa libre break etorkizuneko jokoari begira**

Saskibaloiko jokalariek partidetan bota behar dituzten jaurtiketa libreetan jokoa eten egiten da. Baloia jaurti behar duen jokalaria denbora hartu dezake: geratu, lasaitu, pentsatu, kontzentratu eta, azkenean, bota. Gure lan honetan ere, dagoeneko ikerketan jasotakoaren azterketa egin dugu eta ondorio nagusiak laburbildu ditugu. Amaitzeko, aurrera begira kirol eremuan euskararen biziberritzeari begira lagungarriak izan daitezkeen azken hausnarketak “zelairatuko” ditugu. Ideia irekiak dira aurrerantzean lasaitasunez pentsatu, findu, eztabaidatu eta zehaztu beharko dira baloia jomuga dugun horretan saskiratzeko.

#### **a. Hizkuntza-soziabilitate zaindua**

Aztertutako klubek soziabilitate espazio garrantzitsuak direla argi geratu da. *Hizkuntza-soziabilitate zaindua* gisa izendatu ditugun gunek hauek euskaraz aritzeko espazio zainduak eskaintzen saiatzen ari dira. Aipatu dugun bezala, euskararen erabileraren aldeko hizkuntza-ideologia zehatz batetik abiatuta, horren aldeko nolabaiteko hizkuntza-plangintza bat aktibatzen saiatzen direlako. Kirol-erritualaren bidez solidaritatea eta pertinentzia sentimenduak aktibatzen dira eta oinarri horietan euskara egoteak kirolari gazteen hizkuntza ohituretan eragina duelakoan gaude.

Gure ustez, hizkuntza soziabilitate zainduaren kontzeptuaren oinarriak interesgarriak izan daitezke gazteen kirol arloan euskararen inguruko plangintzak aktibatzeko. Espazio horietan osatzen diren praktika-komunitateak, batetik, ‘*gune-seguru*’ gisa funtzionatu dezakete: hiztunak euskaraz aritu daitezkeen espazioak duten gaitasunari garrantzia eman gabe. Bestetik, ‘*stepping stones*’<sup>15</sup> gisa funtzionatu dezakete: euskarazko beste gune edo baliabidetara iristeko gune gisa.

#### **b. Estrategia berri bateruntz**

Eskola eta eskolatik kanpoko espazioen artean sortutako “hutsunea” erronka garrantzitsuenetakoa dugula esan dugu. Beharbada, kirola izan daiteke hutsune horren gainean eraiki dezakegun zubietako bat. Baina horretarako estrategia ondo pentsatu behar da eta ondo aplikatu behar da.

---


<sup>15</sup> Joan Pujolar, Maite Puigdevall eta Alba Colombo Kataluniako ikerlariei hartu diegu ‘stepping stones’ ideia. Erreka bat zeharkatzeko erabiltzen ditugun harrien metaforaren irudikapena litzateke.



Orain arte gazteen kirol alorreko helburu nagusia kirolariak bilakatzea izan da eta hala jarraitzen du izaten. Hiztun bilakatzeko plangintzaren bat aktibatu izan denean lehen helburu horren ondoren jarri da martxan eta ohikoena kirolari gazteei jardura horretan euskaraz egiteko eskatzea izan da planteatu izan dena.


Gure ustez, kirolari bilakatzeko prozesua eta hiztun bilakatzeko prozesua batera eman behar dira. Bi ibilbideak uztartuak joan behar dute, txirikordatuak. Horretarako, iruditzen zaigun aurtengo egitasmoan erabili dugun hiru geruzaren planteamendua lagungarria izan daitekeela:

1. Geruza. Kirola eremu bereizitu gisa hartuta, bere logika, behar eta potentzialekin.
2. Geruza: Kluba hizkuntza zaintzarako oinarri, antolatzaile eta arduradun gisa.
3. Geruza: Taldea (praktika-komunitatea) komunikazio arlorako indargunea eta taldeko hizkuntza agentziarako lurra.



### c. Hirugarren espazioa

Kirola bihur dezakegu eskolaren hizkuntza-ideologia eta kaleko hizkuntza-ideologia arteko bitartekari. Eskolaren ereduaren jarraitzaile gisa ordez, agian une honetan hizkuntza biziberritze prozesuaren pizgarri berria izan daiteke, bederan gaztetxoek kasuan.



Kirola, beraz, hirugarren espazio izan daiteke: *Third Space*. Hainbat egilek (Cristina Aliagas (2017) eta Kris Gutierrez (2008), besteak beste) hirugarren espazioa kalea eta eskolaren artean dagoen espazio bat izendatzeko erabili dute. Hirugarren espazioa bi espazio berezitu hauen arteko egoera liminalean dago eta bateko eta besteko ezaugarriak ditu: kalea eta helduek gidatutako gune baten artean; formaltasuna eta informaltasunaren artean; jerarkia eta horizontaltasunaren artean... Hizkuntzari dagokionez ere hirugarren espazioa gune liminal batean kokatzen da bateko eta besteko hizkuntza ezaugarriak elkarlotuz eta aukera berriak sortuz.

Oraingoz modu teorikoan, bada ere, hauek lirateke kirol esparruak hirugarren espazio gisa bete ditzakeenak:

- Eskolako lanari eutsi hizkuntz aukera berriak sortuz.
- (Kaleko) informaltasuna, bizitasuna eta dinamismoa talde arauetara bideratu.
- Taldea indartu hiztunak ahalduntzeko.
- Talde izaeraren bidez talde hizkuntza euskara izaten saiatu: adostua eta landua.
- Heldu (entrenatzaile) eta gazteen arteko (hizkuntz) elkartrukea bideratu.
- Ardurak eta protagonismoak banatuz taldea eraiki, baita hizkuntz ikuspuntutik ere

#### **8.4. Kirola, hizkuntza-kultura berri baterako eremua**

Gazteen hizkuntza eremuan nabari dugun ‘hutsunea’ betetzen laguntzeko kirolak eta jokoek berrikuntzan misio bikoitza jokatu dezakete. Batetik, jokabide berrien esperimentaziorako arloa izan daitezke eta, bestetik, formatu berri baten bidez ‘kultura’ (hizkuntza kultura) berri baterako egitura eskaini dezakete. Behin eta berriro errepikatu dugu kirol esparruari atxikitzen zaizkion ezaugarriak egungo gizartean oso garrantzitsuak direla: ludikotasuna, lehia, gorputz-sasoa hobetzea eta harremanak sortzea. Hortaz, kirolean garatzen dena gizarte eta kulturaren eragin handia izango du. Horrek esan nahi du, kirol esparrua aukera edo mehatxua izan daitekeela euskararentzat, gakoa hizkuntza helburuak kirol eremura moldatzean eta egokitzean datza, oinarri teorikoak ondo finkatuz eta esku-hartze ondo planifikatuak garatuz.

Baloiaren (e)ta hitzaren gintzak  
nahiz (e)ta ez diren berberak,  
lehiaren gaindi sustatuz gero  
balioak ta manerak,  
bultzatuz gero neska-mutilen  
kirolerako aukerak,  
futbol izar (e)ta zaleen ahotan  
lekurik badu euskarak  
zuen zangoek (e)ta gure oinek  
hortxe egingo dute bat.<sup>16</sup>

<sup>16</sup> 2018ko urtarrilaren 14ean Maialen Lujanbiok Anoeta futbol partida hasi aurretik bota zuen bertsoa Realak Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazteagatik eskaini zion omenaldian.

## 9. Erreferentziak

- ALIAGAS, Cristina (2017) "Rap music in minority languages in secondary education: A case study of Catalan rap" in *Small languages and small language communities*, 248:197-224.
- ÁVILA, Angélica (1999) "La comunidad de práctica: Teorías y metodologías en investigación de lengua y género" in *Language in Society*, 28:173-183.
- BERRIO-OTXOA, Kontxesi; MARTÍNEZ, Zesar; HERNÁNDEZ, Jone M. (2003) *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 13. Eusko Jaurlaritza.
- BOURDIEU, Pierre (1985) *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madril: Akal.
- COYOS, Jean-Baptiste (2010) "Hizkuntza-ukipena" in *Soziolinguistika eskuliburua*:135-184. Soziolinguistika Klusterra.
- ECKERT, Penelope (2006) "Communities of Practice" in E. K Brown; R. E Asher; J. M. Y Simpson, *Encyclopedia of language and linguistics*, Volume 2: 683-685. Amsterdam; Oxford: Elsevier.
- FEIXA, Carles (2003) "Un antropólogo en el fútbol" in Medina, F. X. eta Sanchez, R. (ed.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*. Icaria.
- GONZALEZ, Olatz (2005) *Pelota vasca: un ritual, una estética*. Editores muelle de Uribitarte.
- GUTIERREZ, Kris (2008) "Developing a Sociocritical Literacy in the Third Space" in *Reading Research Quarterly*, 43: 148-164.
- HELLER, Monica (2006) *Linguistic Minorities and Modernity*. Continuum.
- JOLY, Lionel eta URANGA, Belen (2010) "Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak" in *Soziolinguistika eskuliburua*:185-230. Soziolinguistika Klusterra.
- KASARES, Paula (2014) *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- LERTXUNDI, Anjel (2018) "Baloia, munduaren metafora biribil hori", in *Berria*. Euskal editore, on-line kontsulta: [https://www.berria.eus/paperekoa/1924/027/001/2018-03-04/baloia\\_munduaren\\_metafora\\_biribil\\_hori.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1924/027/001/2018-03-04/baloia_munduaren_metafora_biribil_hori.htm)
- MEDINA, Xabier eta SANCHEZ, Ricardo (2003) "Hacia una antropología del deporte en España" in Medina, F. X. eta Sanchez, R. (ed.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*. Icaria.
- RUIZ, Jorge (2012) "El grupo triangular. Reflexiones metodológicas en torno a dos experiencias de investigación" in *Empiria : revista de metodología de ciencias sociales*, 24:141-162. Instituto de Estudios Sociales Avanzados (IESA-CSIC).
- ORTEGA, Ane, AMORRORTU, Estibaliz. GOIRIGOLZARRI, Jone eta URLA, Jacqueline (2016) *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea Argitalpenak.
- SELLECK, Charlotte (2016) "Re-negotiating ideologies of bilingualism on the margins of education" in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 37-6; 551-563.
- UNSAIN, Joxan (2011) *12-16 urte bitarteko nerabeen kirol-jarduera fisikoak. Lasarte Oria, 2009-2010*. Argitaratu gabeko tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- WACQUANT, Loic (2006) *Entre las cuerdas-Cuadernos de un aprendiz de boxeador*. Siglo veintiuno editores.

## 10. Eranskinak

# D EREDUKO KIROLA

---



## **10.1. Behaketarako gidoia**

### **Datu orokorrak:**

Tokia:

Eguna:

Ordutegia:

### **Behaketa egin duen pertsonaren datuak:**

Izen-abizenak:

#### **1.- Hasiera:**

(Gunera iritsi eta deskribapen orokorra egin ezazu)

1.1.- Tokiaren ezaugarri orokorrak deskribatu

1.2.- Pertsonen deskribapen orokorra (adina, generoa...)

1.3.- Nabaritzen duzun giroa

#### **2.- Sarrera**

2.1. Sartzeko/iristeko modua (banaka, binaka, taldeka...; lasai/astoratuak, helduekin datos?, bakarrik?...)

2.2. Hizkuntza: euskararen erabilera, erabilera mota egoeraren arabera, hizkera mota...

2.3. Nola zuzentzen dira bertan daudenei (agurtzen dute?, helduengana jotzen dute, beste gazteengana...)

2.4. Saioa hasi bitartean egiten dutenaren deskribapena

#### **3.- Saio dinamizatua**

3.1. Parte hartzea: nolakoa izan da? Nork hartu du parte? Nork ez du parte hartu? Parte hartzeko modu ezberdinak, protagonistak (edo liderrak).

3.2. Giroa: nolakoa da? Lasaia? Astoratua? Zerk eragiten du giro bat edo beste bat?

3.3. Harremanen deskribapena: beraien artean, dinamizatzaillearekin, entrenatzaileekin...

3.4. Gazteen hizkuntza praktiken deskribapena:

- Zer hizkuntza erabiltzen dute: dinamizatzaillearekin hitz egiterakoan, talde handian, talde txikietan, banakako elkarrizketetan...?
- Deskribatu zer oztopo eta aukerak dauden euskara gehiago edo gutxiago egiteko.
- Zer hizkera mota erabiltzen dute? (formala, informala, euskalkia, hitanoa, nahasketa...) Egoera guztietan hizkera bera al da?
- Erabiltzen dituzten esamolde/espresioak jaso (tantxetakoak, haserrekoak, aginduak, barrea, bestelakoak...)
- Kode alternantzia al dago?
- Komunikatzeko beste moduak deskribatu: gorputzarekin nola eta zer komunikatzen dute, keinuak...

3.5. Dinamizazioetan gazteen hausnarketen jasoketa: jaso gazteek aipatzen dituzten gauzak. Gazteen iritziak, usteak, zalantzak, bizipenak... jasotzea interesatzen zaigu

3.6. Genero aldagaia:

Begiratu ondorengo ardatzen inguruko informazioarik jasotzen den

(1) Hizkuntza sozializazioa eta genero sozializazioa:

- Nolakoa da arauetikiko duten atxikimendua? eta hizkuntza-arauekiko? Transgresiorako joera al dago? Aginduak betetzen dituzte? Hizkuntz aginduak?
- Euskara zaintzeko eta hitz egiteko ardura nabari zaie? Zerbait adierazten dute horri buruz? Ba al dago baten bat horretan nabarmentzen dena?

(2) Praktikak (honi buruzko informazioa 3.4. puntuan dago baina badira inetereseakoak izan daitezkeen beste puntu batzuk)

- Nolako lagun-taldeak osatzen dituzte aisialdirako: tamaina (kuadrillen partaide kopurua), neska eta mutilak nahastuta edo ez...
- Kirolaz gain zer jarduera egiten dituzte aisialdian? Antolatuak (musika, dantza, ingelesa,...) beraien kabuz egiten dituztenak (zinemara joan, kalean ibili lagunartean...)

- (3) Hizkuntza eta boterea: gaztelaniak, euskarak... prestigio handiagoa ematen du?, zer egoeran?, botere-harremanak agertzen dira hizkuntza bate do bestean erabiltzean? ZEr hizkera mota ematen du prestigio handiagoa? Hitanoa, euskalkia, batuera, informala...?

#### **4. Amaieran**

- 4.1. Ateratzeko modua (banaka, binaka, taldeka...; lasai/astoratuak...)
- 4.2. Hizkuntza: euskararen erabilera, erabilera mota egoeraren arabera, hizkera mota (euskalkia, batua, hitanoa, formala, informala...)
- 4.3. Nola alde egiten dute? Agurtzen dute? Kanpoan geratzen dira?

#### **5. Entrenatzaileekin solasalditxo**

(Amaitzerakoan entrenatzaileekin solasalditxo bat edukitzea komeniko litzateke beraien inpresioak jasotzeko)

## 10.2. Elkarrizketen gidoia

| Elkarrizketa               | Elkarrizketatuen datuak |
|----------------------------|-------------------------|
| Tokia:                     | Izen-abizenak:          |
| Eguna:                     |                         |
| Denbora:                   |                         |
| Elkarrizketa nork egin du: | Adina:                  |

### 1. Datu orokorrak

#### 1.1. Norberaren identitatea

Zenbat urte dituzue? Non bizi zarete? Beti bizi izan zarete hor?

#### 1.2. Gazte identitatea

Nolakoa da zure lagun taldea? Zenbat zarete? Neskak? Mutilak?

Nola osatzen dira kuadrillak? Bereizketa egiten al da eskolaren arabera? Kirolaren arabera? Jantzkeran ezberdintasunik bai? Estilo ezberdinak? Hizkuntza-praktiketan ezberdintasunik?

Euskara talde edo kuadrilla hauetako baten ezaugarria al da?

Zuen auzokoek (zuen adinekoek) gehiago hitz egiten dute euskaraz beste auzkoek baino?

#### 1.3. Genero identitatea

Ezberdinak al zarete neskak eta mutilak?

Gauza ezberdinak egiten al dituzue? Kirola, eskolaz kanpokoak, jaietan, jolasak, telebista, mugikorra...

Toki ezberdinetan ibiltzen al zarete?

Elkarrekin ibiltzen al zarete?



## **2. Praktikak**

### **2.1. KIROLA**

Zer kirol praktikatzen dituzue?

#### ***“KIROLA ESALDIEKIN LOTUZ” ARIKETA***

Gazte asko aritzen dira (futbolean, pilotan, saski-baloian...)? Nola dago ikusita zuen klubean jokatzeari? Prestigioa du? Lagunek esaten dizute zerbait talde horretan jokatzeari? Zerk erakarri ahal ditu zuen ustez gazteak kirol horretara? Afizioa nondik datorkizue?

Egun zein ezaugarriak eskatzen zaizkio (pilotari, futbolari, saski-baloi jokalarari) bati? Zer ezaugarri behar dira zure iritziz ona izateko? Zeri ematen diozu garrantzia? (Teknika, indarra...) Nolako kirolariak gustatzen zaizkizu? Zein? Zergatik?

Zer lantzen duzue entrenamendutan? Entrenatzaileak jatorrak dira? Ondo eramaten zarete beraiekin? Baduzue harremanik zuena ez den beste taldeekin? Nolako giroa duzuela zuen taldean esango zenukete? Eta beste taldeekin? Harreman ona dago? Ala txarra? Arduradunekin baduzue harremanik?

Entrenamendutan egoten den giroa nolakoa da zuretzat? Momentu horiek zerekin lotzen dituzue? Frontoia elkargune bezala definitu daiteke? Orokorrean, nola definituko zenuke kluba? Zein da bere ezaugarri nagusia?

Talde nortasun handia du zuen klubak? Zeintzuk dira beste taldeekin dauden/egon daitezkeen desberdintasunak? Beste taldeekin nolako harremana duzue? Badago taldeen artean elkar banatzen duten identitaterik? Zerk definitu dezake identitate hori?

### **2.2. KULTURA**

Zer kultur jarduera egiten dituzue? Musika? Dantza? Arteak?

Zer hizkuntza erabiltzen duzue bertan?

Garrantzia al dute zuen egunerokotasunean? Nolakoa?

### **2.3. GUNE BIRZIKLATUTAKO AISIALDIA**

Egon, hotza, mugitzen, aspertzen... Gustatuko litzaizueke beste modu bat edukitzea? Nolakoa?

Zer egiten duzue festetan? Asteburuetan festarik egiten al duzue?

Mugikorrek asko erabiltzen al dituzue? Denek al duzue? Institutuan? Etxean? Zergatik zigortzen zaituztete mugikorrik gabe?

Bideo-jokoetan aritzen al zarete? Nola? Bakarrik?

Musika. Gustukoak dituzuen taldeen izenak? Edo abestiak?

Telebistan zer ikusten duzue? Askok ikusten al duzue? Txikitik baino gehiago?

Zineman zein izan da ikusi duzuen azken filma?

## **2.4. BEREZKO GUNEAK**

Zuen adinekoek lokaletan ibiltzen al dira? Tabernetan?

Gustatuko al litzaizueke lokala edukitzea?

## **3. Hizkuntza**

### **3.1. Hizkuntza-praktikak**

Zeinekin hitz egin duzue gaur arratsaldean? Zer hizkuntzan?

Nola idazten dituzue mugikorrek mezuak? Idatziko elkarrizketa tipikoa?

Zer ikastetxean zbiltza? Zer ereduari? Etxean/kalean euskaraz egiten duzue?

Duela lau urte euskaraz gehiago egiten al zenuten? Zergatik?

Haurrek zuek baino euskara gehiago egiten dute? Eta helduek?

Nola moldatzen zarete hobeto? Euskaraz? Gaztelaniaz? Egoera guztietan?

Zuen artean erdaraz egiteko joera duzue?. Zergatik gertatzen da hori?

Berdin hitz egiten duzue lagunekin eta helduekin? Eta begiraleekin?

Zer hizkuntzarekin lotzen duzue futbola? Zergatik?

Beste kirolak zer hizkuntzan? Arrauna? Saskibaloia? Pilota? Eskubaloia?...

Erabiltzen duzue euskara entrenamenduetan? Partidetan? Bidaletan?

Klubean zein da euskararen presentzia?

Berdin hitz egiten al duzue mutilekin? Neskekin?

Ezberdin hitz egiten al dute neskek? Mutilek? Hitz edo esamolde ezberdinak erabiltzen dituzue?

Gehiago hitz egiten al dute mutilek? Neskek?

Euskaraz zeintzuk hitz egiten dute gehiago? Zergatik?

Zertaz hitz egiten dute batzuk eta besteek?

Nahasten al dituzue hizkuntzak? Elkarrizketa asimetrikoak erabiltzen al dituzue? Batek euskaraz esan eta besteak erdaraz erantzun denbora guztian.

Hika erabiltzen al duzue? Zuen inguruko norbaitek erabiltzen al du? Zertarako?

### **3.2. Hizkuntza-pertzepzioak, ideologia, prestigioa...**

#### ***“HIZKUNTZAK ESALDIEKIN LOTUZ” ARIKETA***

Gaztelaniaz hitz egitea gustatzen al zaizue? Ingelesez? Euskaraz? Zergatik?

Gaztelaniak, euskarak... prestigio handiagoa ematen du?, zer egoeran?

Zer hizkera mota ematen du prestigio handiagoa? Hitanoa, euskalkia, batuera, informala...?

Ba al dago toki edo jarduera bat euskararekin lotzen duzuen?

Gauza guztietarako balio al du euskara? Adibideak: arbitroa iraintzeko, lagunak zirikatzeke, haserretzeko, gauza politak esateko, txisteak kontatzeko...

Euskaraz hitz egin behar dela uste duzue? Zergatik?

Nola sentitzen zarete zure ingurukoek euskaraz egiten ez dutenean?

Nola sentitzen zarete helduek (edo adinkide batek) “euskaraz hitz egin” esaten dizuetenean?

Taldean ba al dago norbait “euskaraz egin!” esaten aritzen dena?

Zer esango zeniekete helduei euskarari buruz? Eta agintariei?

Zer irakasle izan dituzue? Emakumeak? Gizonezkoak?

Uste duzue neskek ardura gehiago dutela euskararekiko?

Neskei gehiago esaten al zaie euskaraz egiteko?

Neskek gehiago esaten al dute “euskaraz egin!”? Helduek? Gazteek? Zergatik?

### 10.3. Esku-hartze zehatza klubetan

# D EREDUKO KIROLA



*ESKU-HARTZEAREN ERANSKINA*

### 10.3.1. Esku-hartzearen programa

## Kirola, komunikazioa eta euskara<sup>17</sup>

|                                                                                  |
|----------------------------------------------------------------------------------|
| <b>GAIA:</b>                                                                     |
| Komunikazioak kirol arloan duen garrantzia eta euskarak kirolean duen presentzia |
| <b>ADINA:</b>                                                                    |
| 12-18 urte                                                                       |
| <b>SAIO KOPURUA</b>                                                              |
| 8 (ordu erdiko saioak)                                                           |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>AZKEN XEDEA:</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p>Kirola egungo gizartearen eta kulturaren osagai garrantzitsua da eta norbanakoen eta giza-taldeen bizitzetan eragin nabarmena du. Kirol eskaintza eta aniztasuna handia da eta gizarte-diskurtsuetan eta iruditegian kirol-jarduera fisikoaren praktika ezaugarri positiboekin lotua ageri da. Kirola aisialdiko aukera oso garrantzitsua bihurtu da eta azken urteetan egin diren hizkuntza ikerketetan (Arrue, 2011) agerian geratu da haur eta gazteen artean eskola orduz kanpoko jardueretako euskararen erabilera faktore giltzarria dela erabilera ohiturak finkatzeko eta erabilera bera handitzeko.</p> <p>Bestalde, komunikazioak kirolari edo talde baten errendimendua hobetzen du. Komunikazioak talde-lana, motibazioa eta konfiantza garatzen laguntzen du eta antsietatea murrizten du. Komunikazio egoki batek taldeen dinamika, taldearen helburuen lorpena eta taldekideen hobekuntza pertsonala hobetzen du.</p> <p>Sekuentzia honetan kirola, komunikazioa eta hizkuntza uztartzen saiatuko gara. Komunikazioak kirol jarduna hobetzeko duen garrantzia aztertu ondoren, komunikazioa hobetzeko prozesuan euskararen presentzia handitzeko proposamenak garatuz.</p> |
| <b>HELBURUAK:</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <ol style="list-style-type: none"><li>1. Komunikazioa erabili eta horren konpetentzia garatu kirolari (bakarka) edota talde gisa errendimendua hobetzeko. Beti ere kontuan hartuta, komunikazioak talde lana eta motibazioa hobetzen dituela.</li><li>2. Komunikazioa hobetzeko prozesuan euskarari lehentasuna/bidea eman kirol esparruan. Kirol esparruan parte hartzen duten eragile ezberdinekin (entrenatzaile, taldekideak, arduradunak, ikusleak...) eroso eta beldurrik gabe euskaraz komunikatzeko aurrerapausoak ematea. Dauden zailtasun eta zalantzak gainditzeko pausuak ematea.</li><li>3. Prozesuan zehar sortutako gogoetak, izandako esperientziak eta ikasitakoa beste gazte batzuekin partekatzea.</li></ol>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |

<sup>17</sup> Unitate hau "D ereduko Kirola" egitasmoarako prestatu dugu. 2016an egitasmo horretan egindako ikerketaren txostena abiapuntutzat hartuta "Tribuaren Berbak" izeneko material didaktikoan oinarritu gara.

## JARDUERAK HELBURUEKIN

| EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA (Berotze unea) |                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|---------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1                                                 | 1. Behaketarako gidoia<br>2. JARDUERA: Aurkezpena<br>3. JARDUERA: Taldearen posterra | - Lanketaren helburua azaldu eta euren parte hartzea eskatu.                                                                                                                                                                                                                          |
| LEHEN FASEA (Komunikazioa kirolean)               |                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 2                                                 | 4. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia<br>5. JARDUERA: Kirolaren eragileak          | - Komunikazioak kirolean duen garrantzia eta onurak ezagutu eta horren jabe egin.<br>- Komunikazioa kirolean zertan datzan ezagutu: zein elementu dauden jokoan (hitza, gorputza...) eta zein eragilek parte hartzen duten (entrenatzaileak, kirolariak, antolatzaileak, gurasoak...) |
| 3                                                 | 6. JARDUERA: Eragileen komunikazioa                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 4                                                 | 7. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa<br>8. JARDUERA: Jendeaurrean hizketan    | - Kirolari gisa nola komunikatzen garen aztertu<br>- Jendeaurrean hitz egiteko aholkuen lanketa                                                                                                                                                                                       |
| BIGARREN FASEA (euskara kirolean)                 |                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 5                                                 | 9. JARDUERA: Geure buruari galdezka                                                  | - Kirol arloan euskarak duen tokia eta papera aztertu<br>- Beste hizkuntzekin alderatuta euskara non, noiz eta nola erabiltzen den ikusi.                                                                                                                                             |
| 6                                                 | 10. JARDUERA: Euskara kirolean<br>11. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen        | - Gure kirol eremuan erabiltzen ditugun esamoldeak jaso.<br>- Kirol esparruko esamoldeen hiztegia osatu<br>- “Kirol hiztegi gaztea” partekatu eta zabaltu.                                                                                                                            |
| 7                                                 | 12. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz<br>ERRONKA                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 8                                                 | 13. JARDUERA: Proiektuak elkarrekin partekatuz                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                       |

## JARDUERAK DINAMIKEKIN

| <b>EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA (Berotze unea)</b> |                                                                                      |                                                                                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1                                                        | 1. Behaketarako gidoia<br>2. JARDUERA: Aurkezpena<br>3. JARDUERA: Taldearen posterra | Ahozko azalpen laburra proiektuaren ingurukoa.<br>Taldearen posterra egiteko argazkia eta horren inguruko galderak                                                                                  |
| <b>LEHEN FASEA (Komunikazioa kirolean)</b>               |                                                                                      |                                                                                                                                                                                                     |
| 2                                                        | 4. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia<br>5. JARDUERA: Kirolaren eragileak          | Ahozko azalpen laburra eta irudien bidezko komunikazio on/txar<br>Eragileen bi horma-irudiak. Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan eragile ezberdinak kokatu (entrenamenduetan + partidetan) |
| 3                                                        | 6. JARDUERA: Eragileen komunikazioa                                                  | Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan:<br>- komunikazioaren nolakoa den irudikatu tamaina ezberdineko gezien bidez<br>- Zer komunikatzen den jarri: animoak, haserrea, tristura, aginduak...  |
| 4                                                        | 13. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa<br>14. JARDUERA: Jendeaurrean hizketan  | Banakako profila zehaztuz: kromoa eta prentsaurrekoa<br>Jendeaurrean hitz egiteko aholku zerrenda (bideoen bidez)                                                                                   |
| <b>BIGARREN FASEA (euskara kirolean)</b>                 |                                                                                      |                                                                                                                                                                                                     |
| 5                                                        | 15. JARDUERA: Geure buruari galdezka                                                 | Gure kirol arloan euskarak duen tokia eta papera aztertu lau galderen bidez.                                                                                                                        |
| 6                                                        | 16. JARDUERA: Euskara kirolean<br>17. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen        | Kirolean euskararen presentzia zein den ikusi bideoen bidez.<br>Gure kirol eremuan erabiltzen ditugun esamoldeak jaso.                                                                              |
| 7                                                        | 18. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz<br>19. ERRONKA                             | Kirol esparruko esamoldeen hiztegia osatu ondoren, erronka bat proposatu euskarazko esamolde gehiago erabiltzeko.                                                                                   |
| 8                                                        | 20. JARDUERA: Proiektuak elkarrekin partekatuz                                       | Gune konpartitua egindakoa aurkezteko eta zabaltzeko.                                                                                                                                               |

## 1. JARDUERA: Aurkezpena

Lehen jarduera honetan proiektu honetan parte hartuko duten entrenatzaileekin eta kirolariek informazio bilera bat egingo dugu. Azalpen labur baten bidez (10 minutukoa) zertan arituko garen eta zertarako den egitasmoa azalduko diegu. Jarraian agertzen diren edukiak dira azaldu beharrekoak (kirolarien adinaren arabera eta hitz egingo duen bakoitzaren arabera moldatuta):

*Kirola egungo gizartearen eta kulturaren osagai garrantzitsua da eta norbanakoen eta giza-taldeen bizitzetan eragina nabarmena du. Kirol eskaintza eta aniztasuna handia da eta gizarte-diskurtsuetan eta iruditegian kirol-jarduera fisikoaren praktika ezaugarri positiboekin lotua ageri da.*

*Bestalde, komunikazioak kirolari edo talde baten errendimendua handitzen du. Komunikazioak talde-lana, motibazioa eta konfiantza hobetzen du eta antsietatea murrizten du. Komunikazio egoki batek taldeen dinamika, taldearen helburuen lorpena eta taldekideen garapen pertsonala hobetzen du.*

*Kirol-taldeekin garatu nahi dugun lanketa honetan komunikazioa, hizkuntza eta kirola uztartzen saiatuko gara. Komunikazioak kirol jardunean duen garrantzia aztertu ondoren, komunikazioa hobetzeko prozesuan euskararen presentzia handitzeko proposamenak garatuz.*

*Joan den urtean egitasmoa abiatu genuen eta nagusiki bi gauza egin genituen: entrenatzaile batzuei elkarriketak egin eta entrenamendu eta partida batzuetan behaketak egin. Hortik informazio pilo bat jaso genuen eta oso interesgarria izan zen. Aurten, urrats berri bat eman nahi dugu eta kirolari gazteekin egon nahi dugu. Hauen ahotsa entzun nahi dugu, iritziak, usteak, zalantzak... Garrantzitsua iruditzen zaigu euren ikuspuntua jasotzea.*

*Ez gara etorri hizkuntza kontuetan eta komunikazio kontuetan beraiek zer eta nola egin behar duten esatera. Beraiekin batera ikasi nahi dugu. Pista batzuk jaso nahi ditugu jakiteko komunikazioa nola hobetu daitekeen kirolean eta baita euskararen erabilera nola handitu daitekeen. Guk ideia batzuk baditugu (gauzak irakurri ditugu, iaz egin genuen lanean ere gako batzuk jaso genituen) baina gauza horiek guztiak kirolari gazteekin kontrastatu nahi ditugu.*

*Egingo dugun lanketa ahalik eta praktikoena izatea nahi dugu. Gu ez gara irakasleak eta hau ez da eskola moduko zerbait izango. Beraz, saio dinamikoak eta motzak izango dira, ordu erdikoak. Lau talderekin arituko gara eta une batean elkartzeko asmoa dugu. Guztira, 8 egunetan etorriko gara saio hauek egitera. Hilabetearen behin edo gehienez bitan izango dira. Urrian hasi eta martxoan bukatuko dugu.*



Hau azaldu eta gero beraien iritzia eskatuko diegu eta ea prest dauden parte hartzeko galdetuko diegu. Garrantzitsua da euren konpromisoa jasotzea.

## **2. JARDUERA: Taldearen posterra**

Aurreko jardueran azaldu dugun bezala, egitasmo honetan guretzat kirolari gazteak dira garrantzitsuak. Beraien iritzia eta jarduerak interesatzen zaizkigu eta horri begira lehen proposamena bideratuko diegu: taldearen posterra edo horma-irudia egitea.

### **2.1. Banakako fitxa**

Kirolari bakoitzari orri bana banatuko diegu. Orriaren alde batean zenbaki handi bat idatzita egongo da: 1,2,3... Atzealdean betetzeko datu batzuk agertuko dira, honako hauek:

*Izen-abizenak:*

*Adina:*

*Bizilekua (herria):*

*Gustukoa dituen hiru kirolariren izena: 1....., 2....., 3.....*

### **2.2. Izenak gorputz perkusio bidez**

Fitxa bete eta gero taldekideen izenak esateko dinamika bat proposatuko diegu: Dinamizatzailerak eskuak eta izterrak joaz gorputz perkusio bidezko mugimendu sorta bat asmatuko du tartean isilune bat erantsiz, hartara kirolari bakoitzak bere izena orduan ozen esan dezan. Horrela jarraituko dugu den-denek izenak entzun arte. Gorputza astinduz, izenak ikasteko aukera baliatzeaz gain, gazteak biziarazteko oso jolas aproposa da hau.

### **2.3. Talde argazkia**

Ondoren talde argazkia ateratzeko gonbidapena luzatuko diegu. Aipatuko diegu gure txikitako horma-irudien inguruko oroitzapenak (ahal bada baten bat erakutsiko diegu) eta galdetuko diegu ea beraiek ba ote duten posterrak euren logeletan eta kontatzeko ze horma-irudiak diren.

Jarraian argazkia aterako diegu. Bi argazki atera behar ditugu:

1. Denak batera kirol horma-irudien estiloan
2. Dauden bezala baina bakoitzak hasieran bete duten fitxa eskuan dutela (zenbaki handia agerian).

Hurrengo saioan posterra ekarriko dugula esan eta gero, eskerrak emango dizkiegu eta agurtuko gara.

Hirugarren jarduerarako taldearen posterra prestatuko dugu. Formatu hau emango diogu:



### 3. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia

Giza harreman guztietan bezala kirol esparruan ere komunikazioak funtsezko garrantzia du kolektiboaren ulermenerako eta talde dinamika egokirako. Komunikatzea bi edo norbanako gehiagoen arteko lotura erreal baterako mezuak elkar banatzea da. Kirolean komunikatzea elkar ulertzea da. Nire taldekideak baloia pasako al dit?, noiz pasako dit?. Bikotekideak pilota pasatzen utziko al dio?, Nik eman beharko diot?. Nire taldekidea aurreratuko da? Atzeratuko da?. Galdera horiek, eta beste askoz gehiago, erantzuten dira komunikazio egokiaren bidez. Kirol arloko beste gauzak bezala komunikazioa ere entrenatu behar da, prestatu, ikasi... Jokaldi bat oso entseiatua egon arren, ez da ondo aterako ez bada ondo komunikatzen.

Komunikazioak kirolari edo talde baten errendimendua hobetzen du. Komunikazioak talde-lana, motibazioa eta konfiantza hobetzen du eta antsietatea murrizten du. Komunikazio egoki batek taldeen dinamika, taldearen helburuen lorpena eta taldekideen hobekuntza pertsonala hobetzen du. 2016-2017an egin genuen ikerketan hau agerian geratu zen:

*(16.ondorioa) Talde kirolean komunikazioa oso garrantzitsua dela jaso ahal izan dugu. Jokalarien artean komunikazio zuzena eta etengabekoa edukitzea kirol emaitzarako sekulako abantaila omen da. Horregatik, entrenamenduetan lantzen den arlo garrantzitsua izaten da, eta adinean gora joan ahala handitzen eta hobetzen den kontua da.*

Jarduera honetan adibide zehatz batzuk ikusiko ditugu. Komunikazio ona eta komunikazio txarra erakusten duten bideo batzuk ikusiko ditugu. Bikotekan erabaki beharko dute egoera horien artean zein diren komunikazio ona adierazten dutenak eta

zein komunikazio txarra adierazten dutenak. Bideoetan komunikazio forma ezberdinak agertzea komeni da: gorputza, keinua, ahotsa... erabilera agerian geratzen diren egoerak.

Bikoteka jartzeko eskatuko diegu eta bikote bakoitzari orri bana emango diegu honako taularekin:


|   | Komunikazio ona | Komunikazio txarra | Komunikazio mota (ahotsa, gorputza, keinuak...) |
|---|-----------------|--------------------|-------------------------------------------------|
| 1 |                 |                    |                                                 |
| 2 |                 |                    |                                                 |
| 3 |                 |                    |                                                 |
| 4 |                 |                    |                                                 |
| 5 |                 |                    |                                                 |
| 6 |                 |                    |                                                 |
| 7 |                 |                    |                                                 |


Bideoak ikusi eta gero bikote bakoitzak jarri duena elkar banatuko dugu. Bideoak berriz ikusiko ditugu eta adostasuna ote dagoen ikusteaz gain, jarri dutena zergatik jarri duten galdetuko diegu (hau da, “ona” dena zergatik da ona eta “txarra” dena zergatik da txarra). Komunikazio mota ezberdinen inguruan ere hitz egiteko eskatuko diegu (noiz erabiltzen da bat edo bestea, zergatik...). Une horretan garrantzitsua da azpimarratzea komunikazioak zer garrantzia duen kirol emaitza onak lortzeko.

#### 4. JARDUERA: Kirolaren eragileak

Komunikazio prozesuan elementu ezberdinak hartu behar dira kontuan eta oso garrantzitsua da komunikazio agenteak zein diren zehaztea. Kirolean komunikazio agenteak 5 izan daitezkeela aipatzen da: (1) Entrenatzaileak (2) Kirolariak (3) Aurkariak (4) Ikusleak (5) Bestelakoak (epaileak, antolatzaileak...).

Taldekidetza eskatuko diegu eragile hauek identifikatzeko eta partidetan eta entrenamenduetan kokatzeko. Horretarako, bi horma-irudi handi ekarriko ditugu. Biak joko-zelaiak irudikatzen dituzten panelak izango dira. Honelakoak:





Paneletan eragile ezberdinak kokatu behar dituzte. Horretarako guk irudi batzuk banatuko dizkiegu:

1. Entrenatzaileak: entrenatzaile ezagun baten argazkia
2. Jokariak: aurreko saioan taldearen posterra
3. Aurkariak: kirol talde ezagun baten irudia
4. Ikusleak: ikusle talde baten argazkia
5. Antolatzaileak: kirol talderen baten arduradunen irudi bat
6. Epaileak: epaile ezagun baten irudia

Guztira 12 irudi egongo dira: 6 irudi entrenamenduaren panelerako eta beste 6 irudi partidaren irudirako. Aurreko jardueran (3. Jarduera) bikoteka antolatu ditugunez, honetan ere horrela jarraitzeko eskatuko diegu. Bikote bakoitzari irudi bana emango diegu eta panel batean kokatzeko eskatuko diogu. Irudi guztiak kokatuta daudenean ezberdintasunak komentatuko ditugu.

Hurrengo saioan panelak berriz ekarriko ditugula eta osatzen jarraituko dugula adierazi ondoren, eskerrak eman eta agurtuko gara.

## 5. JARDUERA: Eragileen komunikazioa


Aurreko saioan kirolean komunikazioak duen garrantzia aztertzearekin batera, kirol-komunikazioan parte hartzen duten eragileak kokatu genituen. Gaurkoan, panel horiek osatu nahi ditugu komunikazioa nolakoa izaten den ulertzeko. 2016-2017an egin genuen ikerketan agerian geratu zen komunikazioaren nolaketasuna:

(17. *ondorioa*) Ahozkoa da kirol hauetako komunikatzeko era garrantzitsuenak, eta noranzko nagusia entrenatzaileengandik gazteenganakoa da. Entrenamenduetan eta partidetan entrenatzaileak etengabe aginduak ozen ematen dituzte, eta maiz banakako iruzkin edo elkarriketak dituzte jokalariekin.

*(18. ondorioa) Dinamika hau zertxobait aldatzen da esku-pilotaren kasuan. Talde-kirola ez denez, eta askotan binaka jokatu behar dutenez, hizkuntza-dinamika ezberdina da. Bikotekideen artean gehiago hitz egiten dute, eta kexa, protesta, ospakizunak adierazteko esamoldeak gehiagootan entzuten dira.*

(19. ondorioa) Futbolean eta eskubaloian atezainaren ahozko jarduna oso garrantzitsua da. Atezainak du jokoaren ikuspegi zabalena, eta taldekideei informazio, agindu eta aholkuak eman behar dizkie.

Taldeak osatuko ditugu (launaka edo bosnaka) eta 3.jardueran osatu zituzten panelen kopiak banatuko dizkiegu. Talde batzuk entrenamenduaren panela edukiko dute, besteek partidena. Bestalde, gezi ezberdinak banatuko dizkiegu. Honelakoak:



Gezi hauek kokatu behar dituzte eragileen artean. Norantzak adierazten du nork komunikatzen dion nori (adibidez, entrenatzaileak kirolariari). Gezien lodierak adierazten du komunikazioaren garrantzia (adibidez, entrenatzaileek asko komunikatzen badiete kirolariei gezi potoloa jarriko dute). Talde guztiek amaitu dutenean panel handiak osatuko ditugu taldeetan egindakoa batera jarriz.

Jarraian, komunikatzen dena paneletan jartzeko eskatuko diegu. 2016-2017ko ikerketan ondorio hau atera genuen:

*(20. ondorioa) Behatu ditugun entrenamendu eta partidetan ez dira elkarrizketa luzeak ematen eta emozioekin, aginduekin eta animoekin lotutako lokuzioak nagusitzen dira. Kirol jardunaren intentsitateak emozioak azalarazteko balio du (entrenatzaile eta gazteen aldetik). Halakoetan, emozioak adierazten dituzten esamoldez betetzen da hizkuntza-jarduna. Bi motatakoak izaten dira, batetik animoak eta aginduak; bestetik, haserre eta poza adierazteko esamoldeak.*

Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan, beraz, kirolean komunikatzen diren espresio motak kokatuko dituzte. Horretarako, honelako irudiak banatuko dizkiegu:



Gazte bakoitzari horrelako bina emango diogu eta paneletan kokatzeko eskatuko diegu (Post-it formatuan). Panelak osatuz gero komentatzeko aukera emango diegu eta eskerrak eman ondoren agurtuko gara.

Kirol arloan aplikatu daitezkeen hainbat estategia komunikatiboak azalduko dizkiegu. Berez, entrenatzaileei begirako estategiak dira baina kirolariek entzutea ere interesgarria izan daiteke beraiek ere komunikazio-agenteak baitira.

Estrategien zerrenda dokumentu honetan daude: *Hainbat estategia komunikatiboak*

## 6. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa

Eragileak aipatu genituenean bat “ahaztu” zitzaigun. Egia esan, ez zitzaigun ahaztu baina ez zaigu iruditzen zuen kategorietan hainbesteko pisua duenik, nahiz eta adinean gora joan ahala sekulako garrantzia izaten duen: kazetariak.

Kirolariek hedabideen arreta izaten dute. Prentsak, irratiak eta telebistak tarte handia eskaintzen diote kirol informazioari eta kirolarien hitzak jasotzea oso ohikoa da eta garrantzitsua da kirolariek ondo komunikatzen jakitea. Beharbada, prentsaurrekoa izaten da irudi ohikoena: partida baten aurretik eta ondoren kirolariak kazetarien galderei erantzuten dituzten prentsaurrekoak.

Jarduera honetan, prentsaurreko bat irudikatuko dugu. Hasteko hiru boluntario eskatuko ditugu prentsaurrekoan erantzuten parte hartzeko. Gainontzeko gazteak kazetari lanetan arituko dira. Guk galdera zerrenda bat prest eramango dugu eta “kazetari” bakoitzak galdera horietako bat aukeratuko du eta beste bat sortu beharko du. Modu horretan “kazetari” bakoitzak bina galdera edukiko ditu. Galderak mota ezberdinekoak izatea komeniko litzateke: batzuk kirol jardunarekin lotuta baina ez denak. Umore puntu bat sartzeko batzuk kirolarekin zerikusia ez duten galderak izan daitezke (adibidez, zer nahiago duzu patata tortilla edo kroketak jatea?, zergatik?) Hauek dira guk eramango ditugun galdera batzuk:

- *Zer moduz doa aurtengo sasoia? Espero zenuten emaitzak lortzen ari al zarete?*
- *Gustura al zaude egiten ari zaren lanarekin?*
- *Entrenamenduak gogorrak izaten ari al dira? Zein da entrenamenduetan gogokoen duzun ariketa?*
- *Nolako harremana duzu zure taldekideekin? Asko hitz egiten duzu eurekin? Noiz? Nola?*
- *Partidetan ondo komunikatzen al zarete?*
- *Zein da partidetan gehien hitz egiten duena? Zer nolako hitzak botatzen ditu?*
- *Ba al duzue abesti edo esamolderen bat partidak hasi aurretik taldea animatzeko?*
- *Nola ospatzen dituzu golak?*
- *Haserretzen zarenean zer egiten duzu? Zer esaten duzu?*
- *Zer iritzia duzu zuen partidetako ikusleen inguruan? Zein ohiu dira gehien errepikatzen direnak?*
- ...

Behin galderak prest daudela prentsaurrekoa antzeztuko dugu. Dinamizatzaileak kirol taldearen prentsa arduradun papera hartuko du eta “kazetariei” galderak luzatzeko gonbidapena egin eta gero berak koordinatuko du galderen txanda.

(Dinamika honek baliagarria izan beharko luke gero saioetatik kanpo zenbait kirolari elkarriketatzeko. Kirol taldeei eskatuko genieke beste une batean joan ahal izatea zenbait gazte elkarriketatu ahal izateko)

## 7. JARDUERA: Jendeaurrean hizketan

Aurreko jarduerari buruzko balorazio kolektiboa egingo genuke jendeaurrean hitz egiteak ekartzen dituen zailtasunak denon artean komentatzeko. Ondoren, Tribuaren Berbak material didaktikotik bideo batzuk jarriko ditugu (*Jendeaurrean* sekuentziatik). Denboraren arabera aukeratu beharko dira zenbat bideo jarri baina hauek izan daitezke egokienak:

*Jendeaurrean. 2.Jarduera: Zergatik diogu beldurra jendeaurrean hitz egiteari? (Manu Etxezortu)*

*Jendeaurrean. 4.Jarduera: Jendeaurreko hizketaren garrantzia (Manu Marañón)*

*Jendeaurrean, 9.Jarduera: Zenbait gomendio (Maite Artola eta Joxerra Gartzia)*

## 8. JARDUERA: Geure buruari galdezka

Orain arte, komunikazioak kirol arloan duen garrantziaz aritu gara eta hainbat gako ikusi ditugu komunikazioa hobetuz kirol errendimendua hobetzeko. Datozen jardueretan komunikazio horretan euskarak duen papera eta tokia aztertuko dugu.

Hasteko gure ohiko kirol jarduera aztertuko dugu eta beste hizkuntzekin alderatuta euskara non, noiz eta nola erabiltzen dugun ikusiko dugu. Guztira lau galdera luzatuko dizkiegu; lehen bi galderak banaka bete beharko dituzte paper banatan, hirugarren eta laugarren galderak erantzuteko panel handi bana jarriko dugu gelan.

### 1. Zein hiztun mota gara?

Ondorengo laukia osatu beharko dute (erabaki beharko da ea lauki osoak betetzeko eskatuko diegun – trebetasun linguistiko guztietan kokatzeko eskatuz- ala galdera bakar bat izango den)

|                                                                 | Ahozkoa<br>ulertu | Hitz<br>egin | Idatzizkoa<br>ulertu | Idatzi |
|-----------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|----------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz<br>gaztelaniaz/frantsesez baino  |                   |              |                      |        |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez<br>berdintsu moldatzen naiz |                   |              |                      |        |
| Gaztelaniaz/frantsesez hobeto<br>moldatzen naiz euskaraz baino  |                   |              |                      |        |



## 2. Non egiten dugu?

Ondorengo laukia osatu beharko dute:

|                               | Nagusiki edo ia beti euskaraz | Bi hizkuntzetan berdin | Nagusiki edo ia beti gaztelaniaz /frantsesez | Oharrak |
|-------------------------------|-------------------------------|------------------------|----------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                    |                               |                        |                                              |         |
| Anaia-arrebekin               |                               |                        |                                              |         |
| Ikaskideekin gelan            |                               |                        |                                              |         |
| Ikaskideekin gelatik kanpo    |                               |                        |                                              |         |
| Kuadrillan                    |                               |                        |                                              |         |
| Whatsapp, Instagram...        |                               |                        |                                              |         |
| Kirol taldekideekin           |                               |                        |                                              |         |
| Beste taldeetako jokalariekin |                               |                        |                                              |         |
| Entrenatzaileekin             |                               |                        |                                              |         |
| Epaileekin                    |                               |                        |                                              |         |
| ...                           |                               |                        |                                              |         |


Lehen bi galdera hauen emaitzak ez ditugu talde handian komentatuko. Jasoko ditugu eta datorren saioan aipatuko ditugu emaitza nagusiak. Hirugarren eta laugarren galderen erantzunak, ordea, denon artean egiteko dira eta hitz egiteko tarteak utziko dugu.

## 3. Zenbat hizkuntza dakizkigu?

Koloretako gometxak banatuko dizkiegu: berdea (euskara), horia (gaztelania), urdina (frantsesa), gorria (ingelesa), beltza (beste hizkuntzak). Gazte bakoitzak jarri beharko ditu euren gometxak dagokion tokian. Gometxak hiru tamainakoak izango dira:

- Handia: hizkuntza hori ulertzeko eta hitz egiteko arazorik ez dut
- Ertaina: hizkuntza hori ulertzen dut eta zerbait hitz egiten dut, baina ez ondo.
- Txikia: Hizkuntza hori pixka bat ulertzen dut, baina ez dakit hitz egiten

Panelak honelako itxura edukiko luke:




#### 4. Zer diote gutaz?

Kirol arloan aurreiritziak egotea oso ohikoa da. Talde bakoitzari eta bere kideei ezaugarri batzuk egozten dizkiegu, maiz hala diren ala ez gehiegi kontrastatu gabe. Hizkuntzarekin ere antzeko gertatzen da, gurea bezalako testuinguruan taldeak hizkuntza batekin edo bestearekin lotzen ditugu. Panel honetan aurkariak dituzten taldeen izenak jarriko ditugu eta talde bakoitzari bi hitz jartzeko eskatuko diegu (denok batera):

- Ezaugarri nagusia: onak, txarrak, jatorrak, tranpatiak...
- Hizkuntza: euskara, gaztelania, biak...

Talde guztien hitzak amaitu ondoren alderantzizko ariketa egiteko eskatuko diegu. Nola iruditzen zaizue ikusten zaituztetela beste taldeek zuei?

Panelak honelako itxura edukiko luke:



#### 9. JARDUERA: Euskara kirolean

Aurreko jarduerari buruzko balorazio kolektiboa egin ondoren Tribuaren Berbak material didaktikotik bideo batzuk jarriko ditugu euskararen presentzia kirolean zein den ikusteko. Denboraren arabera aukeratu beharko dira zenbat bideo jarri baina hau izan daiteke egokiena:

*Zein da euskaraz kirol jardueran duen presentzia (1:48)*

*Euskal Kirolari: Kepa eta Iñigo Martinez*

*Jose Angel Iribar: Euskararen bilakaera kirolean*

*Abel Barriola: Kirolariek euskaraz hitz egiteak duen eraginaz*

#### 10. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen

Jarduera honetan gazte kirolariak talde txikitan bilduko dira. Talde bakoitzean euren kirol praktikan erabiltzen dituzten esamoldeak zerrendatu beharko dituzte: zer esamolde erabiltzen ditugu kirolean... animoak emateko? Kexatzeko? Laguneei gauzak esateko? Jokaldiekin lotutakoak?. Bostgarren jardueran lehen jasoketa bat egin genuen eta oraingoan egun horretan jasotakoak ekarriko ditugu gaika ordenatuta. Ahalik eta zerrenda luzeenak osatzea litzateke gaurko helburua. Gaiak hauek dira:



Taldeka egindako zerrendak jasoko ditugu eta hurrengo egunerako zerrenda bakar bat osatuko dugu bildutako esamolde guztiekin. Horretaz gain, guk euren entrenamendu eta partiduetako behaketetan jasotako esamoldeak ere gehituko ditugu.

#### **11. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz eta entrenamendua euskaraz**

Esamoldez osatutako kirol hiztegi bat osatu nahi dugu. Euskarazko hiztegi bat litzateke eta orain arte bildutako esamoldeak izango da horren oinarria. Jarduera honetan kirolari gazteen laguntza eskatuko dugu. Helburua litzateke, euskarazko esamolde kopurua handitzea eta horretarako denon artean gaztelaniaz erabiltzen ditugunak euskaraz nola jarri daitezkeen pentsatu beharko genuke.

Sei talde egingo ditugu eta talde bakoitzari gai bat emango diogu. Gai horretan gaztelaniaz gehien erabiltzen diren esamoldeak euskaraz nola esan daitezkeen asmatzeko eskatuko diegu.

#### **Erronka**

Esamoldeekin lotutako erronka bat proposatuko diegu. Taldearen arabeko erronka izango da. Bi aukera hauek aurreikusten ditugu:

1. Erronka: ENTRENAMENDU OSO BAT (edo bi) EUSKARAZ EGITEA:  
Helburua Kirol Hiztegi Gaztea oinarri hartuta entrenamendu oso bat euskaraz garatzea litzateke.
2. Erronka: ENTRENAMENDU BATEAN (edo gehiagotan) ESAMOLDE BATZUK ERABILTZEA:  
Kirol Hiztegi Gaztean dauden esamolde batzuk (beraiek erabaki beharko dute zenbat) erabiltzea datozen asteetan.

Entrenatzaileen laguntza ere eskatuko dugu errefortzu lana egiteko. Entrenatzaileen paperak hiru gako hauek izango ditu:

1. Erabakitako esamoldeak erabili eta erabiltzera animatu.
2. Errefortzu positiboa eskaintzea (zoriontzea erabiltzen dituztenean)
3. Intentsitatea galtzen denean erronka gogoratu.

Hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela ikusarazteko dinamika bat da honako hau. Kirolari gazteei errotuta dauden ohiturak aldatu daitezkeela adierazi nahi diegu praktika zehatz honen bidez.

**Erronkaren bideo bat** grabatzeko proposamena ere luzatuko diegu. Tutorial moduko bideo bat litzateke azalduz entrenamendu baten atal ezberdinak eta bertan erabiltzen dituzten esamoldeak. Gu arduratuko gara bideoa grabatzeaz eta editatzeaz.

Era berean, bideoan erakutsi nahi dugu gazte hauek erronkan egin duten hori. Entrenamendu oso bat euskaraz garatu dutela eta esperientzia nolakoa izan den.

## **12. JARDUERA: Agurra**

Azken egunean hiru gauza egingo ditugu:

1. Egin dugun guztiaren errepasso azkarra
2. Bideoa ikusi
3. Agurtu, “merendola” moduko zerbaitekin.

### 10.3.2. Esku-hartzearen memoria taldez-talde

## Zaramaga



# D EREDUKO KIROLA

## 1 EGUNA

### Zaramaga-Pilota

| Real Sociedad<br>Futbola      |                                    |                     |   |                     |       |                 |            |
|-------------------------------|------------------------------------|---------------------|---|---------------------|-------|-----------------|------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                              | Jarduera mota       |   | Maila               | Adina | kopuruak        |            |
|                               |                                    |                     |   |                     |       | Entrenatzaileak | Gazteak    |
| 2017/10/25<br>19:35-<br>20:25 | Zaramagako<br>frontoia,<br>Gasteiz | Saio<br>dinamizatua | 1 | Infantil-<br>alebin | 14-15 | Ander Sevilla   | 9<br>mutil |

#### 1. JARDUERA: Aurkezpena

Aurkezpena egitea izan zen lehen jardueraren helburua. Proiektuan parte hartuko duten entrenatzaile eta kirolariei egitasmoa azaltzeko helburuarekin hamar minutu inguruko azalpena eman zitzaien. Hauen konpromisoa jasotzeko parte hartzeko prest zeuden ere galdetu zitzaien, baiezkoa jasoz.

#### 2. JARDUERA: Taldearen posterra

Jarduera honen helburua kirolari gazteak identifikatu eta hauen iritziak jasotzea izan zen. Horretarako taldearen posterra egitea proposatu zitzaien, zenbait pausu jarraituz.

##### 2.1. BANAKAKO FITXA

Kirolari bakoitzak honako datuak bete zituen:

*Izen-abizenak:*

*Adina:*

*Bizilekua (herria):*

*Gustukoa dituen hiru kirolariren izena: 1....., 2....., 3.....*

*Taula 1. Banakako Fitxa dinamikan jasotako datuak.*

|   | Izen-abizenak                  | Adina | Bizilekua             | Gustoko kirolarien izenak                                                                                |
|---|--------------------------------|-------|-----------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1 | Aratz Aranburu<br>Barrenetxea  | 13    | Gasteiz               | -(Oinatz) Bengoetxea<br>- (Jokin) Altuna<br>-(Iker) Irribarria                                           |
| 2 | Ander Formoso                  | 13    | Zaramaga              | -Iker Irribarria<br>-Beñat Rezusta<br>-Jokin Altuna                                                      |
| 3 | Ander Lozano                   | 13    | Vitoria               | -(Beñat) Rezusta<br>-M. Llorente<br>-(Juan Martinez de) Irujo                                            |
| 4 | Sergio Gomez<br>Aparicio       | 14    | Vitoria               | -Kenblock<br>-'Rebetxiki'<br>-(Oinatz) Bengoetxea                                                        |
| 5 | Beñat Martinez<br>de Apellaniz | 14    | Zaramaga<br>(Vitoria) | -(Yves Salabarri) Xala<br>-(Oinatz) Bengoetxea<br>-(Mikel) Urrutikoetxea<br>-Josu (taldekide bat)        |
| 6 | Iker Garcia                    | 14    | Vitoria-Gasteiz       | -Aimar Olaizola<br>-(Juan Martinez de) Irujo<br>-Finn Bálor                                              |
| 7 | Josu Uribarren<br>Fernandez    | 13    | Vitoria-Gasteiz       | -(Oinatz) Bengoetxea<br>-(Beñat) Rezusta<br>-Beñat (talkidea? Ala<br>Rezusta?)<br>-(Mikel) Urrutikoetxea |
| 8 | Adrian Muñoz                   | 14    | Vitoria (Gasteiz)     | -Rebetxiki<br>-Jonathan Hernandez<br>-(Mikel) Urrutikoetxea                                              |
| 9 | Ander Perez<br>Garcia          | 15    | Zurbano               | -Messi<br>-Marc Markez<br>-Neymar                                                                        |

27 kirolarietatik:

-18 pilotari (%71) – Bengoetxea (4) – Urrutikoetxea (3) – Rezusta (3) –Altuna (2)  
– Irribarria (2) – Irujo (2) – Xala (1) – Olaizola (1)

-9 beste (%29) - Futbola (3) - Auto eta motorrekin egiten diren kirolak (4)  
(Rebetxiki 2) – Borroka profesionala (1) – (1) Beste bat ez da aurkitu

Euskaradunak 17 - (%63) – Irujo ezik, beste pilotari guztiak euskaldunak dira. Ez dut kontatu ezin izan dudalako ziurtatu baina “Rebetxiki”-k ingurukoa dirudi eta baliteke euskalduna izatea baita ere.

## 2.2. TALDE ARGAZKIA

Azaldu zitzaaien hurrengo saioetarako taldearen posterra egitea zela ideia. Giroan sartzeko etxean kirol taldeen horma-irudirik duten galdetu zitzaaien eta horren inguruan solastu ziren.

Ondoren bi argazki atera ziren, bata horma-irudia osatzeko eta bestea kirolariak identifikatzeko:

1. Denak batera kirol horma-irudien estiloan identifikatzeko zenbakiekin.

*Irudia 1. Kirolarien horma-irudia zenbakiekin*





2.Argazkiarekin osatutako horma-irudia kirolarien izenekin.

*Irudia 2. Kirolarien horma-irudia.*



## D EREDUKO KIROLA

### 2 EGUNA

#### Zaramaga-Pilota

| Zaramaga<br>Pilota                |          |                     |   |                     |       |                                  |             |
|-----------------------------------|----------|---------------------|---|---------------------|-------|----------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                    | Tokia    | Jarduera mota       |   | Maila               | Adina | kopuruak                         |             |
|                                   |          |                     |   |                     |       | Entrenatzaileak                  | Gazteak     |
| 2017/11/1<br>3<br>19:00-<br>20:00 | Zaramaga | Saio<br>dinamizatua | 2 | Infantil-<br>kadete | 13-15 | Mikel Isasmendi<br>Ander Sevilla | 10<br>mutil |

#### 3. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia

Gaian sartzeko komunikazioa zer den galdetu zitzaien. Ondoren, komunikazioaren inguruko adibide zehatz batzuk ikusi behar genituen kirolean komunikazio ona eta komunikazio txarra erakusten zutenak. Ordenagailuak ez zuen bideoaren formatua irakurtzen ordea eta ondorioz ariketa moldatu genuen.

Komunikazioa ona eta txarraren inguruan hitz egin genuen eta baita komunikazio mota ezberdinei buruz ere (ahotsa, gorputza, keinuak...).

#### 4. JARDUERA: Kirolaren eragileak

Komunikazio prozesuan elementu ezberdinak kontuan hartzearen eta komunikazio agenteak zehaztearen garrantzia azpimarratu zen. Kirolean komunikazio agenteak 5 izan daitezkeela

aipatu zen: (1) Entrenatzaileak (2) Kirolariak (3) Aurkariak (4) Ikusleak (5) Bestelakoak (epaileak, antolatzaileak...).

Taldekideei eskatuko zitzaien eragile hauek identifikatzeko eta partidetan eta entrenamenduetan kokatzeko. Horretarako, bi horma-irudi handi erabili ziren. Biak joko-zelaiak irudikatzen zituzten panelak.

Paneletan eragile ezberdinak kokatu behar zituzten. Horretarako irudi batzuk banatu genizkien:

7. Entrenatzaileak: entrenatzaile ezagun baten argazkia
8. Jokalariak: aurreko saioan taldearen posterra
9. Aurkariak: kirol talde ezagun baten irudia
10. Ikusleak: ikusle talde baten argazkia
11. Antolatzaileak: kirol talderen baten arduradunen irudi bat
12. Epaileak: epaile ezagun baten irudia

Guztira 12 irudi: 6 irudi entrenamenduaren panelerako eta beste 6 irudi partidaren irudirako. Aurreko jardueran (3. Jarduera) bikoteka antolatu genituenez, honetan ere horrela jarraitzeko eskatu genien. Bikote bakoitzari irudi bana eman genien eta panel batean kokatzeko eskatu. Irudi guztiak kokatuta zeudenean ezberdintasunak komentatu genituen.

Hurrengo saioan panelak berriz ekarriko genituela eta osatzen jarraituko genuela adierazi ondoren, eskerrak eman eta agurtu egin ginen.

# D EREDUKO KIROLA

## 3 EGUNA


### Zaramaga-Pilota

| Zaramaga<br>Pilota            |         |                     |   |                     |       |                 |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|---------------------|-------|-----------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila               | Adina | kopuruak        |             |
|                               |         |                     |   |                     |       | Entrenatzaileak | Gazteak     |
| 2017/11/27<br>19:00-<br>20:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 3 | Infantil-<br>kadete | 13-15 | Ander Sevilla   | 10<br>mutil |

#### 5. JARDUERA: Eragileen komunikazioa

Aurreko saioko dinamikaren jarraipena zen jarduera hau. Aurrekoan, kirolean komunikazioak dien garrantzia aztertzearekin batera, kirol-komunikazioan parte hartzen duten eragileak kokatu genituen. Saio honetan, panel horiek osatu genituen komunikazioa nolakoa izaten den ulertzeko.

Taldeak osatu genituen eta 3. Jardueran osatu zituzten panelen kopiak banatu genizkien. Talde batek entrenamenduaren panela zuen eta besteak partidena. Bestalde, gezi ezberdinak banatu genizkien. Honakoak:



Gezi hauek kokatu behar zituzten eragileen artean. Norantzak adierazten du nork komunikatzen dion nori (adibidez, entrenatzaileak kirolariari). Gezien lodierak adierazten du komunikazioaren garrantzia (adibidez, entrenatzaileek asko komunikatzen badiete kirolariei gezi potoloa jarriko dute). Talde guztiek amaitu zutenean panel handiak osatu genituen taldeetan egindakoa batera jarriz.



*1 Irudia. Entrenamenduan komunikazioaren noranzkoak eta garrantziak.*



2 Irudia. Partidan komunikazioaren noranzkoak eta garrantziak.

Jarraian, komunikatzen dena paneletan jartzeko eskatuko genien. Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan, kirolean komunikatzen diren espresio motak kokatu zituzten honelako irudiak erabiliz:



Gazte bakoitzari horrelako bina eman eta paneletan kokatzeko eskatuko zitzaien (Post-it formatuan). Panelak osatuz gero komentatzeko aukera egon zen.



1 Taula. Entrenamenduan komunikatzen diren espresio-motak

#### Jarri dituzten emozioak

|                       |                                                                                      |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| Poza (1)              |  |
| Aginduak (2)          |  |
| Azalpen teknikoak (1) |  |
| Animoak (2)           |  |
| Haserrea (1)          |  |
| Tristura (1)          |                                                                                      |



4 Irudia. Partidetan komunikatzen diren espresio-motak.

2 Taula. Partidetan komunikatzen diren espresio-motak.

### Jarri dituzten emozioak

|                       |                                                                                      |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| Aginduak (1)          |  |
| Azalpen teknikoak (1) |  |
| Animoak (2)           |  |
| Haserrea (1)          |  |
| Tristura (1)          |                                                                                      |
| Poza (1)              |  |

Eskerrak eman ondoren agurtu ginen.



# D EREDUKO KIROLA

## 4 EGUNA

### Zaramaga-Pilota

| Zaramaga<br>Pilota            |                        |                     |   |                     |       |                                     |             |
|-------------------------------|------------------------|---------------------|---|---------------------|-------|-------------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                  | Jarduera mota       |   | Maila               | Adina | kopuruak                            |             |
|                               |                        |                     |   |                     |       | Entrenatzaileak                     | Gazteak     |
| 2017/12/11<br>18:00-<br>19:00 | Zaramagako<br>frontoia | Saio<br>dinamizatua | 4 | Infantil-<br>kadete | 13-15 | Ander Sevilla<br>Mikel<br>Isasmendi | 10<br>mutil |

#### 6. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa

Jarduera honetan, prentsurreko bat irudikatzea izan zen helburua. Hasteko hiru boluntario eskatuko ziren prentsurrekoan erantzuten parte hartzeko. Gainontzeko gazteak kazetari lanetan aritu ziren. Galdera zerrenda bat prest eramango genuen eta “kazetari” bakoitzak galdera horietako bat aukeratu eta beste bat sortu behar zuen. Modu horretan “kazetari” bakoitzak bina galdera zituen.

Guk emandako galderak:

- Zer moduz doa aurtengo sasoia? Espero zenuten emaitzak lortzen ari al zarete?
- Gustura al zaude egiten ari zaren lanarekin?
- Entrenamenduak gogorrak izaten ari al dira? Zein da entrenamenduetan gogokoen duzun ariketa?
- Nolako harremana duzu zure taldekideekin? Asko hitz egiten duzu eurekin? Noiz? Nola?
- Partidetan ondo komunikatzen al zarete?
- Zein da partidetan gehien hitz egiten duena? Zer nolako hitzak botatzen ditu?

- *Ba al duzue abesti edo esamolderen bat partidak hasi aurretik taldea animatzeko?*
- *Nola ospatzen dituzu golak?*
- *Haserretzen zarenean zer egiten duzu? Zer esaten duzu?*
- *Zer iritzia duzu zuen partidetako ikusleen inguruan? Zein ohio dira gehien errepikatzen direnak?*
- ...

Kirolariek prestatutako galderak:

- *Zer jaten duzu partidu bat baino lehen?*
- *Entrenamendu gogorrak iruditzen zaizu? Zein da zure ariketariak gogokoena eta zer aldatuko zenuke?*
- *Beroketetan, bakarrik berotzen duzu ala beste batzuekin?*
- *Ze aldatuko zenukete entrenamendutik? Ze gauza gehituko zenukete eta zein gauza kenduko zenukete.*
- *Denbora librean, zein da gustukuen duzuen gauza*
- *Zu etortzen zara hemen... para pasar el tiempo... eta kirol bat egiteko? Edo... gustatzen zaizulako eta mejoratzeko.*
- *Entrenamenduaren denbora egokia iruditzen zaizue edo... gutxiago edo gehiago jarriko zenukete?*

Jarduera bideoz grabatu zen.

# D EREDUKO KIROLA

## 5 EGUNA

### Zaramaga-Pilota

| Zaramaga<br>Pilota            |                        |                     |   |                     |       |                                     |         |
|-------------------------------|------------------------|---------------------|---|---------------------|-------|-------------------------------------|---------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                  | Jarduera mota       |   | Maila               | Adina | kopuruak                            |         |
|                               |                        |                     |   |                     |       | Entrenatzaileak                     | Gazteak |
| 2018/01/29<br>19:15-<br>20:00 | Zaramagako<br>frontoia | Saio<br>dinamizatua | 5 | Infantil-<br>kadete | 13-15 | Ander Sevilla<br>Mikel<br>Isasmendi | 8 mutil |

#### 8. JARDUERA: Geure buruari galdezka

Jarduera honetan ohiko kirol jarduera aztertu genuen eta beste hizkuntzekin alderatuta euskara non, noiz eta nola erabiltzen dugun ikusi. Guztira lau galdera luzatu genizkien; lehen bi galderak banaka bete beharrekoak paper banatan, hirugarren eta laugarren galderak panel handietan erantzutekoak.

#### 5. Zein hiztun mota gara?

Ondorengo laukia pasa zitzaien osatzeko.

|                                                                 | Ahozkoa<br>ulertu | Hitz<br>egin | Idatzizkoa<br>ulertu | Idatzi |
|-----------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|----------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz<br>gaztelaniaz/frantsesez baino  |                   |              |                      |        |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez<br>berdintsu moldatzen naiz |                   |              |                      |        |
| Gaztelaniaz/frantsesez hobeto<br>moldatzen naiz euskaraz baino  |                   |              |                      |        |

Hauek emaitzak.

1 Taula. Hitzun motaren inguruko emaitzak

|                                                              | Ahozkoa ulertu | Hitz egin | Idatzizkoa ulertu | Idatzi |
|--------------------------------------------------------------|----------------|-----------|-------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz gaztelaniaz/frantzesez baino  | 1              | 2         | 1                 | 1      |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantzesez berdintsu moldatzen naiz | 7              | 6         | 7                 | 7      |
| Gaztelaniaz/frantzesez hobeto moldatzen naiz euskaraz baino  | 0              | 0         | 0                 | 0      |

## 6. Non egiten dugu?

Honako taula pasa zaie betetzeko.

|                               | Nagusiki edo ia beti euskaraz | Bi hizkuntzetan berdin | Nagusiki edo ia beti gaztelaniaz /frantzesez | Oharrak |
|-------------------------------|-------------------------------|------------------------|----------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                    |                               |                        |                                              |         |
| Anaia-arrebekin               |                               |                        |                                              |         |
| Ikaskideekin gelan            |                               |                        |                                              |         |
| Ikaskideekin gelatik kanpo    |                               |                        |                                              |         |
| Kuadrillan                    |                               |                        |                                              |         |
| Whatsapp, Instagram...        |                               |                        |                                              |         |
| Kirol taldekideekin           |                               |                        |                                              |         |
| Beste taldeetako jokalariekin |                               |                        |                                              |         |
| Entrenatzaileekin             |                               |                        |                                              |         |
| Epailleekin                   |                               |                        |                                              |         |
| ...                           |                               |                        |                                              |         |

Bertan emaitzak.

2 Taula. Euskara non egiten dutenaren inguruko emaitzak.

|                            | Nagusiki edo ia beti euskaraz | Bi hizkuntzetan berdin | Nagusiki edo ia beti gaztelaniaz/frantzesez | Oharrak |
|----------------------------|-------------------------------|------------------------|---------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                 | 1                             |                        | 5                                           |         |
| Anaia-arrebekin            | 2                             | 1                      | 1                                           |         |
| Ikaskideekin gelan         |                               | 3                      | 5                                           |         |
| Ikaskideekin gelatik kanpo |                               |                        | 8                                           |         |
| Kuadrillan                 |                               | 1                      | 7                                           |         |

|                                  |   |   |   |  |
|----------------------------------|---|---|---|--|
| Whatsapp,<br>Instagram...        |   |   | 8 |  |
| Kirol taldekideekin              |   | 2 | 6 |  |
| Beste taldeetako<br>jokalariekin |   | 4 | 4 |  |
| Entrenatzaileekin                | 2 | 4 | 1 |  |
| Epaileekin                       | 2 | 3 | 2 |  |
| ....                             |   |   |   |  |


Lehen bi galdera hauen emaitzak ez ziren talde handian komentatu. Jaso eta hurrengo saioan aipatuko ditugu emaitza nagusiak. Hirugarren eta laugarren galderen erantzunak, ordea, denon artean egin genituen eta hitz egiteko tarteak utzi genuen.

## 7. Zenbat hizkuntza dakizkigu?


Koloretako gometxak banatu genizkien:

- Marroia: hizkuntza hori ulertzeko eta hitz egiteko arazorik ez dut
- Berdea: hizkuntza hori ulertzen dut eta zerbait hitz egiten dut, baina ez ondo.
- Horia: Hizkuntza hori pixka bat ulertzen dut, baina ez dakit hitz egiten
- Gorria: Hizkuntza hori ez dut ulertzen.

Eta honelako panela aurkeztu:



Bertan hizkuntza bakoitza zenbat dakiten adierazi behar izan zuten panelean gometxak ipiniz.



2 Irudia. Zenbat hizkuntza dakizkigu jardueraren emaitzak.

**Oharra:** Bestelako hizkuntzetan galiziera eta katalana agertu dira. Catalana brometan jarri zuten, hala ere, Formoso eta Sergioren familia Galiziakoak dira eta zerbait ulertzen dute.

## 8. Zer diote gutaz?

Panel honetan aurkariak dituzten taldeen izenak jarri zituzten eta talde bakoitzari bi hitz jartzeko eskatu zitzaion (denok batera):

- Ezaugarri nagusia: onak, txarrak, jatorrak, tranpatiak...
- Hizkuntza: euskara, gaztelania, biak...

3 Taula. Talde aurkarien ezaugarri eta hizkuntzak.

| Talde aurkaria         | Ezaugarriak                  | Hizkuntza          |
|------------------------|------------------------------|--------------------|
| Agurain                | Onak                         | Euskara/Gaztelania |
| Txukun Lakua (Gasteiz) | Harroputzak                  | Gaztelania         |
| Aramaio                | Jatorrak, onak jolasten      | Euskara            |
| Amurrio                | Mastodonteak                 | Gaztelania         |
| Herriaren (Laudio)     | Harroputzak                  | Gaztelania         |
| Legutio                | (Ez dut ulertzen jarritakoa) | Gaztelania         |

Talde guztien hitzak amaitu ondoren alderantzizko ariketa egiteko eskatu genien. Nola iruditzen zaizue ikusten zaituztetela beste taldeek zuei?

Beraien taldea:

Beraien taldeari buruz beste taldeek zer pentsatuko zuten galdetzean, betiko lez, tontokeria asko esan zituzten: Beñatek “mancos de mierda” zirela pentsatuko zutela esan zuen. Orokorrean, aurkariak jatorrak bezala ikusten dituztela esan zuten eta beraiekin identifikatzen duten hizkuntza euskara eta gaztelania izango direla.



2 Irudia. Talde, ezugarri eta hizkuntzekin osatutako panela.

# D EREDUKO KIROLA

## 6 EGUNA

### Zaramaga-Pilota

| Zaramaga<br>Pilota            |                        |                     |   |                   |       |                                     |            |
|-------------------------------|------------------------|---------------------|---|-------------------|-------|-------------------------------------|------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                  | Jarduera mota       |   | Maila             | Adina | kopuruak                            |            |
|                               |                        |                     |   |                   |       | Entrenatzaileak                     | Gazteak    |
| 2018/02/12<br>19:00-<br>20:00 | Zaramagako<br>frontoia | Saio<br>dinamizatua | 6 | Alebin-<br>kadete | 13-15 | Mikel<br>Isasmendi<br>Ander Sevilla | 8<br>mutil |

#### 9. JARDUERA: Euskara kirolean

Aurreko jarduerari buruzko balorazio kolektiboa egin ondoren Tribuaren Berbak material didaktikotik bideo batzuk ikusi ziren euskararen presentzia kirolean zein den ikusteko. Arazo teknikoengatik ordea hurrengo saiorako utzi zen jarduera hau.

#### 10. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzeko

Jarduera honetan gazte kirolariak talde txikitan bildu ziren. Talde bakoitzean euren kirol praktikan erabiltzen dituzten esamoldeak zerrendatu zituzten: zer esamolde erabiltzen ditugu kirolean... animoak emateko? Kexatzeko? Lagunei gauzak esateko? Jokaldiekin lotutakoak?. Bostgarren jardueran lehen jasoketa bat egin genuen eta oraingoan egun horretan jasotakoak ekarriko ditugu gaika ordenatuta. Ahalik eta zerrenda luzeenak osatzea izan zen eguneko helburua. Gaiak:





1 Taula. Esamoldeen bilketa.

| Taldea | Animoak               | Haserrea                                          | Poza           | Tristura                   | Azalpen teknikoak                                           | Aginduak        |
|--------|-----------------------|---------------------------------------------------|----------------|----------------------------|-------------------------------------------------------------|-----------------|
| 1      | Venga, Ona, Mucho     | Hitz itsusiak: joder, ostia...<br>(Eman paretari) | Goazen!, Toma! | Aj ze ona,                 | Makurtu, atzerago joan, lasai eman                          | Zu!, Ni!, Ondo! |
| 2      | Venga!, Aupa hi!      | Paretari kolpe ematen                             | Vamos          | Pareta jo, takoak apretatu | Norek eman behar dio, Agachate, Rapido, Mirando a la pared, | Tuya,mia, va    |
| 3      | Aupa, Mucho, Venga ba | Me cago en dios, ostia                            | Vamos, luju    | Mierda                     | Agachate, a correr, Venga, Te la has comido                 | Voy, Tuya, Va   |

Taldeka egindako zerrendak jasoko eta hurrengo egunerako zerrenda bakar bat osatuko dugu bildutako esamolde guztiekin. Horretaz gain, guk euren entrenamendu eta partiduetako behaketetan jasotako esamoldeak ere gehituko ditugu.

# D EREDUKO KIROLA

## 7 EGUNA

### Zaramaga-Pilota

| Zaramaga<br>Pilota            |                        |                     |   |                   |       |                                     |            |
|-------------------------------|------------------------|---------------------|---|-------------------|-------|-------------------------------------|------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                  | Jarduera mota       |   | Maila             | Adina | kopuruak                            |            |
|                               |                        |                     |   |                   |       | Entrenatzaileak                     | Gazteak    |
| 2018/03/12<br>19:00-<br>20:00 | Zaramagako<br>frontoia | Saio<br>dinamizatua | 7 | Alebin-<br>kadete | 13-15 | Mikel<br>Isasmendi<br>Ander Sevilla | 9<br>mutil |

Lehenik eta behin, aurreko saioan ikusi ezin izan zen bideoa ikusi zen.

#### 11. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz

Esamoldez osatutako kirol hiztegi bat osatzea izan da helburua. Taldetan jarri eta esamolde multzoa prestatzeari ekin zioten honako ataletan:

1. Animoak
2. Tristura, haserrea, amorrua
3. Poza, algara, zirikatzea
4. Aginduak eta azalpen teknikoak

Aurreko saioan jasotako esamoldeez gain fotokopia batzuk banatu zitzaizkien. Bertan multzo bakoitzeko esamolde zerrenda luze samarrak agertzen ziren. Bost edo sei esamolde aukeratzeko eskatu zitzairen, datozen asteetan bereziki erabili beharrekoak.

#### 12. JARDUERA: Erronka

Esamoldeekin lotutako erronka bat proposatu zitzaien. Bi aukera hauek aurreikusten ziren:

3. Erronka: ENTRENAMENDU OSO BAT (edo bi) EUSKARAZ EGITEA:  
Helburua Kirol Hiztegi Gaztea oinarri hartuta entrenamendu oso bat euskaraz garatzea litzateke.
4. Erronka: ENTRENAMENDU BATEAN (edo gehiagotan) ESAMOLDE BATZUK ERABILTZEA:  
Kirol Hiztegi Gaztean dauden esamolde batzuk (beraiek erabaki beharko dute zenbat) erabiltzea datozen asteetan.

Talde txikitan banatuta proposatutakoarekin honako erabakiak hartu ziren: entrenamendu oso bat euskaraz egitea.

Entrenatzaileen laguntza ere eskatu genuen errefortzu lana egiteko. Entrenatzaileen paperak hiru gako hauek izango ditu:

4. Erabakitako esamoldeak erabili eta erabiltzera animatu.
5. Errefortzu positiboa eskaintzea (zoriontzea erabiltzen dituztenean)
6. Intentsitatea galtzen denean erronka gogoratu.

Hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela ikusarazteko dinamika bat da honako hau. Kirolari gazteei errotuta dauden ohiturak aldatu daitezkeela adierazi nahi diegu praktika zehatz honen bidez.

# Padura



# D EREDUKO KIROLA

## 1 EGUNA

### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                              |                     |   |          |       |                 |             |
|-------------------------------|------------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                        | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |             |
|                               |                              |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak     |
| 2017/11/30<br>18:00-<br>18:30 | Arrigorriagako<br>kiroldegia | Saio<br>dinamizatua | 1 | Infantil | 11-13 | Itsaso<br>Ander | 10<br>neska |

#### 1. JARDUERA: Aurkezpena

Aurkezpena egitea izan zen lehen jardueraren helburua. Proiektuan parte hartuko duten entrenatzaile eta kirolariei egitasmoa azaltzeko helburuarekin hamar minutu inguruko azalpena eman zitzaien. Hauen konpromisoa jasotzeko parte hartzeko prest zeuden ere galdetu zitzaien, baiezkoa jasoz.

#### 2. JARDUERA: Taldearen posterra

Jarduera honen helburua kirolari gazteak identifikatu eta hauen iritziak jasotzea izan zen. Horretarako taldearen posterra egitea proposatu zitzaien, zenbait pausu jarraituz.

##### 2.1. BANAKAKO FITXA

Kirolari bakoitzak honako datuak bete zituen:

*Izen-abizenak:*

*Adina:*

*Bizilekua (herria):*

*Gustukoa dituen hiru kirolariren izena: 1....., 2....., 3.....*

*Taula 2. Banakako Fitxa dinamikan jasotako datuak.*

|        | Izen-abizenak         | Bizilekua            | Kirolariak                                                                                                |
|--------|-----------------------|----------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1 (11) | Leire Vallejo         | Arrigorriaga         | Kyrie Irving (Saskibaloia)<br>LeBron James (Saskibaloia)<br>James Harden (Saskibaloia)                    |
| 2 (4)  | Izaro Arsuaga Tamayo  | Arrigorriaga         | Mikel Rico (Futbola)<br>Mikel Urrutikoetxea (Pilota)<br>Irene Paredes (Futbola)<br>Aritz Aduriz (Futbola) |
| 3 (7)  | Uxue Prieto Lopez     | Zaratamo             | Mikel Urrutikoetxea (Pilota)<br>Mikel Rico (Futbola)<br>Aitor Paredes (Futbola)                           |
| 4 (6)  | Alazne Achutegui      | Arrigorriaga         | Aritz Aduriz (Futbola)<br>Mikel Urrutikoetxea (Pilota)<br>Rafa Nadal (Tenisa)                             |
| 5 (9)  | María Marín Martín    | Arrigorriaga         | Stephen Curry (Saskibaloia)<br>LeBron James (Saskibaloia)<br>Pau Gasol (Saskibaloia)                      |
| 6 (18) | Zaloa López Fuente    | Arrigorriaga         | Iñaki Williams (Futbola)<br>Pau Gasol (Saskibaloia)<br>Rafa Nadal (Tenisa)                                |
| 7 (15) | Ane Avendario         | Arrigorriaga         | Aritz Aduriz (Futbola)<br>Pau Gasol (Saskibaloia)<br>Alex Mumbrú (Saskibaloia)                            |
| 8 (5)  | June Ardines Mohedano | San Miguel (Basauri) | Alex Mumbrú (Saskibaloia)<br>Michael Jordan (Saskibaloia)<br>Aritz Aduriz (Futbola)                       |

|            |                  |              |                                                                                                      |
|------------|------------------|--------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 9(16)      | Uxue Zubieta     | Arrigorriaga | Mikel Rico (Futbola)<br>Iñaki Williams (Futbola)<br>Aritz Aduriz (Futbola)                           |
| 10(8)      | Olatz Arranz     | Arrigorriaga | Aritz Aduriz (Futbola)<br>Carolina Rodriguez (Gimnastika erritmikoa)<br>Michael Jordan (Saskibaloia) |
| 11<br>(12) | Leire Bacigalupe | Arrigorriaga | LeBron James (Saskibaloia)<br>Iñaki Williams (Futbola)<br>Mireia Belmonte (Igerilaria)               |

34 kirolarietatik:

14 futbolari (% 41,17)

13 saskibaloiko jokalarik (%38,23)

7 beste (%20,60) – Pilota 3 (Urrutikoetxea 3) - Tenis 2 (Nadal 2) — Igerilaria 1 eta Gimnastika erritmikoa 1

## 2.2. TALDE ARGAZKIA

Azaldu zitzairen hurrengo saioetarako taldearen posterra egitea zela ideia. Taldekide bat falta zenez talde osoaren argazkia egiteko ardura entrenatzaileak hartu zuen.

Honakoak dira ateratako argazkiak horma-irudia osatzeko:

1. Denak batera kirol horma-irudien estiloan identifikatzeko zenbakiekin.





*Irudia 3. Kirolarien horma-irudia zenbakiekin.*

2. Argazkiarekin osatutako horma-irudia kirolarien izenekin.



## PADURA SASKIBALOI TALDEA

2017-2018



Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: 15-Ane Avendaño; 4-Izaro Arsuaga; 6-Alazne Achutegui; 7-Uxue Prieto; 9: María Martín 12-Leire Bacigalupe.  
 Beheko ilaran, ezkerretik eskuinera: 18-Zalaoa Lopez; 5-June Ardions; 11-Leire Vallejo; 16-Uxue Zubieta; 8-Olatz Arranz.

*Irudia 4. Kirolarien horma-irudi*



# D EREDUKO KIROLA

## 2 EGUNA

### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                              |                     |   |          |       |                 |             |
|-------------------------------|------------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                        | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |             |
|                               |                              |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak     |
| 2017/12/19<br>17:00-<br>17:30 | Arrigorriagako<br>kiroldegia | Saio<br>dinamizatua | 2 | Infantil | 11-13 | Itsaso<br>Ander | 11<br>neska |

### 3. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia

Gaian sartzeko komunikazioa zer den galdetu zitzaien. Ondoren, komunikazioaren inguruko adibide zehatz batzuk ikusi genituen kirolean komunikazio ona eta komunikazio txarra erakusten zutenak. Bikotetan erabaki zuten egoera horien artean zein ziren komunikazio ona adierazten zutenak eta zein komunikazio txarra adierazten zutenak.

Bikoteka jartzeko eskatuko zitzaien eta bikote bakoitzari orri bana eman honako taularekin:

|   | Komunikazio<br>ona | Komunikazio<br>txarra | Komunikazio mota (ahotsa,<br>gorputza, keinuak...) |
|---|--------------------|-----------------------|----------------------------------------------------|
| 1 |                    |                       |                                                    |
| 2 |                    |                       |                                                    |
| 3 |                    |                       |                                                    |
| 4 |                    |                       |                                                    |
| 5 |                    |                       |                                                    |
| 6 |                    |                       |                                                    |
| 7 |                    |                       |                                                    |

Bideoak ikusi eta gero bikote bakoitzak jarritakoa elkarbanatu zuen. Bideoak berriz ikusi eta adostasuna ote zegoen ikusteaz gain, jarri zutena zergatik jarri zuten galdetu zitzaien. Komunikazio mota ezberdinen inguruan ere hitz egiteko eskatu zitzaien (noiz erabiltzen den bat edo bestea, zergatik...).

*Taula 1. Kiroleko komunikazioaren inguruko bideoekin idatzitakoaren transkribapena.*

1-: "Komunikazio ona

Oihuak egiten ditu entrenatzailea haserre dagoenean.

Entrenatzailearen jokaldia funtzionatzen du; jokalaria ondo komunikatzen direlako. Keinuekin ulertzen direlako.

Gure ustez keinuak egitea hobeagoa da. Bestela hitz egiten badugu eta defentzonea alboan badago entzun ahal du jokaldia eta aurreratu."

2-:"Komunikazio ona, baina, batzutan entrenatzaileak oihukatu egiten du, (beharrezkoa denean).

Gu oihuekin eta keinuekin komunikatzen gara.

Garrantzitsua da partidu batean keinuekin komunikatzea baina hitz egitea ez dago gaizki."

3-:"Uxue eta Alazne (Hoberenak)

Komunikazio ona.

Entrenatzailea oihuen bidez.

Gorputzaren bidez komunikatzen dira.

Gure ustez garrantzitsua dira biak. Baina gure taldean gehiago erabiltzen da gorputz bidezko komunikazioa."

4-:"Komunikazio ona.

Oihuken bidez komunikatzen dira. (entrenatzailea)

Begiraden bidez komunikatzen dira (jokalarien) artean.

Gure ustez, begiradak baita keinuen bidez hobeto da komunikatzea."

5-:"Gure ustez oso garrantzitsua da entzutea eta hitz egitea, bi gauza horiek egitean talde lana lortuko dugulako eta lagungarria izango delako. hori bai, guztiek parte hartu behar dute taldean.

Pentsatu eta gero, uste dugu garrantzitsuagoa dela berba egitea. Baina partidutan berba egin baino, oihuka egiten dugu nahi gabe."

#### **4. JARDUERA: Kirolaren eragileak**

Komunikazio prozesuan elementu ezberdinak kontuan hartzearen eta komunikazio agenteak zehaztearen garrantzia azpimarratu zen. Kirolean komunikazio agenteak 5 izan daitezkeela aipatu zen: (1) Entrenatzaileak (2) Kirolariak (3) Aurkariak (4) Ikusleak (5) Bestelakoak (epaileak, antolatzaileak...).

Taldekideei eskatuko zitzaien eragile hauek identifikatzeko eta partidetan eta entrenamenduetan kokatzeko. Horretarako, bi horma-irudi handi erabili ziren. Biak joko-zelaiak irudikatzen zituzten panelak.

Paneletan eragile ezberdinak kokatu behar zituzten. Horretarako irudi batzuk banatu zitzaizkien:

- 13. Entrenatzaileak: entrenatzaile ezagun baten argazkia
- 14. Jokalariak: aurreko saioan taldearen posterra
- 15. Aurkariak: kirol talde ezagun baten irudia
- 16. Ikusleak: ikusle talde baten argazkia
- 17. Antolatzaileak: kirol talderen baten arduradunen irudi bat
- 18. Epaileak: epaile ezagun baten irudia

Guztira 12 irudi: 6 irudi entrenamenduaren panelerako eta beste 6 irudi partidaren irudirako. Aurreko jardueran (3. Jarduera) bikoteka antolatu genituenez, honetan ere horrela jarraitzeko eskatu genien. Bikote bakoitzari irudi bana eman genien eta panel batean kokatzeko eskatu. Irudi guztiak kokatuta zeudenean ezberdintasunak komentatu genituen.

Hurrengo saioan panelak berriz ekarriko genituela eta osatzen jarraituko genuela adierazi ondoren, eskerrak eman eta agurtu egin ginen.

D



1 Irudia. Entrenamenduan eragileen komunikazioaren inguruko dinamikaren emaitza.



2 Irudia. Partidetan eragileen komunikazioaren inguruko dinamikaren emaitza.

# EREDUKO KIROLA

## 3 EGUNA


### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                              |                     |   |          |       |                 |             |
|-------------------------------|------------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                        | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |             |
|                               |                              |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak     |
| 2018/01/09<br>17:00-<br>17:30 | Arrigorriagako<br>kiroldegia | Saio<br>dinamizatua | 3 | Infantil | 11-13 | Itsao<br>Ander  | 10<br>neska |

#### 5. JARDUERA: Eragileen komunikazioa

Aurreko saioko dinamikaren jarraipena zen jarduera hau. Aurrekoan, kirolean komunikazioak dien garrantzia aztertzearekin batera, kirol-komunikazioan parte hartzen duten eragileak kokatu genituen. Saio honetan, panel horiek osatu genituen komunikazioa nolakoa izaten den ulertzeko.

Taldeak osatu genituen eta 3. Jardueran osatu zituzten panelen kopiak banatu genizkien. Talde batek entrenamenduaren panela izan zuen eta besteak partidena. Bestalde, gezi ezberdinak banatu genizkien. Honakoak:



Gezi hauek kokatu behar zituzten eragileen artean. Norantzak adierazten du nork komunikatzen dion nori (adibidez, entrenatzaileak kirolariari). Gezien lodierak adierazten du komunikazioaren garrantzia (adibidez, entrenatzaileek asko komunikatzen badiete kirolariei gezi potoloa jarriko dute). Talde guztiek amaitu zutenean panel handiak osatu genituen taldeetan egindakoa batera jarriz.


Jarraian, komunikatzen dena paneletan jartzeko eskatuko genien. Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan, kirolean komunikatzen diren espresio motak kokatu zituzten honelako irudiak erabiliz:



Gazte bakoitzari horrelako bina eman eta paneletan kokatzeko eskatuko zitzaien (Post-it formatuan). Panelak osatuz gero komentatzeko aukera egon zen.



1 Irudia. Entrenamenduan komunikatzen diren espresio-motak.



2 Irudia. Partidetan komunikatzen diren espresio-motak.

# D EREDUKO KIROLA

## 4 EGUNA

### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                             |                     |   |          |       |                 |         |
|-------------------------------|-----------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|---------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                       | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |         |
|                               |                             |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak |
| 2018/01/23<br>17:00-<br>17:30 | Arrigorriagako<br>kirolegia | Saio<br>dinamizatua | 4 | Infantil | 11-13 | Itsaso<br>Ander | 9 neska |

#### 6. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa

Jarduera honetan, prentsurreko bat irudikatzea izan zen helburua. Hasteko hiru boluntario eskatuko ziren prentsurrekoan erantzuten parte hartzeko. Gainontzeko gazteak kazetari lanetan aritu ziren. Galdera zerrenda bat prest eramango genuen eta “kazetari” bakoitzak galdera horietako bat aukeratu eta beste bat sortu behar zuen. Modu horretan “kazetari” bakoitzak bina galdera zituen.

Guk emandako galderak:

- Zer moduz doa aurtengo sasoiak? Espero zenuten emaitzak lortzen ari al zarete?
- Gustura al zaude egiten ari zaren lanarekin?
- Entrenamenduak gogorrak izaten ari al dira? Zein da entrenamenduetan gogokoen duzun ariketa?
- Nolako harremana duzu zure taldekideekin? Asko hitz egiten duzu eurekin? Noiz? Nola?
- Partidetan ondo komunikatzen al zarete?
- Zein da partidetan gehien hitz egiten duena? Zer nolako hitzak botatzen ditu?
- Ba al duzue abesti edo esamolderen bat partidak hasi aurretik taldea animatzeko?
- Nola ospatzen dituzu golak?
- Haserretzen zarenean zer egiten duzu? Zer esaten duzu?
- Zer iritzia duzu zuen partidetakoa ikusleen inguruan? Zein ohia dira gehien errepikatzen direnak?



...

Kirolariek prestatutako galderak:

- *Urduri zaudete partudo bat jolastu baino lehen?*
- *Gustura al zaudete egiten ari zareten lanarekin?*
- *Zer egiten duzue partido edo entrenamendu baten ondoren?*
- *Zergatik hasi zineten saskibaloira jokatzeko?*
- *Ba al duzue esamolde bat animatzeko taldea?*
- *Zer egiten duzue zuen denbora librean?*

Jarduera bideoz grabatu zen.

# D EREDUKO KIROLA

## 5 EGUNA

### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                              |                     |   |          |       |                 |         |
|-------------------------------|------------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|---------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                        | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |         |
|                               |                              |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak |
| 2018/02/13<br>17:00-<br>17:30 | Arrigorriagako<br>kiroldegia | Saio<br>dinamizatua | 5 | Infantil | 11-13 | Itsaso<br>Ander | 9 neska |

#### 8. JARDUERA: Geure buruari galdezka

Jarduera honetan ohiko kirol jarduera aztertu genuen eta beste hizkuntzekin alderatuta euskara non, noiz eta nola erabiltzen dugun ikusi. Guztira lau galdera luzatu genizkien; lehen bi galderak banaka bete beharrekoak paper banatan, hirugarren eta laugarren galderak panel handietan erantzutekoak.

#### 9. Zein hiztun mota gara?

Ondorengo laukia pasa zitzaien osatzeko.

|                                                                 | Ahozkoa<br>ulertu | Hitz<br>egin | Idatzizkoa<br>ulertu | Idatzi |
|-----------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|----------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz<br>gaztelaniaz/frantsesez baino  |                   |              |                      |        |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez<br>berdintsu moldatzen naiz |                   |              |                      |        |
| Gaztelaniaz/frantsesez hobeto<br>moldatzen naiz euskaraz baino  |                   |              |                      |        |

Hauek emaitzak.

1 Taula. Hitzun motaren inguruko emaitzak

|                                                              | Ahozkoa ulertu | Hitz egin | Idatzizkoa ulertu | Idatzi |
|--------------------------------------------------------------|----------------|-----------|-------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz gaztelaniaz/frantzesez baino  |                |           |                   |        |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantzesez berdintsu moldatzen naiz | 7              | 7         | 7                 | 7      |
| Gaztelaniaz/frantzesez hobeto moldatzen naiz euskaraz baino  | 2              | 2         | 2                 | 2      |

## 10. Non egiten dugu?

Honako taula pasa zitzaien betetzeko.

|                               | Nagusiki edo ia beti euskaraz | Bi hizkuntzetan berdín | Nagusiki edo ia beti gaztelaniaz /frantsesez | Oharrak |
|-------------------------------|-------------------------------|------------------------|----------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                    |                               |                        |                                              |         |
| Anaia-arrebekin               |                               |                        |                                              |         |
| Ikaskideekin gelan            |                               |                        |                                              |         |
| Ikaskideekin gelatik kanpo    |                               |                        |                                              |         |
| Kuadrillan                    |                               |                        |                                              |         |
| Whatsapp, Instagram...        |                               |                        |                                              |         |
| Kirol taldekideekin           |                               |                        |                                              |         |
| Beste taldeetako jokalariekin |                               |                        |                                              |         |
| Entrenatzaileekin             |                               |                        |                                              |         |
| Epaileekin                    |                               |                        |                                              |         |
| ...                           |                               |                        |                                              |         |

Bertan emaitzak.

2 Taula. Euskara non egiten dutenaren inguruko emaitzak.

|                            | Nagusiki edo ia beti euskaraz | Bi hizkuntzetan berdín | Nagusiki edo ia beti gaztelaniaz/frantzesez | Oharrak |
|----------------------------|-------------------------------|------------------------|---------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                 | 1                             | 1                      | 7                                           |         |
| Anaia-arrebekin            |                               |                        | 7                                           | 1       |
| Ikaskideekin gelan         |                               | 2                      | 7                                           |         |
| Ikaskideekin gelatik kanpo |                               |                        | 9                                           |         |
| Kuadrillan                 |                               |                        | 9                                           |         |

|                                  |   |   |   |   |
|----------------------------------|---|---|---|---|
| Whatsapp,<br>Instagram...        |   | 3 | 5 | 2 |
| Kirol taldekideekin              |   | 2 | 6 | 3 |
| Beste taldeetako<br>jokalariekin |   |   | 5 | 4 |
| Entrenatzaileekin                | 4 | 4 | 1 |   |
| Epaileekin                       | 3 |   | 5 | 5 |
| Irakasleekin                     | 3 |   |   | 6 |


Lehen bi galdera hauen emaitzak ez ziren talde handian komentatu. Jaso eta hurrengo saioan aipatuko ditugu emaitza nagusiak. Hirugarren eta laugarren galderen erantzunak, ordea, denon artean egin genituen eta hitz egiteko tarteak utzi genuen.

### 11. Zenbat hizkuntza dakizkigu?


Koloretako gometxak banatu genizkien:

- Marroia: hizkuntza hori ulertzeko eta hitz egiteko arazorik ez dut
- Berdea: hizkuntza hori ulertzen dut eta zerbait hitz egiten dut, baina ez ondo.
- Horia: Hizkuntza hori pixka bat ulertzen dut, baina ez dakit hitz egiten
- Gorria: Hizkuntza hori ez dut ulertzen.

Eta honelako panela aurkeztu:



Bertan hizkuntza bakoitza zenbat dakiten adierazi behar izan dute panelean gometxak ipiniz.



1 Irudia. Zenbat hizkuntza dakizkigu jardueraren emaitzak.

**Oharra:** Bestelako hizkuntzetan galiziera eta portugesa agertzen dira. Portuguesa neska batek uda bat han eman zuela eta ulertzen duela aipatu du eta beste batek galizian familia duela eta ulertu egiten duela galiziera. Bestalde, marraztutako aurpegi gorriak daude gomets gorriak gastatu egin zirelako.

## 12. Zer diote gutaz?

Panel honetan aurkariak dituzten taldeen izenak jarri genituen eta talde bakoitzari bi hitz jartzeko eskatu (denok batera):

- Ezaugarri nagusia: onak, txarrak, jatorrak, tranpatiak...
- Hizkuntza: euskara, gaztelania, biak

3 Taula. Talde aurkarien ezaugarri eta hizkuntzak.

| Talde aurkaria | Ezaugarriak    | Hizkuntza |
|----------------|----------------|-----------|
| La Salle       | Zikinak        | Gaztelera |
| Tabirako       | Oihukatzaileak | Gaztelera |
| Fátima         | Jokalari onak  | Gaztelera |
| Azkartza       | Pijak          | Gaztelera |
| Urdaneta       | Pasotak        | Gaztelera |
| Escolapios     | Zirikatzaileak | Gaztelera |

Talde guztien hitzak amaitu ondoren alderantzizko ariketa egiteko eskatuko genien. Nola iruditzen zaizue ikusten zaituztetela beste taldeek zuei?



2 Irudia. Talde, ezaugarri eta hizkuntzekin osatutako panela.



3 Irudia. Dinamika burutzen.

## D EREDUKO KIROLA

### 6 EGUNA

#### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                              |                     |   |          |       |                 |             |
|-------------------------------|------------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                        | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |             |
|                               |                              |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak     |
| 2018/03/13<br>17:00-<br>17:30 | Arrigorriagako<br>kiroldegia | Saio<br>dinamizatua | 6 | Infantil | 11-13 | Itaso<br>Ander  | 11<br>neska |

#### 9. JARDUERA: Euskara kirolean

Aurreko jarduerari buruzko balorazio kolektiboa egin ondoren Tribuaren Berbak material didaktikotik bideo batzuk ikusi genituen euskararen presentzia kirolean zein den ikusteko.

#### 10. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen

Jarduera honetan gazte kirolariak talde txikitan bildu ziren. Talde bakoitzean euren kirol praktikan erabiltzen dituzten esamoldeak zerrendatu behar zituzten: zer esamolde erabiltzen ditugu kirolean... animoak emateko? Kexatzeko? Lagunei gauzak esateko? Jokaldiekin lotutakoak?. Bostgarren jardueran lehen jasoketa bat egin genuen eta oraingoan egun horretan jasotakoak ekarriko ditugu gaika ordenatuta. Ahalik eta zerrenda luzeenak osatzea izan zen helburua. Gaiak:



1 Taula. Esamoldeen jasoketa.

| ANIMOAK              | HASERREA         | AGINDUAK         | POZA             | TRISTURA    | AZALPEN<br>TEKNIKOAK   |
|----------------------|------------------|------------------|------------------|-------------|------------------------|
| Animo                | Jainkotxo maitea | Atera kanpora    | Canastón         | Joe         | Pasa eta moztu         |
| Aupa Padura          | Que hija de puta | Pasea gogor eman | Tri-tri-tripleee | Ze txarto   | No os lieis a botar    |
| Ese Padura           | Me cago en dios  | Pasea eman       | Ole! Ole!        | Ze tristura | Pasen bidez igo pilota |
| Eutsi goiari         | Puto arbitro     | Sigue tu         | Taponazo         |             |                        |
| Eman egurra          | Joder            | Moztu            | Oso ondo         |             |                        |
| Jo ta ke irabaz arte | Mierda           | Corta            | Eres la mejor    |             |                        |
| Gora talde urdina    | Cabron/a         | Ezkerra          | Primeran         |             |                        |
| Gora gu              |                  | Gogor eutsi      | Jugadon          |             |                        |
|                      |                  | Rapido           | Vamos            |             |                        |
|                      |                  |                  | Aupa             |             |                        |





*1 Irudia. Bideoa ikusi ostean esamoldeak jasotzen.*

Taldeka egindako zerrendak jaso eta hurrengo egunerako zerrenda bakar bat osatuko dugu bildutako esamolde guztiekin. Horretaz gain, guk euren entrenamendu eta partiduetako behaketetan jasotako esamoldeak ere gehituko ditugu.

## D EREDUKO KIROLA

### 7 EGUNA

#### Padura-Saskibaloia

| Padura<br>Saskibaloia         |                              |                     |   |          |       |                 |            |
|-------------------------------|------------------------------|---------------------|---|----------|-------|-----------------|------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia                        | Jarduera mota       |   | Maila    | Adina | kopuruak        |            |
|                               |                              |                     |   |          |       | Entrenatzaileak | Gazteak    |
| 2018/03/20<br>17:00-<br>17:30 | Arrigorriagako<br>kiroldegia | Saio<br>dinamizatua | 7 | Infantil | 11-13 | Itsaso<br>Ander | 9<br>neska |

#### 11. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz

Esamoldez osatutako kirol hiztegi bat osatzea izan da helburua. Taldetan jarri eta esamolde multzoa prestatzeari ekin zioten honako ataletan:

5. Animoak
6. Tristura, haserrea, amorrua
7. Poza, algara, zirikatzea
8. Aginduak eta azalpen teknikoak

Aurreko saioan jasotako esamoldeez gain fotokopia batzuk banatu zitzaizkien. Bertan multzo bakoitzeko esamolde zerrenda luze samarrak agertzen ziren. Bost edo sei esamolde aukeratzeko eskatu zitzairen, datozen asteetan bereziki erabili beharrekoak.

#### 12. JARDUERA: Erronka

Esamoldeekin lotutako erronka bat proposatu zitzairen. Bi aukera hauek aurreikusten ziren:

5. Erronka: ENTRENAMENDU OSO BAT (edo bi) EUSKARAZ EGITEA:  
Helburua Kirol Hiztegi Gaztea oinarri hartuta entrenamendu oso bat euskaraz garatzea litzateke.

6. Erronka: ENTRENAMENDU BATEAN (edo gehiagotan) ESAMOLDE BATZUK ERABILTZEA:

Kirol Hiztegi Gaztean dauden esamolde batzuk (beraiek erabaki beharko dute zenbat) erabiltzea datozen asteetan.

Talde txikitan banatuta proposatutakoarekin honako erabakiak hartu ziren: osteguneko entrenamendua eta aste hartako partida euskaraz egitea.

Entrenatzaileen laguntza ere eskatu genuen errefortzu lana egiteko. Entrenatzaileen paperak hiru gako hauek izango ditu:

7. Erabakitako esamoldeak erabili eta erabiltzera animatu.
8. Errefortzu positiboa eskaintzea (zoriontzea erabiltzen dituztenean)
9. Intentsitatea galtzen denean erronka gogoratu.

Hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela ikusarazteko dinamika bat da honako hau. Kirolari gazteei errotuta dauden ohiturak aldatu daitezkeela adierazi nahi diegu praktika zehatz honen bidez.



1 Irudia. Esamoldeen hiztegia osatzen.

# *Real Sociedad*



# D EREDUKO KIROLA

## 1 EGUNA

### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2017/10/27<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 1 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 17<br>mutil |

#### 1. JARDUERA: Aurkezpena

Aurkezpena egitea izan zen lehen jardueraren helburua. Proiektuan parte hartuko duten entrenatzaile eta kirolariei egitasmoa azaltzeko helburuarekin hamar minutu inguruko azalpena eman zitzaien. Hauen konpromisoa jasotzeko parte hartzeko prest zeuden ere galdetu zitzaien, baiezkoa jasoz.

#### 2. JARDUERA: Taldearen posterra

Jarduera honen helburua kirolari gazteak identifikatu eta hauen iritziak jasotzea izan zen. Horretarako taldearen posterra egitea proposatu zitzaien, zenbait pausu jarraituz.

##### 2.1. BANAKAKO FITXA

Kirolari bakoitzak honako datuak bete zituen:

*Izen-abizenak:*

*Adina:*

*Bizilekua (herria):*

*Gustukoa dituen hiru kirolariren izena: 1....., 2....., 3.....*

Taula 3. Banakako Fitxa dinamikan jasotako datuak.

|    | Izen-abizenak                      | Bizilekua                 | Kirolariak                                                                                  |
|----|------------------------------------|---------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1  | Dominic Torres Orozco              | Hondarribia               | Cristiano Ronaldo<br>Paulo Dybala<br><a href="#">Xabi Prieto</a>                            |
| 2  | Eneko Behobide                     | Hondarribia               | Pujol<br><a href="#">Iñigo Martinez</a><br>Dybala                                           |
| 3  | Adrian Zango Agirrezabal<br>(atz.) | Gasteiz                   | David de Gea -atez.-<br>Buffon -atez.-<br>Iniesta                                           |
| 4  | Manex Ibarrondo Martinez           | Aretxabaleta              | Messi<br><a href="#">Illarramendi</a><br>Marc Marquez (moto)                                |
| 5  | Iker Otadui                        | Antzuola                  | <a href="#">Mikel Oiarzabal</a><br><a href="#">Jokin Altuna</a> (pilota)<br>Federer (tenis) |
| 6  | Alex Fernandorena Yurrita          | Usurbil                   | <a href="#">Odriozola</a><br>Nadal (tenis)<br>Federer (tenis)                               |
| 7  | Jon Eceizabarrena                  | Donostia - Gros           | <a href="#">Illarra</a><br>Nadal (tenis)<br><a href="#">Odriozola</a>                       |
| 8  | Aritz Sudupe<br>(atz.)             | Azkoitia                  | De Gea -atez.-<br><a href="#">Olaizola II</a> (pilota)<br><a href="#">Xabi Prieto</a>       |
| 9  | Eneko Gaztañaga Uranga             | Orio                      | <a href="#">Odriozola</a><br>Modric<br>Messi                                                |
| 10 | Iker Gabilondo Eskudero            | Azpeitia                  | <a href="#">Odriozola</a><br>Messi<br>Modric                                                |
| 11 | Martin Arruti Gurruchaga           | Donostia Aiete            | Isco<br>Usain Bolt (atletismo)<br>Nadal (tenis)                                             |
| 12 | Aimar Olarra Aierdi                | Donostia                  | Marcelo<br><a href="#">Aimar Olaizola</a> (pilota)<br><a href="#">Januzaj</a>               |
| 13 | Marc Laboreria                     | Donostia                  | Messi<br><a href="#">Odriozola</a><br>Iniesta                                               |
| 14 | Xabier Yaniz                       | Oiartzun +<br>Astigarraga | <a href="#">Odriozola</a><br>Modric<br><a href="#">William Jose</a>                         |
| 15 | Arkaitz Mariezkorrena              | Astigarraga               | <a href="#">Illarramendi</a><br><a href="#">Odriozola</a><br>Iniesta                        |
| 16 | Hugo Madina                        | Urruña                    | Griezman                                                                                    |

|    |                    |         |                                                  |
|----|--------------------|---------|--------------------------------------------------|
|    |                    |         | John John Florence (surf)<br>Kylian Mbappe       |
| 17 | Jon Yeabsera/Landa | Amurrio | Nadal (tenis)<br>Messi<br>Usain Bolt (atletismo) |

51 kirolarietatik:

38 futbolari (%75)

13 beste (%25) – Tennis 6 (Nadal 4) – Pilota 3 (Olaizola 2) – Atletismo 2 (Bolt 2) – Surf 1 – Moto 1

Euskaradunak 17 (%33,3)

Futbolariak 38:

Real: 16 (%42) - Odriozola 7 – Illarramendi 2- Xabi Prieto 2

Messi 5 – Iniesta 3 – Modric 3

## 2.2. TALDE ARGAZKIA

Azaldu zitzaaien hurrengo saioetarako taldearen posterra egitea zela ideia. Giroan sartzeko etxean kirol taldeen horma-irudirik duten galdetu zitzaaien eta horren inguruan solastu ziren.

Ondoren bi argazki atera ziren eta horma-irudia osatu:

1. Denak batera kirol horma-irudien estiloan.



Irudia 5. Kirolarien horma-irudia



2. Argazkiarekin osatutako horma-irudia kirolarien izenekin.

Irudia 6. Kirolarien horma-irudia





# D EREDUKO KIROLA

## 2 EGUNA

### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2017/11/08<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 2 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 15<br>mutil |

### 3. JARDUERA: Komunikazioaren garrantzia

Gaian sartzeko komunikazioa zer den galdetu zitzaien. Ondoren, komunikazioaren inguruko adibide zehatz batzuk ikusi genituen kirolean komunikazio ona eta komunikazio txarra erakusten zutenak. Bikotetan erabaki zuten egoera horien artean zein ziren komunikazio ona adierazten zutenak eta zein komunikazio txarra adierazten zutenak.

Bikoteka jartzeko eskatuko zitzaien eta bikote bakoitzari orri bana eman honako taularekin:

|   | Komunikazio<br>ona | Komunikazio<br>txarra | Komunikazio mota (ahotsa,<br>gorputza, keinuak...) |
|---|--------------------|-----------------------|----------------------------------------------------|
| 1 |                    |                       |                                                    |
| 2 |                    |                       |                                                    |
| 3 |                    |                       |                                                    |
| 4 |                    |                       |                                                    |
| 5 |                    |                       |                                                    |
| 6 |                    |                       |                                                    |
| 7 |                    |                       |                                                    |

Bideoak ikusi eta gero bikote bakoitzak jarritakoa elkarbanatu zuen. Bideoak berriz ikusi eta adostasuna ote zegoen ikusteaz gain, jarri zutena zergatik jarri zuten galdetu zitzairen. Komunikazio mota ezberdinen inguruan ere hitz egiteko eskatu zitzairen (noiz erabiltzen den bat edo bestea, zergatik...).

*Taula 1. Kiroleko komunikazioaren inguruko bideoekin osatutako taula*


| BIDEOA |                                         | Komunikazio |        | Komunikazio mota                                                                                                                                               |
|--------|-----------------------------------------|-------------|--------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|        |                                         | ona         | txarra |                                                                                                                                                                |
| 1      | Futbola- Falta gaizki botata            | 0           | 8      | <u>Komunikaziorik ez dago</u><br><u>Keinuak 2</u><br><u>Keinuak eta hitzak</u><br><u>Keinuak eta gorputza. Gaizki prestatua</u><br><u>Gorputza eta keinuak</u> |
| 2      | Futbola- Pires-Henri penaltia           | 0           | 8      | Keinuak 2<br>Keinuak eta ahotsa<br>Atentzio txarra<br>Mala komunikazion<br>Gorputza gaizki dago<br>Ahotsa, gorputza                                            |
| 3      | Saskibaloia- Ondo prestatutako Jokaldia | 8           | 0      | Ahotsa 2<br>Keinuak, idatzia, ahotsa<br>Ahotsa eta gorputza 2<br>Gestuak eta hitzak<br>Ahotsa eta keinuak<br>Planifikazio ona                                  |

8 bikotek parte hartu zuten

#### 4. JARDUERA: Kirolaren eragileak

Komunikazio prozesuan elementu ezberdinak kontuan hartzearen eta komunikazio agenteak zehaztearen garrantzia azpimarratu zen. Kirolean komunikazio agenteak 5 izan daitezkeela aipatu zen: (1) Entrenatzaileak (2) Kirolariak (3) Aurkariak (4) Ikusleak (5) Bestelakoak (epaileak, antolatzaileak...).

Taldekidetxek eskatuko zitzairen eragile hauek identifikatzeko eta partidetan eta entrenamenduetan kokatzeko. Horretarako, bi horma-irudi handi erabili ziren. Biak joko-zelaiak irudikatzen zituzten panelak. Honelakoak:




Paneletan eragile ezberdinak kokatu behar zituzten. Horretarako irudi batzuk banatu zitzaizkien:

19. Entrenatzaileak: entrenatzaile ezagun baten argazkia
20. Jokalariak: aurreko saioan taldearen posterra
21. Aurkariak: kirol talde ezagun baten irudia
22. Ikusleak: ikusle talde baten argazkia
23. Antolatzaileak: kirol talderen baten arduradunen irudi bat
24. Epaileak: epaile ezagun baten irudia

Guztira 12 irudi: 6 irudi entrenamenduaren panelerako eta beste 6 irudi partidaren irudirako. Aurreko jardueran (3. Jarduera) bikoteka antolatu genituenez, honetan ere horrela jarraitzeko eskatu genien. Bikote bakoitzari irudi bana eman genien eta panel batean kokatzeko eskatuko. Irudi guztiak kokatuta zeudenean ezberdintasunak komentatu genituen.

Hurrengo saioan panelak berriz ekarriko genituela eta osatzen jarraituko genuela adierazi ondoren, eskerrak eman eta agurtu egin ginen.



*1 Irudia. Bideoak ikusi ondoren 4. Jarduerako dinamika burutzen.*

## D EREDUKO KIROLA

### 3 EGUNA


#### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2017/11/22<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 3 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 13<br>mutil |


#### 5. JARDUERA: Eragileen komunikazioa

Aurreko saioko dinamikaren jarraipena zen jarduera hau. Aurrekoan, kirolean komunikazioak duen garrantzia aztertzearekin batera, kirol-komunikazioan parte hartzen duten eragileak kokatu genituen. Saio honetan, panel horiek osatu genituen komunikazioa nolakoa izaten den ulertzeko.


Taldeak osatu genituen eta 3. Jardueran osatu zituzten panelen kopiak banatu genizkien. Talde batek entrenamenduaren panela izan zuen eta besteak partidena. Bestalde, gezi ezberdinak banatu genizkien. Honakoak:



Gezi hauek kokatu behar zituzten eragileen artean. Norantzak adierazten du nork komunikatzen dion nori (adibidez, entrenatzaileak kirolariari). Gezien lodierak adierazten du komunikazioaren garrantzia (adibidez, entrenatzaileek asko komunikatzen badiete kirolariei gezi potoloa jarriko dute). Talde guztiek amaitu zutenean panel handiak osatu genituen taldeetan egindakoa batera jarriz.



1 Irudia. Entrenamenduan komunikazioaren noranzkoak eta garrantziak.



2 Irudia. Partidan komunikazioaren noranzkoak eta garrantziak.

Jarraian, komunikatzen dena paneletan jartzeko eskatu genien. Joko-zelaiak irudikatzen dituzten paneletan, kirolean komunikatzen diren espresio motak kokatu zituzten honelako irudiak erabiliz:



Gazte bakoitzari horrelako bina eman eta paneletan kokatzeko eskatuko zitzaien (Post-it formatuan). Panelak osatuz gero komentatzeko aukera egon zen.



3 Irudia. Entrenamenduan komunikatzen diren espresio-motak.

1 Taula. Entrenamenduan komunikatzen diren espresio-motak

|                 | Animoak |  | Poza |  | Tristura |  | Haserrea |  | Aginduak |  | Azalpen teknikoak |  |
|-----------------|---------|--|------|--|----------|--|----------|--|----------|--|-------------------|--|
| Taldea          |         |  |      |  |          |  |          |  |          |  |                   |  |
| Entrenatzaileak |         |  |      |  |          |  |          |  |          |  |                   |  |
| Antolatzaileak  |         |  |      |  |          |  |          |  |          |  |                   |  |
| Ikusleak        |         |  |      |  |          |  |          |  |          |  |                   |  |





4 Irudia. Partidetan komunikatzen diren espresio-motak.

2 Taula. Partidetan komunikatzen diren espresio-motak.

|                 | Animoak |   | Poza |  | Tristura |  | Haserrea |   |   | Aginduak |  | Azalpen teknikoak |   |
|-----------------|---------|---|------|--|----------|--|----------|---|---|----------|--|-------------------|---|
| Taldea          | 1       |   | 1    |  |          |  | 1        |   |   |          |  | 1                 |   |
| Aurkariak       |         |   |      |  |          |  |          |   |   |          |  |                   |   |
| Entrenatzaileak | 2       | 2 |      |  |          |  | 3        | 3 | 3 | 4        |  | 5                 |   |
| Antolatzaileak  |         |   |      |  |          |  |          |   |   | 6        |  |                   |   |
| Ikusleak        | 7       |   | 7    |  | 7        |  | 8        | 8 |   |          |  |                   |   |
| Epaileak        |         |   |      |  |          |  |          |   |   |          |  | 9                 | 9 |

Eskerrak eman ondoren agurtu ginen.

## D EREDUKO KIROLA

### 4 EGUNA

#### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2017/12/13<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 4 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 17<br>mutil |

#### 6. JARDUERA: Gure komunikazioaren azterketa

Jarduera honetan, prentsurreko bat irudikatzea izan zen helburua. Hasteko hiru boluntario eskatuko ziren prentsurrekoan erantzuten parte hartzeko. Gainontzeko gazteak kazetari lanetan aritu ziren. Galdera zerrenda bat prest eraman genuen eta “kazetari” bakoitzak galdera horietako bat aukeratu eta beste bat sortu behar zuen. Modu horretan “kazetari” bakoitzak bina galdera zituen.

Guk emandako galderak:

- Zer moduz doa aurtengo sasoia? Espero zenuten emaitzak lortzen ari al zarete?
- Gustura al zaude egiten ari zaren lanarekin?
- Entrenamenduak gogorrak izaten ari al dira? Zein da entrenamenduetan gogokoen duzun ariketa?
- Nolako harremana duzu zure taldekideekin? Asko hitz egiten duzu eurekin? Noiz? Nola?
- Partidetan ondo komunikatzen al zarete?
- Zein da partidetan gehien hitz egiten duena? Zer nolako hitzak botatzen ditu?
- Ba al duzue abesti edo esamolderen bat partidak hasi aurretik taldea animatzeko?

- *Nola ospatzen dituzu golak?*
- *Haserretzen zarenean zer egiten duzu? Zer esaten duzu?*
- *Zer iritzia duzu zuen partidetakoko ikusleen inguruan? Zein ohiu dira gehien errepikatzen direnak?*
- ...

Kirolariek prestatutako galderak:

- *Partido bat ongi jolasten desutenean nola sentitzen sarete?*
- *Zer egiten dezu partidu aurretik? Beroketa ezik?*
- *Zenbat gol sartu dituzu zeure atean karrera osoan?*
- *Zemuz ikusi zara partiduan?*
- *Zer egiten dezu partidu bat jolastu ondoren?*
- *Zer moduz sentitzen zarete partidu bat irabazi ondoren? Nola sentitzen zara partidu baten aurretik?*
- *Zergatik aukeratu zenuen futbola?*
- *Ez bazinen futbolaria izango, zer lanbide aukeratuko zenuke?*
- *Zein da zure jokalaria gustokoena? Errealekoa.*
- *Zein da zure jokalaria gustokoena?*
- *Entrenamenduak ala hondartza? Ondo al zaude taldekideekin?*
- *Zer moduz zure neska laguna aintzane?*
- *Entzuten da asko, zure neska laguna Ixone dela. Egia da?*
- *Neska laguna duzu?*

Jarduera bideoz grabatu zen.

Bideoak:

<https://drive.google.com/open?id=13bVMpt3lq0oHLe1cnqeHh0ulmHTRtA6m>

[https://drive.google.com/open?id=1oO\\_2h9BMaiGwAzwEwPNETptLYWLUnE7W](https://drive.google.com/open?id=1oO_2h9BMaiGwAzwEwPNETptLYWLUnE7W)



*1 Irudia. Prentsaurrekoa prestatzen.*

# D EREDUKO KIROLA

## 5 EGUNA

### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2018/01/17<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 5 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 15<br>mutil |

#### 8. JARDUERA: Geure buruari galdezka

Jarduera honetan ohiko kirol jarduera aztertu genuen eta beste hizkuntzekin alderatuta euskara non, noiz eta nola erabiltzen dugun ikusi. Guztira lau galdera luzatu genizkien; lehen bi galderak banaka bete beharrekoak paper banatan, hirugarren eta laugarren galderak panel handietan erantzutekoak.

#### 13. Zein hiztun mota gara?

Ondorengo laukia pasa zitzaien osatzeko.

|                                                                 | Ahozkoa<br>ulertu | Hitz<br>egin | Idatzizkoa<br>ulertu | Idatzi |
|-----------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|----------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz<br>gaztelaniaz/frantsesez baino  |                   |              |                      |        |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez<br>berdintsu moldatzen naiz |                   |              |                      |        |
| Gaztelaniaz/frantsesez hobeto<br>moldatzen naiz euskaraz baino  |                   |              |                      |        |

Hauek emaitzak.

1 Taula. Hiztun motaren inguruko emaitzak

|                                                                 | Ahozkoa<br>ulertu | Hitz<br>egin | Idatzizkoa<br>ulertu | Idatzi |
|-----------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|----------------------|--------|
| Euskaraz hobeto moldatzen naiz<br>gaztelaniaz/frantsesez baino  | 7                 | 7            | 7                    | 7      |
| Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez<br>berdintsu moldatzen naiz | 4                 | 4            | 4                    | 4      |
| Gaztelaniaz/frantsesez hobeto<br>moldatzen naiz euskaraz baino  | 2                 | 2            | 2                    | 2      |

#### 14. Non egiten dugu?

Honako taula pasa zitzaien betetzeko.

|                                  | Nagusiki edo ia<br>beti euskaraz | Bi hizkuntzetan<br>berdin | Nagusiki edo ia beti<br>gaztelaniaz /frantsesez | Oharrak |
|----------------------------------|----------------------------------|---------------------------|-------------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                       |                                  |                           |                                                 |         |
| Anaia-arrebekin                  |                                  |                           |                                                 |         |
| Ikaskideekin gelan               |                                  |                           |                                                 |         |
| Ikaskideekin gelatik<br>kanpo    |                                  |                           |                                                 |         |
| Kuadrillan                       |                                  |                           |                                                 |         |
| Whatsapp,<br>Instagram...        |                                  |                           |                                                 |         |
| Kirol taldekideekin              |                                  |                           |                                                 |         |
| Beste taldeetako<br>jokalariekin |                                  |                           |                                                 |         |
| Entrenatzaileekin                |                                  |                           |                                                 |         |
| Epaileekin                       |                                  |                           |                                                 |         |
| ...                              |                                  |                           |                                                 |         |

Emaitzak.

2 Taula. Euskara non egiten dutenaren inguruko emaitzak.

|                               | Nagusiki edo ia<br>beti euskaraz | Bi hizkuntzetan<br>berdin | Nagusiki edo ia beti<br>gaztelaniaz /frantsesez | Oharrak |
|-------------------------------|----------------------------------|---------------------------|-------------------------------------------------|---------|
| Gurasoekin                    | 8                                | 2                         | 5                                               | 1       |
| Anaia-arrebekin               | 8                                | 1                         | 4                                               | 1       |
| Ikaskideekin gelan            | 9                                | 2                         | 3                                               | 1       |
| Ikaskideekin gelatik<br>kanpo | 5                                | 5                         | 4                                               | 1       |
| Kuadrillan                    | 5                                | 5                         | 4                                               |         |
| Whatsapp,<br>Instagram...     | 6                                | 5                         | 3                                               |         |
| Kirol taldekideekin           | 2                                | 11                        | 2                                               |         |

|                                                   |   |   |   |  |
|---------------------------------------------------|---|---|---|--|
| Beste taldeetako jokalariekin                     | 1 | 6 | 4 |  |
| Entrenatzaileekin                                 | 8 | 8 | 1 |  |
| Epaileekin                                        | 2 | 6 | 5 |  |
| ...<br>Hiruk aipatu dute aiton/amonak edo familia | 3 | - | - |  |


Lehen bi galdera hauen emaitzak ez dira talde handian komentatu. Jaso eta datorren saioan aipatuko ditugu emaitza nagusiak. Hirugarren eta laugarren galderen erantzunak, ordea, denon artean egin genituen eta hitz egiteko tarteak utzi genuen.

### 15. Zenbat hizkuntza dakizkigu?

Koloretako gometxak banatu genizkien:

- Marroia: hizkuntza hori ulertzeko eta hitz egiteko arazorik ez dut
- Berdea: hizkuntza hori ulertzen dut eta zerbait hitz egiten dut, baina ez ondo.
- Horia: Hizkuntza hori pixka bat ulertzen dut, baina ez dakit hitz egiten
- Gorria: Hizkuntza hori ez dut ulertzen.

Eta honelako panela aurkeztu:



Bertan hizkuntza bakoitza zenbat dakiten adierazi behar izan zuten panelean gometxak ipiniz.



2 Irudia. Zenbat hizkuntza dakizkigu jardueraren emaitzak.

OHARRA: Bestelako hizkuntzetan agertu dira **Alemana, Katalana** (Marc) eta **San Andresano** (Dominique)

## 16. Zer diote gutaz?

Panel honetan aurkariak dituzten taldeen izenak jarri behar zituzten eta talde bakoitzari bi hitz jarri (denok batera):

- Ezaugarri nagusia: onak, txarrak, jatorrak, tranpatiak...
- Hizkuntza: euskara, gaztelania, biak...

3 Taula. Talde aurkarien ezaugarri eta hizkuntzak.


| Talde aurkaria                   | Ezaugarriak             | Hizkuntza                     |
|----------------------------------|-------------------------|-------------------------------|
| Lagun onak (Azpeitia)            | Langileak, harroak.     | Euskara                       |
| Vasconia (Donostia, Amara-Aiete) | Gogorrak, tranpatiak    | Gaztelera                     |
| Bergara (Bergara)                | Konpetitiboak, pikatiak | Euskara eta gaztelania berdin |
| Real Union (Irun)                | Gogortsuak, altuak      | Castellano                    |
| Lengokoa (Donostia)              | Harroak eta ausartak    | Gaztelania                    |
| Antiguoko (Donostia, Antiguu)    | Tranpatiak              | Castellano                    |

Talde guztien hitzak amaitu ondoren alderantzizko ariketa egiteko eskatu zitzaien: Nola iruditzen zaizue ikusten zaituztetela beste taldeek zuei?



Beraien taldea:

Saioa bukatzeko euren taldeko ezaugarriak esan behar dituzte. Denok batera esateko eskatu die Julenek eta kosta zaie. Hasieran inor ez da animatu hitz egiten eta Julenek lasai esateko eskatu dienean piskanaka animatu dira: “*Todo buenos!*” esan du batek eta atzetik beste batek azaldu du “*Onak direla!*”. “*Langileak*” beste batek. “*Gogorrak!*” besteak. Ondokoari ahots apalean “*guapoak*” esan du Iker Otaduik txantxetan eta biek barre egin dute. Xabi Abascalek “*konpetitiboak*” esan du eta Mikelek “*eta piska bat flipatuak ez?*” esanez osatu du. Hizkuntzari dagokionez “*biak*” aipatu dute batzuk eta beste batzuk “*euskara gehien bat*”. Bi aipamen horiek gu behatzen ari garenarekin bat egiten dutela pentsatu dut.



3 Irudia. Talde, ezaugarri eta hizkuntzekin osatutako panela.



4 Irudia. Dinamika burutzen.

# D EREDUKO KIROLA

## 6 EGUNA

### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2018/01/31<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 6 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 18<br>mutil |

#### 9. JARDUERA: Euskara kirolean

Aurreko jarduerari buruzko balorazio kolektiboa egin ondoren Tribuaren Berbak material didaktikotik bideo batzuk ikusi genituen euskararen presentzia kirolean zein den ikusteko.

#### 10. JARDUERA: Gure kirol hizkeran arakatzen

Jarduera honetan gazte kirolariak talde txikitan bildu ziren. Talde bakoitzean euren kirol praktikan erabiltzen dituzten esamoldeak zerrendatu behar zituzten: zer esamolde erabiltzen ditugu kirolean... animoak emateko? Kexatzeko? Lagunei gauzak esateko? Jokaldiekin lotutakoak?. Bostgarren jardueran lehen jasoketa bat egin genuen eta oraingoan egun horretan jasotakoak ekarriko ditugu gaika ordenatuta. Ahalik eta zerrenda luzeenak osatzea izan zen helburua. Gaiak:



1 Taula. Esamoldeen jasoketa.

| T<br>a<br>l<br>d<br>e | Animoak                                           | Poza                        | Tristura          | Haserrea                                             | Aginduak                                       | Azalpen<br>teknikoak                                                                      |
|-----------------------|---------------------------------------------------|-----------------------------|-------------------|------------------------------------------------------|------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1                     | Aupa<br>Vamos<br>Venga                            | Goll<br>Vamos               | Mierda<br>Joder   | Joder<br>Putasemea<br>Mecauen<br>la<br>puta          | Eskubi<br>eta<br>ezkerra                       | Toke gutxi<br>Vertical                                                                    |
| 2                     | Aupa ekipo!<br>Gora!                              | Vamos!<br>Onaaaaa!          | Txioss!           | Joder!<br>Hostia!<br>p***!<br>Mierda!<br>Kaka putza! | Poco toque!<br>Tapa<br>eskubi/ezkerra          | Tapa<br>eskubi/ezkerra<br>Uno salta y otro<br>eje                                         |
| 3                     | Aupa!<br>Animo!<br>Va equipo!<br>Vamos<br>equipo! | Vamos!<br>Horrela<br>seguí! | Noooo<br>Por que? | Ostia<br>Joder<br>Mierda                             | Ezkerrera<br>joan!<br>Kontuz<br>Solo           | Presion<br>Sihue, sigue,<br>sigue<br>Cambio<br>Más, que tu<br>puedes!                     |
| 4                     | Aupa<br>Ahal dugu                                 | Vamos<br>Aupa               | -                 | Ostia<br>Me kago en la<br>p...                       | Tapa banda<br>Itxi azkar<br>Toke gutxi<br>Pasa | Presió, presión<br><del>Que no se de la</del><br><del>vuelta</del><br>Ez ematea<br>vuelta |
| 5                     | Aupa ekipo,<br>aupa Real!!                        | Bamos!!!<br>Kriston<br>ondo | -                 | Mierda!<br>Me cago en la<br>...<br>Kaka!             | Busca zona<br>débil!!!<br>Erdirago<br>joan!!!  | Aginduen<br>berdina                                                                       |

|  |  |                  |  |                            |                                                                                                    |  |
|--|--|------------------|--|----------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | jolastu<br>dugu! |  | Joder!!!<br>Vaya mierda!!! | Saltar lineas de<br>presión!!!<br>Kontuz/bakarri<br>k<br>Eje, Manex<br>(Martin, Hugo,<br>Marc) eje |  |
|--|--|------------------|--|----------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|--|



1 Irudia. Bideoa ikusi ostean esamoldeak jasotzen.

Taldeka egindako zerrendak jaso eta hurrengo egunerako zerrenda bakar bat osatuko dugu bildutako esamolde guztiekin. Horretaz gain, guk euren entrenamendu eta partiduetako behaketetan jasotako esamoldeak ere gehituko ditugu.

# D EREDUKO KIROLA

## 7 EGUNA

### Real Sociedad-Futbola

| Real Sociedad<br>Futbola      |         |                     |   |                    |       |                              |             |
|-------------------------------|---------|---------------------|---|--------------------|-------|------------------------------|-------------|
| Data/<br>Ordua                | Tokia   | Jarduera mota       |   | Maila              | Adina | kopuruak                     |             |
|                               |         |                     |   |                    |       | Entrenatzaileak              | Gazteak     |
| 2018/02/21<br>18:00-<br>19:00 | Zubieta | Saio<br>dinamizatua | 7 | Infantil-<br>txiki | 12    | Mikel Ferradas<br>Josu Rivas | 14<br>mutil |

#### 11. JARDUERA: Kirol hiztegi gaztea osatuz

Esamoldez osatutako kirol hiztegi bat osatzea izan da helburua. Taldetan jarri eta esamolde multzoa prestatzeari ekin zioten honako ataletan:

9. Animoak
10. Tristura, haserrea, amorrua
11. Poza, algara, zirikatzea
12. Aginduak eta azalpen teknikoak

Aurreko saioan jasotako esamoldeez gain fotokopia batzuk banatu zitzaizkien. Bertan multzo bakoitzeko esamolde zerrenda luze samarrak agertzen ziren. Bost edo sei esamolde aukeratzeko eskatu zitzairen, datozen asteetan bereziki erabili beharrekoak. Hauek dira multzo bakoitzean aukeratutakoak:

1. Animoak  
GOAZEN  
BENGA  
GOAZEN EKIPO  
ANIMO  
AUPA MUTILAK

AUPA ERREALA

2. Tristura, haserrea, amorrua  
KAKA ZAHARRA  
MEKATXIS LA MAR  
OSTIELA  
PIKUTARA JOAN  
BABOA
3. Poza, algara, zirikatzea  
GOAZEN  
GOLA  
ONA  
HORRELA SEGI  
AUPA TALDE  
GOAZEN, OSO ONDO JOLASTU DUGU  
GOAZEN, GOAZEN OSTIA
4. Aginduak eta azalpen teknikoak  
TOKE GUTXI  
BERTIKALA IZAN  
BAT PRESIORA JOAN ETA BESTEA EJE  
BAKARRIK/ KONTUZ  
TOKI AHULA BILATU  
PRESIOA/ PASA  
ESKUBIA ETA EZKERRA ERABILI  
TAPA ESKUIN/EZKERRA

## **12. JARDUERA: Erronka**

Esamoldeekin lotutako erronka bat proposatu zitzaien. Bi aukera hauek aurreikusten ziren:

7. Erronka: ENTRENAMENDU OSO BAT (edo bi) EUSKARAZ EGITEA:  
Helburua Kirol Hiztegi Gaztea oinarri hartuta entrenamendu oso bat euskaraz garatzea litzateke.
8. Erronka: ENTRENAMENDU BATEAN (edo gehiagotan) ESAMOLDE BATZUK ERABILTZEA:  
Kirol Hiztegi Gaztean dauden esamolde batzuk (beraiek erabaki beharko dute zenbat) erabiltzea datozen asteetan.

Talde txikitan banatuta proposatutakoarekin honako erabakiak hartu ziren: 3 entrenamendu osorik euskaraz egitea hiru astetan zehar. Datak: martxoaren 9an, martxoaren 16an eta martxoaren 23an.

Entrenatzaileen laguntza ere eskatu genuen errefortzu lana egiteko. Entrenatzaileen paperak hiru gako hauek izango ditu:

10. Erabakitako esamoldeak erabili eta erabiltzera animatu.
11. Errefortzu positiboa eskaintzea (zoriontzea erabiltzen dituztenean)
12. Intentsitatea galtzen denean erronka gogoratu.

Hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela ikusarazteko dinamika bat da honako hau. Kirolari gazteei errotuta dauden ohiturak aldatu daitezkeela adierazi nahi diegu praktika zehatz honen bidez.